



Guraso izateko  
nahiak behera egin  
du azken urteetan

Amaia Arroyo  
Sagastari  
elkarrizketa



## KORONABIRUSA



### MASKARAK EKOIZTEKO MAKINAK, TXINATIK MUNDURA

"Orain, beste hamar makina egiten gabiltza. Eskaintza piloa daukagu. Interes eta behar handiak daude", dio Mondragon Assembly kooperatibak Txinan duen lantegiko zuzendari nagusiak, Mikel Gantxegik / 4

Mikel Gantxegi, Mondragon Assembly-k Txinan duen lantokian. MIKEL GANTXEGI

**Bergarako Pentekoste jaiak eta Oñatiko Corpus Eguna bertan behera geratu dira, eta ez dira egingo** / 26

**Mari Carmen Gallastegi: "Sektore publikoak pauso bat atzera ematen du krisiak daudenean"** / 38

**Koronabirusaz kutsatu eta gainditu duten herritarren testigantzak**

"Positibo ematea kolpe latza izan zen, eta osteko zurrumurruek kalte handia egin zidaten" / 8



Eider Gabilondo, koronabirusaz kutsatutako lehen gipuzkoarra, Arrasateko etxean. E.G.

**Realeko jokalaria Andoni Gorosabelen ustez, futbola ez da aldatuko, "kontaktua izaten" segituko du** / 40

#### SINADURAK

	AINHOA NARBAIZA / 27
	IÑAKI UGARTEBURU / 10
	JOSUNE ODRIOZOLA / 35
	AITOR OROBENKOA / 17
	ANDER ETXEBERRIA / 48

Eneko Azurmendi ARRASATE

Lau fase izango ditu "normaltasun berrirako" bideak, Espainiako Gobernuak presidente Pedro Sanchezek azaldu duenez, eta maiatzaren 4an abiatuko da.

Bidea "poliki-poliki" egingo dela adierazi du Sanchezek, eta asimetrikoa eta koordinatua izango dela gaineratu. Horregatik, herritarrak ezingo dira probintzia artean mugitu ekain bukaerara arte, "birusaren zabalakundea ekiditeko". Hasiera batean, fase bakoitzak bi aste iraungo du, baina "birusaren bilakaeraren arabera" izango da faseen garapena ere. "Irizpide objektiboak erabiliko dira horretarako, markagailu batzuk zehaztuko dira eta horiei egingo zaie jarraipena".

Ofizialki astelehenean jarriko da martxan prestakuntzarako 0 fasea. Halere, esan daiteke dagoeneko fase horretan gaudela, apirilaren 26an umeen irteera baimenduta. Gainera, jarraipena izango du maiatzaren 2an, zapatuan, helduei paseatzera eta kirola egitera irteteko baimena emanda. Hala ere, oraindik ez dute xehetasunik eman gai horren inguruan. Maiatzaren 4tik aurrera etorriko dira jatekoa etxera eramateko aukera ematen duten jatetxeen irekiera, bakaraka egiten diren jarduera batzuk eta kirolari profesionalen entrenamendu saioak, esaterako.

Dena "ondo" badoa, maiatzaren 11n hasiko da lehen fasea: toki-merkataritzaren irekiera baimenduko dute, eta lehentasuna izango dute 65 urtetik gorako herritarrek; terrazen irekiera %30eko edukierarekin; hotel eta ostatuen irekiera, erabiltzaileak elkartzeko gune-rik gabe; arrantzaileak eta nekazariak lan egin ahal izango dute eta elizkizunetarako eraikinak zabalduko dira, baina heren bat bakarrik betetzeko aukerarekin. Garraio publikoan maskarak erabiltzea "oso gomendagarria" izango da oraindik.

Bigarren edo erdibideko fasea etorriko da gero. Eskola-jarduerak irailean itzuliko dela iragarri du Sanchezek, baina hainbat kasurako zabalduko dituzte: errefortzuak emateko; eta 6 urtez azpiko umeendako, gurasoen zaintzapean ezin badira geratu; eta selektibitateko. Jatetxeen irekiera ere baimenduko dute, baina bakarrik mahaiak erabiltzeko eta edukieraren heren bat



Umeek jada kalera irteteko baimena dute eta zapatutik aurrera, helduek ere bai. Irudian, hiru ume eta bi heldu, Bergaran. GOIENA

## Umeen ostean, helduek ere aukera izango dute kalera irteteko, zapatutik

Espainiako Gobernuak asteon iragarri du "normaltasun berrirako" plana, lau fasetan gauzatuko dena, "modu asimetrico eta koordinatuan"; prestakuntzarako 0 fasea astelehenean jarriko da martxan; "ondo bidean", fase bakoitzak bi aste iraungo du

beteta. Aisialdiari dagokionez, ehizan eta arrantzan joan ahal izango da, baita zinema eta antzokietara ere, baina heren bat bakarrik bete ahal izango dira horiek. Barruko kultura ikuskizunen kasuan, 50 lagunetik beherako guneak baimenduko dituzte eta kanpoan egiten diren kasuan 400 lagunetik beherakoak, eserita. Otoitzerako eraikinen kasuan, edukieraren erdia bete ahal izango da.

Azken fasean, debekuak malgutzen joango dira, mugikortasunari dagokionez zein eraikinen edukierari dagokionez. Salto-kietan, edukieraren erdia baimenduko dute.

"Normaltasun berria" ekain bukaerarako iragarri du, "ondo bidean". Hala ere, zehurtiaz jokatu duela ohartarazi du Espainiako Gobernuak.

### FASE BATETIK BESTERA ESPAINIAKO OSASUN MINISTERIOARENA IZANGO DA AZKEN HITZA ERABAKIETAN

Presidenteak jakinarazi duenez, azken hitza Osasun Ministerioak izango du, eta koordinazioaren ardura Madrilena izango da. Halere, kudeaketa erkidegoei, probintziei eta udalei dagokiela azpimarratu du.

İñigo Urkullu lehendakariak, bestalde, Jaurlaritzak osatutako "normaltasun berrirako trantsizio plana" kontuan har dezala eskatu dio Madrilgo Gobernuari, "governantza partekatuko, koordinazioko eta erantzukidetasunezko eredu bat" aplikatuz. Urkulluk dio Madril ez dela ari autogobernua aintzat hartzen.

### UMEAK KALERA EGUNEAN BEHIN OROKORREAN, ONDO ERRESPETATZEN ARI DIRA HERRITARRAK UMEEN ATERATZEAK

Bergarako Udaltzaingoak jakinarazi duenez, "lan pedagogikoa" egiten ari dira, gehienbat, egunotan, Ertzaintzaren protokoloa jarraituz. Herritarren zalantza argitzen dihardute, haiek laguntzen, eta, "kasu oso larria" ez bada, behintzat, ez dira isunik jartzen ari. Ez da halakorik izan. Identifikazio-lan batzuk ere egiten ari dira, baina ez herritarrak gaizki jokatzeko ari direlako, "kontrol bat" eraman behar izaten ari direlako baizik.

Ertzaintzak jakinarazi duenez, "normaltasun osoz" ari dira igerotzen egun hauek, zentzu ho-

rretan. "Salaketa bakarria jarri dugu, Bergaran. Familia ezberdinetako umeak elkarrekin jolasten ari ziren eta gurasoek ez zuten ezer egiten hori ekiditeko".

Bailarako udaletatik ere zentzuz jokatzeko dei egin diete herritarrei, eta Bergarako eta Oñatiko udalek, esaterako, umeendako aholkuak kaleratu dituzte egunotan.

### KORONABIRUSA DEBAGOIENEAN ARRASATEN ETA ARETXABALETAN BINA KASU BERRI, ETA BERGARAN BAT

Badirudi kutsatze berrien kopuruak egonkortuz doazela, eta horren erakusle dira aste honetako datuak. Halere, atzo, eguaztena, eguneratutako datuen arabera, azken orduetan bost koronabirus kasu berri baieztatu dituzte Debagoienez, eta guztira 375 dira –taulan herri bakoitzeko datuak–. Hego Euskal Herriari dagokionez, 591 kasu berri atzeman dituzte azken orduetan eta orotara 21.022 kutsatu dira orain arte. Gaitzaren eraginez hildakoak 1.722 dira, eta 12.556 erreperatu dira.

Adinekoen egoitzetako datuei dagokionez, Arrasateko Iturbiden 15 egoiliarrek dute COVID-19 gaitza, 43 sendatu dira eta 23 hil. GSR Aretxabaletan, 18 positibo daude eta lau lagun hil dira orain arte. Eskoriatzako Jose Aranan, pertsona bat dago gaitzarekin eta beste bat sendatu da. Gainontzeko egoitzetan ez dago koronabirus kasurik.

### ANBULANTZIAK HERRIZ HERRI OSPITALEETAKO ETA EGOITZETAKO LANGILEEI, OMENALDI HUNKIGARRIA

Anbulantziekin lan egiten duten hainbat kideren ekimenez, pasaden asteburuan Debagoieneko adinekoen egoitza guztietatik pasatu ziren hamabi bat ambulanzia, eta hainbat udaltzain eta ertzain auto, euren sirenak joaz, eta herri batzuetako kaleetan ere ibili ziren. Debagoieneko Ospitalean bukatu zuten bidea. Helburua garbia: ospitaleko eta adinekoen egoitzetako langileak omentzea. Egoitzetako langileak zein egoiliarrek eta hainbat bizilagun leihotara eta

balkoietara irten ziren txalo egitera, egiten ari diren lana aitortzeko helburuarekin. Hunkitu ere egin ziren asko eta asko.

LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA

## "GARAI ZAILATAN ETA KRISI EKONOMIKOAN" IRITSI DA MAIATZAREN BATA

Bihar, egubakoitza, izango da Langileen Nazioarteko Eguna, eta aurtengo ezohiko egoeran iritsi da, dudarik gabe. Sindikatuek ere, halabeharrez, ezohiko eran egingo dituzte aldarrikapenak. Hala, gehiengo sindikalak baturik sortu duen irudia marraztu eta balkoi eta leihotan jartzeko dei egin du. "Aitor-tza egun bat ere bada, mundu hobia sortzeko borroka egiten duten milaka eta milaka langileren lana goraiatzeko eguna", azaldu du Amagoia Lasagabasterrek, ELAko eskualdeko arduradunak.

LABek, bestalde, Eibartik abiatu eta eskualdeko herri ezberdinetatik igaroko den auto karabana egingo du, "agintariek debekatzen ez badute, behintzat", Jon Kirru Iparragirre eskualdeko arduradunaren esanetan. 10:00etatik 11:30era izango da. "Mobilizazio hau ez da izango masiboa. Gehienez, 20 auto batuko gara, osasunari dagozkion neurri prebentibo guztiak hartuta". Horrez gain, *streaming* bidez hainbat eduki partekatu-

ko dituzte: zaintzaren inguruko eztabaida bat eta Garbiñe Aranburu idazkari nagusiaren irakurketa politiko-sindikala, besteak beste.

ESK sindikatuko kide Felix Irizarrek azaldu duenez, leihora joko dute, "mundu berri bat ikuspegi feministatik eta naturarekiko errespetutik sortzeko uste sendoarekin". Gehiengo sindikalarekin bat eginez, egungo salbuespen egoera salatuko dutela gaineratu du.

Langile Komisioak eta UGT sindikatuek "manifestazio birtuala" egingo dute sare sozialen bitartez, 13:30ean, eta 17:00etan kontzertu birtuala ere egingo dute.

Lasagabasterrek azpimarratu du krisi ekonomiko nabaria dela. "Kaleratze, ERTE eta bizitza normalak eragindako gastuei aurre egin ezin dieten langile klasea gara. Badakigu aurreko krisietan zein errezeta ibili duten gure agintariek, zerbitzu publikoetan murrizketak, gastu sozialaren jaitsiera, soldaten izoztea denbora luzean, eta abar. Horri aurre egin behar diogu, klase moduan eta nazio moduan". Modu berean, gaineratu du "osasun krisi honek" balio izan die la konturatzeko zer den benetan bizitzan garrantzitsua. "Amesgaizto honek balio behar digu gizarte moduan ikuspegi berria izan eta bestelako balio batzuk lantzeko: laguntasuna, elkartasuna, osasuna, ingurumenari errespetua, eta abar".

LAB sindikatuarentzat ere "garai zailak" dira. "Batzuk kaleratuak izan dira, beste batzuek eskubide murrizketak pairatu ditugu, askok ziurgabetasunez begiraten diote etorkizunari. Salbuespen egoera honetan ha maika egoera latz bistaratu zaizkigu: Paristik eta Madrildik ezarritako dekretuen bidez lau paretaren artean zorrozki konfinatu gaituzten bitartean, prebentzio neurririk gabe lan egitera behartu gaituzte".

Irizarrek dio langileenak eta beste kolektibo ahul batzuenak beti izan direla garai zailak. "Baina garai hauetan, bereziki, pandemiak kaltetuak eta zigortuak izan direnei, gu zaintzeagatik, eta gure bizitza zaintzeaz arduratu diren langileei gure esker ona eta agurra egin nahi diegu", gaineratu du. "Langile gisa kokatu behar dugu gure burua, kapitala, pandemia apro-

betxatuz eta indarrez, saiatuko baita sorturiko kalteak betikook ordain ditzagun. Eta gure klase-indarraz baliatu behar dugu kapitalak eta haren gobernu txotxongiloek inposatu nahi digutenari aurre egiteko".

Bihar, ELAko gogoan izango ditu Euskal Herrian eta mundu guztian hil direnak. "Nabarmendu nahi dugu zer-nolako injustizia humanitarioa den milaka pertsonaren heriotza, behar bezalako osasun arretarik izan ez dutelako eta segurtasun neu-

rririk hartu ez delako. Pandemiak argitan utzi duen krisia ez dela unean unekoa, estrukturala baizik".

LABek ere ildo beretik egin du aldarrikapena. "Ikusi dugu zer beharrezkoa den osasun eta zaintza sistema publiko sendoa izatea. Ikusi ditugu milaka lagun herri eta auzoetako elkartasun sareetan antolatzen. Ikusi eta ikasi dugu gure lanak mugitzen duela mundua eta, era berean, gure lanak eraldatu dezakeela mundua. Gehiengoaren interesak

defendatuko lituzkeen herri eta eredu ekonomikoak da aldarrikatu nahi duguna".

ESKren iritziz, ahaleginak batzeko unea da. "Gehiengoak batzeko momentua da, pertsonen beharrak etekinen aurretik jarriko dituzten gehiengoak batzeko, bizitza kapitalaren interesen aurretik jartzeko. Bada garaia osasun eta hezkuntza publiko eta unibertsalaren defendatzeko, etorkizunean interes orokorreko ezinbesteko ondasun gisa inbertitzeko".



**ATE IREKIAK**  
**UNIBERTSITATE GRADUAK**  
2020/2021 ikasturtea

# LEARNING FROM REALITY

**INGENIARITZA**

**ONLINE MAIATZAK 19**  
ASTEARTEA 17:00 (EUS) / 18:30 (GAZ)  
Mekanika / Elektronika / Informatika

**ONLINE MAIATZAK 20**  
ASTEAZKENA 17:00 (EUS) / 18:30 (GAZ)  
Energia / Ekoteknologia / Diseinua

**ONLINE MAIATZAK 21**  
OSTEGUNA 17:00 (EUS) / 18:30 (GAZ)  
Antolakuntza / Biomedika / Mekatronika

**ENPRESA KUDEAKETA**

**ONLINE MAIATZAK 7**  
OSTEGUNA 17:30  
Business Data Analytics - BData

**ONLINE MAIATZAK 7**  
OSTEGUNA 18:30  
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza - myGADE

**EKINTZAILTZA**

**ONLINE MAIATZAK 6**  
ASTEAZKENA 18:00  
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza - LEINN

**HEZKUNTZA**

**ONLINE MAIATZAK 13**  
ASTEAZKENA 18:00  
Haur Hezkuntza / Lehen Hezkuntza

**KOMUNIKAZIOA**

**ONLINE MAIATZAK 13**  
ASTEAZKENA 18:00  
Ikus-Entzunezko Komunikazioa

**HUMANITATEAK**

**ONLINE MAIATZAK 9**  
LARUNBATA 10:30  
Humanitate Digital Globalak

**GASTRONOMIA**  
— Basque Culinary Center

**ONLINE MAIATZAK 23**  
LARUNBATA 16:00  
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak

**Etorriko zarela jakinarazi!**  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

### Kutsatuak Debagoiengan

Positiboak	100.000 biztanleko kutsatze tasa
Arrasate	221 1.003,68
Aretxabaleta	46 658,37
Oñati	44 388,18
Bergara	43 294,60
Eskoriatza	13 318,08
Antzuola	4 187,27
Aramaio	2 134,86
Elgeta	2 176,21
Gatzaga	0 000,00
<b>Guztira</b>	<b>375 585,84</b>

ITURRIA: OSAKIDETZA



**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE

Mondragon Assembly-k Txinan duen lantokian maskarak ekoizteko lau makina egin eta Euskal Herrira ekarri berri dituzte. Helburua da hilean 10 milioi maskara egitea. Koronabirusak eragin duen maskara premia ase nahi da. Txinako lantegiko gerente Mikel Gantxegi bergararak eman ditu zehaztasunak. **Koronabirusagatik maskaren premia agerian geratu da eta Espainiako Gobernuak Mondragon Assembly-rengana jo du. Zergatik?**

Bitxia izan da. Txinan sortzen diren aukeren adibide bat... Hemen birusak jo zuenean, 3 edo 4 aste egon ginen etxean sartuta. Enpresa itxita. Urtarrilaren 24an itxi genuen eta egun hartan bertan Wuhan hiria itxi egin zuten. Otsailaren 21ean zabaldu ahal izan genuen. Langileen erdiarekin edo. Otsailaren bukaeran hasi ginen entzuten eta ikusten gure hornitzaileak eta lehiakideak ari zirela maskarak egiteko ehunka makina fabrikatzen Txinan. Hornitzaile batek makinaren diseinu osoa helarazi zigun.

**Eta, hortik, makinak egitera?**

Diseinu horrekin, makina Europar eskaintzen hasi ginen, Txinan konpetentzia oso gogorra geneukalako eta aukera gutxi ikusten genuelako hemen. Batez ere, kontaktu eta ezagunen artean banatzen hasi ginen, tartean Oiarso kooperatibara [Bexen medical] ere helarazi genuen eskaintza, interesik baldin bazuten. Hala, martxoaren 10etik 13rako egunetan, Espainiako Industria Ministerioa Mondragon Taldearekin jarri zen harremanetan, maskarak egiteko aukerez berba egiteko. Mondragonek Oiarso enpresarekin kontaktatu zuen, hauek Espainia mailan dauden *gela zuri* bakarrenetarikoa zeukatelako, maskarak fabrikatzeko beharrezko azpiegitura bat, eta maskara kirurgikoak fabrikatzeko eskatu zioten.

**Hori bai zoria...**

Kointzidentzia edo zorzea. Une hartan, Oiarso gure makinak aukera mahai ganean zeukan, eta bat-batean, bizpahiru egunetan operazioa argi geratu zen. Martxoaren 13an, gerentearen, Luis Mari Imazen, deia jaso nuen operazio honen aukeraz hitz eginen. Astelehen hartan, fabrikazioa martxan jarri genuen. Eta 25 egunetan, makinak egiteko konpromisoa hartu genuen. Hori Txinan bakarrik egin daiteke.

# "Maskarak egiteko beste 10 makina ekoizten hasi gara"

**MIKEL GANTXEGI** MONDRAGON ASSEMBLY-KO TXINAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Maskarak egiteko makinak ekoizten ari da Txinan Mondragon Assembly. 4 ekoiztu dituzte eta beste 10 egiten ari dira. 85 laguneko taldea da, gehienak injineruak



Mikel Gantxegi, Mondragon Assembly-k Txinan duen lantegian. MIKEL GANTXEGI

ko denborarik apenas izan genuela. Hortaz, orain, lan apur bat badaukagu makinak adostutako produkzioan jartzen, baina lortuko da.

**Noiz hasiko dira maskarak ekoizten?** Ezin jakin, baina ikusi dut jada bideo baten gure makina bat maskarak ekoizten; oraindik erritmo geldoan, baina martxan. Astebetean edo bitan egon behar-ko lukete martxa onean.

**Makina gehiago ari zarete ekoizten une honetan?**

Bai. Orain, beste 10 makina egiten gabiltza. Materialen zain gaude, baina aste honen bukaeran hasiko gara muntaketarekin. Halere, gehiago egongo direla nahiko ziur gaude. Eskaintza piloa daukagu. Interes eta behar handiak daude. Pentsa, hemen, Txinan, egunero erabiltzen ditugu maskarak lanean, garraio publikoan, dendetan... Derrigorrezkoa da. Espainian ere berdin egiten bada eta pertsona bakoitzak 2 edo 3 maskara behar baditu astean, behetik jota, astean 100-150 milioi maskara biharko dira. Hori dena produzitzeko makina piloa bihar dira. Hasi gara pentsatzen makina hauek Aretxabaletan fabrikatu ahalko diren, behar diren epeetan eta behar den kopuruari aurre egiteko.

**Noizko izango dituzte gertu makinak horiek?**

Maiatz bukaera eta ekain hasiera artean prest egongo dira hemen, bidalketarako.

**lazko ekainean egin zenuten lantegi berriko lehen harria jartzeko ekitaldia. Noizko egongo da gertu?**

Lantegi berria eraikitzen aurreko ekainean hasi ginen eta espero dugu uztaileko bukatuta izan eta bertan kokatzea. Lantoki berria, gaur egun gauden lantokitik 500 bat metrotara dago, Kunshaneko Mondragon Parke Industrialaren pare-parean. Txinara planta zabaltzera 2013an etorri ginen. Orduan Orklik utzi zigun errentan bere plantaren zati bat eta hor gaude oraindik, baina jada leku falta sumatzen dugu azken urteetan izandako hazkundeagatik.

**Nola daude gauzak une honetan Txinan?**

Fabrikak eta komertzioak zabalik; kalean lasai ibil gaitzek; ikastetxeak hasi dira zabaltzen... Kontrol neurriak asko dira: maskarak eroan beharra; gorputzaren tenperaturako kontrolak lantegi, garraio eta komertzioetan...

**Denbora laburrean erantzun duzue.**

Bai, bai. Gure lantaldeak zuen gutzia eman du proiektu honetan, izugarria izan da konpromisoa. Egia esan, harritu egin nau. Denek kooperatu dute; gogoiz, gainera: erosketa, muntaia, injinerutza, giza baliabideak... Une batzuetan, gure taldeko 30 lagun genbiltzan lanean makinetan. Aretxabaletatik ere laguntza handia jaso dugu, injineruen aldetik, kudeaketan, koordinazioan Oiarso kooperatibaren eta Gobernuaren artean... Estres askokoa baina polita izan da.

**Norendako izango dira lau makina horiek?**

Hiru Oiarso enpresaren eskuetan daude, Etxebarrin, Cikautxok utzitako instalazioetan, eta bat Espainiako Armadaren Farmaziako unitatean, Burgosen.

**Une honetan Euskal Herrian dira makinak horiek, puntuan jartzen, ekoizpenarekin ahal den azkarren hasteko, ezta?**

Bai, Txinatik joandako lau teknikari eta Aretxabaletako beste 8 edo 10 teknikari ari dira makinak puntuan jartzen bezeroen etxeetan. Egia da hemen, Txinan, makinak produkzioak probatze-

**"25 EGUNETAN LAU MAKINA EGIN DITUGU; HORI TXINAN BAKARRIK EGIN DAITEKE"**

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



2020-2021

## Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK


### Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh • onarpena.lhm@mondragon.edu  
664 298 704 • 664 298 683

### Ate Irekiak Online

Maiatzak 25 - 26 -27



Patricia Barquero Garcia Fabrikazio Mekanikoaren Programazioaren  
Produkzioa Goi Mailako Heziketa Zikloaren 2.maila

#### Nola erabaki zenuen goi mailako zikloko ikasketak egitea?

Batxilergoa eta Haur Hezikuntzako gradua egin eta gero, aldaketa bat behar nuela sentitzen nuen eta industria mundura pasatzea erabaki nuen. Industria munduan lanean aritu nintzen denbora labur batean, eta esperientzia gustatu egin zitzaidan. Erosa sentitu nintzen lanean eta horrekin lotura zuten ikasketak egitea erabaki nuen: Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programaketa, hain zuzen. Honek lan mundurako aukera anitz eskaintzen dituelako aukeratu nuen; gainera, testuinguru ezberdinetan profesional moduan hazteko bideak zabalitzen ditu.

#### Zergatik MGEP?

MGEP aukeratu nuen aurreko ikasketak ere Mñ egin nituelako eta metodologia gustatzen zaidalako. Gainera, ate irekien jardunaldietan egon nintzen eta ekipamendu teknologiko onak zituela ikusi nuen. Hasieran, kosta egin zitzaidan inguru berron honetara moldatzea, hutsetik hasi bainintzen. Hala ere, ikasturtea aurrera egin ahala, fabrikazio mekanikoko munduan primeran murgildu nintzen.

#### Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Nolakoak izan da esperientzia hau?

Erronkak egin izan ditugu taldeka; esaterako, geometria askotariko piezen serieko fabrikazioa, entsegurako probeten prozesu guztia ezagutu –galdaketa, fabrikazio eta entsegua– ... Erronka hauek, gure sormena lantzeko aukera eskaintzeaz gain, talde lanean aritzeko kompetentzia lantzen ere lagundu izan digute, lan mundurako funtsezkoa den kompetentzia baita.

Hainbat enpresa ezaqutzeko aukera ere izan dugu eta honek errealtatearekiko ikuspegia zabalitzen lagundu digu. Errealtate oso ezagutu ditugu, eta, hortaz, ikasketak bukatutakoan lan egiteko aukera ezberdinak daudela konturatu gara.

#### Zer moduz ikasketak eskaini dizun praktikak egiteko aukera?

Gaur egun, diale egiten ari naiz MGEPko bi laborategi ezberdinetan. Esperientzia oso positiboa izaten ari da, profesional moduan hazteko aukera izateaz gain, aurreko ikasketetan barneratu nituen kompetentziak indartzeko aukera izaten ari naiz –talde lana, komunikazio gaitasuna...–. Gainera, lanpostuan ekipamendu berriak eta puntakoak erabiltzen ari naiz eta horrek etengabea ikasketak bermatzen laguntzen dit.

Bi ikerketa taldeetan egiten dut lan, eta hauetan materialak ezaugarritzen dira, batez ere. Gure lanaren bitartez, enpresa ezberdinek sortutako edota fabrikatutako materialen nolakotasuna aztertu eta dokumentatu egiten dugu, ondoren enpresek euren balorazioak egin ditzaten euren produktuarekiko.

Lan munduan murgiltzeko asmoa duena animatuko nuke duala egitera; honek esfortzua eta immotasuna eskatzen du, baina aukera paregabea dela iruditzen zait. Gainera, duala egiteak ere bere abantailak ditu ikasketei begira; izan ere, hainbat materialako ordu presentzialak eta edukiak baliozkotu daitezke.

#### Orain dela gutxi, kongresu baten izan zara. Zer aipatuko zenuke?

Otsailean, AICn antolatutako Junior Automotive Apprenticeship Advisory Board (#JA3B) kongresuan egon nintzen hitzaldi bat ematen. Kongresu hau Europako herrialde ezberdinetako gazteei zuzendutakoa zen, automozio mundura erakartzeko asmoz. Gestamp-ek antolatutako kongresua zen, Mñren kolaborazioarekin. Bertan, goi mailako heziketa zikloan izandako esperientziaren testigantza eman nuen.

Esperientzia positiboa izan zen; hala ere, erronka handia izan zen ere, testigantza ingelesez eman nuelako.

#### Zer aipatu dezakezu enpresan izaten ari zaren esperientziari buruz?

Enpresan, talde lanak nolako garrantzia duen barneratzen dut egunerokotasunean, elkarrekin ezaqutzak konpartitzea zein garrantzitsua den eta autonomiaz jokatzeko norbanako garapen profesionalerako zelako onuragarria den. Izaten ari naizen esperientzia imajinatzen nuena baino hobea da, eguneroko zerbait berria ikasten dut eta pixkanaka profesional moduan lorpen politak izaten ari naizela esango nuke. Dualak lan mundurako atak zabaldu dizkit hasieratik.

#### Komentatu dezakezu zein asmo duzun hurrengo kurtsorako?

Ikasketak amaitutakoan lan-munduan murgiltzea da nire helburu nagusia. Dagoeneko ikasketak nahikoa egin dudala iruditzen zait, eta, aurrerago ikasketak gehiago egitekotan, lanpostuak horrela eskatzen didalako izango da –ikastaroak...–.

# Ikasle gehienek irailera itxaron beharko dute ikastetxera itzultzeko

Eguaztenean egindako agerraldian Pedro Sanchez Espainiako presidentek iragarri zuen eskola jardura irailean itzuliko dela, salbuespen batzuekin. Horrenbestez, ikasleek etxetik jarraitu beharko dute lanean, eta nola diharduten jaso du GOIENAK

**Maialen Santos** DEBAGOIENA

Koronabirusaren krisiaren eraginez martxoaren 12an iragarri zuen Eusko Jaurlaritzak ikastetxe guztiak itxi egingo zituela, eta, horrenbestez, haurtzaindegietatik hasi eta unibertsitatearteko eskola presentzial guztiak bertan behera geratuko zirela. Hasiera batean, hamabost egunerako hartu zuten neurria, baina denboran luzatuz joan da eta ikasleak oraindik ez dira ikastetxeetara itzuli. Etxetik irten gabe, online bidez eskolak jasotzen jarraitu dute ikasle gehienek orain artean, eta Pedro Sanchez Espainiako presidentek eguaztenean egindako agerraldian adierazi zuen salbuespenak salbuespen- "eskola-jardura irailean" itzuliko dela. Gauzak horrela, kasu zehatz hauetarako zabalduko dituzte ikastetxeak ikasturte amaiera baino lehen: errefortzuak behar dituzten ikasleentzako, gurasoen zaintzapean geratu ezin diren 6 urtez azpiko umeendako, eta selektibitatea egingo duten ikasleentzako. Horretaz gain, agerraldian azaldu zuen ikastetxeen irekiera "baimendu egingo dela" ziklo itxierak dituzten ikasleek "boluntarioki" itzultzeko aukera izan dezaten, betiere baldintza zehatz batzuetan. Horren adibide dira DBHko 4. mailan dauden ikasleak, batxilergoko bigarren mailakoak eta erdi edo goi mailako Lanbide Heziketako bigarren urtea ikasten ari direnak. Hezkuntza bereziko zentroetako ikasleek ere izango dute itzultzeko aukera.

**Ikasturte amaierarako plana**

Une honetan ez dago argi Eusko Jaurlaritzak ikasturte amaierarako prestatutako hezkuntza-planarekin aurrera jarraitu ahal izango duen, ala Espainiako

Gobernuak egindako agerraldian esandakoek plana baldintzatuko duten.

Joan den astean eman zuen planaren berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek, eta gaineratu, dagoeneko ikastetxe guztiak jaso dutela horren berri. Bertan, besteak beste, irakasle-taldeak koordinatzeko orientabideak, metodologiak, curriculum-egokitzapenak, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna edo ebaluazio irizpideak jasotzen dira. Sailburuak azaldu zuenez, "ikastetxe bakoitzaren zeregina" izango da ikasturte amaierako ebaluazioa egiteko kontuan hartuko diren irizpideak zehaztea. Hori eginda, ikastetxe zuzendaritza taldeak eta ikuskatzaileak maiatzeko lehen hamabostaldian bilera egingo dute, ikastetxeak proposatutako ebaluazio-irizpidea aztertu eta baloratzeko. Hain justu, hirugarren ebaluazioari dagokionez ikastetxeek bi aukera izango dituzte: batetik, hirugarren ebaluazio espezifikoko bat gauzatzea aukera izango dute, hirugarren hiru hilabeteko helburuak lortu diren baloratzeko; bestetik, amaierako ebaluazio integratua aurrera eraman ahal izango dute, lehen bi ebaluazioetako emaitzak soilik kontuan hartuta. Bi aukera horien harira, Debagoieneko Euskal Eskola Publikoak Elkarteko (Goieskola) koordinatzaile Lukene Igartuak GOIENARI adierazi dio plana "zehatz-mehatz" irakurri eta "erabakiak hartzeko" prozesuan daudela. "Egoeraren eboluzioari eta ikasleentzako familien iradokizunei esker sistema berri honetan aldaketak egiten ari gara", azpimarratu du. Ikastolen Elkar-

teko Hezkuntza arduradun Zigor Ibarzabalek, bestalde, azaldu du "kasuan kasu" ebaluazio prozesu berri bat diseinatu beharko dela; zer eta noiz ebaluatu, irizpideak egokitu, feedbacka nola egin... aztertu eta definitze aldera, eta, gainera, hirugarren hiru hilabeteko ebaluazioak azken ebaluazioan izan beharreko eragina dela ikastolekin landu eta garatuko dutena, "ikastola bakoitzak egiten ari denari lotutako ebaluazio eredu definitu beharko du eta". Halere, irakasgai bakoitzaren beharretara egokitzuz joango direla diote biek.

**Aukera guztiak "zabalik"**

Pedro Sanchezek eguaztenean aitortu moduan, ikastetxeetara itzuli ahal izango diren kasuetan, ikastetxeak ez dira zabalduko maiatzaren 25a baino lehen.

**"ARGI DUGU IKASLE ZEIN IRAKASLEEN ONGIZATEA DELA LEHENTASUNA"**

ZIGOR IBARZABAL, IKASTOLEN ELKARTEA

**"ONLINE BIDEZ JARDUNDA LAN KARGA HANDIAGO DUGULA USTE DUT"**

MIREN SANTOS, DBH-4KO IKASLEA

**"ZIKLOAK BERAREKIN DAKARREN ALDE PRAKTIKOA EGIN GURAKO NUKE"**

JON DIAZ, LANBIDE HEZIKETA IKASLEA

Ibarzabalek eta Igartuak azaldu dute Sanchezen agerraldiaren ostean Hezkuntza Sailaren "berriren baten" zain daudela, Sanchezen erabakia irmoa ote den ziur jakin eta edozein eratan ere, "lanean jarraitzeko". Edozelan ere, Ibarzabalek azaldu du "argi" duela ikasleentzako irakasleentzako ongizatea dela lehentasuna: "Horiek bermatzeko neurri eta erabakiak hartu behar ditugu". Igartuak dio eskola presentzialera itzultzea "oso zaila" izango dela, baina aukera guztiak "zabalik" daudela.

Ikasleei eurei galdetuta, gehienek ikastetxera itzuli gurako luketela jaso du GOIENAK. Oñatiko Txantxiku Ikastolan DBHko 4. maila ikasten diharduen Miren Santosen ustez, "kome-nigarria" litzateke "denbora gutxirako bada ere" eskolara itzultzea; ziklo baten itxieraren aurrean dago eta bera. Arizmen-di Ikastolan batxilergoko bigarren maila egiten dihardu Xubane Garaik, eta dio selektibitatea "hobeto" prestatze aldera eskolara itzuli gurako lukeela. Lanbide Heziketako Tafyd zikloa ikasten ari den Jon Diaz ere iritzi berekoa da. Bere kasuan, dio alde teorikoa etxetik egiteko arazorik ez duela izaten, baina kirolarekin harremanetarako zikloa ikasten ari den heinean, atal hori egin ahal izatea "ezinbestekotzat" jotzen duela. Unibertsitateen kasuan, erabaki irmoa da ikasturtea etxetik

**"IKASLEENGANA ERA EGOKIAN IRISTEAK ARDURATZEN GAITU GEHIEN"**

LUKENE IGARTUA, GOIESKOLA

**"SELEKTIBITATEA ATZERATZEA HARTU BEHARREKO NEURRIA DELA SINESTEN DUT"**

XUBANE GARAI, BATXILERGOKO IKASLEA

**"UNIBERTSITATEAN NAHIKO OHITUTA NAGO AUTONOMOKI LAN EGITERA"**


ANDONI OLABARRIA, GRADUKO IKASLEA

amaitu beharko dutela, eta horrek abantailak eta desabantailak dakartza Euskal Herriko Unibertsitatean Ingeniaritza Informatikoa Gradua ikasten ari den Andoni Olabarria ber-gararrantzat: "Ikasgaiaren planteamenduaren arabera errazagoa edo zailagoa da online jardutea". Dioenez, "ohituta" dago autonomoki jardutera. Hala ere, azterketak mantendu egin dizkiote, eta, kasu batzuetan, "ez da erraza" horiek etxetik behar moduan egin ahal izatea.

DBHtik unibertsitaterainoko ikasleak laguntzea helburu, Ikasle Babes Sarea jarri berri du martxan Unibertsitateko Indar Batasuna taldeak. Saioa Galarraga taldeko kideak GOIENARI esan dionez, laguntza partikularra eskainiko diete "beharrak dutenei", eta apunte-bankua ere sortu dute: "Batxilergoko bigarren mailako ikasleei zuzendutako eduki asko daude bertan, selektibitateari begira-koak". Gaineratu du unibertsitateko ikasketetara begirako apunteak ere erabilgarri daudela MEGA plataforman.

**Gailu teknologikoak lagun**

Eskola presentzialak bertan behera geratu bezain pronto hasi ziren etxetik lanean maila orotako ikasleak. Goieskolako koordinatzaileak uste du ikasleentzako "gehiengoa ondo moldatzen dela", baina aintzat hartu beharrekoa zera dela: "Zailtasuna ez dator bakarrik online lana egiteko. Ikasleek autonomia gehiago behar dute lanean orain, eta ezin dugu ahaztu etxean konfinatuta daudela". Gainera, ikastetxe, ikasle eta familia bakoitzaren egoera "oso ezberdina" dela ekarri gura izan du gogora Igartuak. Ikastolen Elkarteko Hezkuntza arduraduna ere bat dator, uste du gehienak ondo moldatzen direla gailu teknologikoekin: "Ikasleentzako konpetentzia digitalaren lanketa egiteko urratsa eginda daukagu, eta gogoeta horren emaitza integratuta dago gure ikas-materialetan. Ikasleekin urtez urte lantzen aritu garen gaitasuna izan da honako hau; horrek asko lagundu du egoera berri honetan jarduteko". Ikasle askoren ustez, baina, online bidez jarduteak "ordenagailu aurrean ordu asko pasatzea" ekarri du, eta sarritan, lan karga "eskolakoa baino handiagoa" izan dela aitortu dute. Oro har,



Xubane Garai, batxilergoko bigarren mailako ikaslea, selektibitateara begira ariketak prestatzen. X.G.

hasiera batean, "nahiko ondo" eraman dute etxetik lan egitea, baina asteak pasa ahala "astunago" bilakatzen ari da lana.

#### Selektibitatea, uztailen

Krisiaren eraginez, selektibitatea hilabete atzeratu behar izan dute; hain justu, uztailearen 6an, 7an eta 8an egingo dute. Xubane Garai Arizmendiko ikaslea proba prestatzen hasita dago dagoeneko, eta dio ezohiko egoera honen aurrean "hartu beharrek neurria" dela proba atzeratzea: "Hilabete gehiago egon beharko dugu ikasten, eta gogorra egingo zaigula uste dut. Era berean, prestatzeko tarte handiagoa izatea eskertuko dugu, ezohiko baldintzetan ari garelako lanean".

Horren harira, Ikastolen Elkartetik eta baita Goieskolatik ere diote ikasle guztien esku ari

direla jartzen "beharrezko laguntza", baina selektibitatearen atarian daudenei "jarraipen berezia" ari direla egiten. "Azterketa horretan ere aldaketa batzuk egongo dira, malgutasun aldera egindakoak", azaldu du Lukene Igartuak. "Egoera arruntan azterketak nahiko urduritasun eragiten badu, aurten atzerapenak eta etxetik prestatu beharra izateak urduritasuna areagotzen du", dio. Zigor Ibarzabal ere iritzi berekoa da: "Egoera berezia bizitzen ari dira eta horrek arreta berezia jartzera behartzen gaitu". Eta dio ikaslaroetako edukiak lantzeaz gain ikasleen egoera emozionalaren "jarraipena egitea" beharrezkoa dutela irakasleek.

#### Ikasle Abertzaleak, neurri eske

Ikasle Abertzaleak erakundeak programa bat aurkeztu du ikasleek bizi duten egoera azaltzeko, uste baitute ikasleak "ziurgabetasun egoeran" daudela. Hala, zenbait eskakizun egin dituzte; online ikasketa plana "bertan behera uztea" eta jardun akademikoa ikasketa bakoitzean ezinbestekoa dena "mugatzea". Horrekin batera, eskatu dute online klaseak derrigorrezkoak ez izatea, baina edukiaren lanetarekin jarraitzeko "aukera izatea". Bestetik, selektibitatearen harira zera diote: "Ohiko eredu bertan behera geratzea eta azterketa horien ordeztasunak emango dizkien ebaluazio modua aplikatzea". Hori gutxi balitz, unibertsitateak, Lanbide Heziketak edota ikasketxeak itxita egon diren epeko matrikulengatik "ordaindutakoa itzultzea" eta hemendik aurrerakoa ez ordaintzea eta ikasle pisu eta erresidentzien alokairua bertan behera uztea eskatu dute.

Arrasateko Ikasle Abertzaleak erakundeak Institutuko eta Arizmendiko Gaztelupe guneko zuzendaritzei mezu bana bidali die, hiru neurri exijituz, "ikasleen interesen defentsan". Hasteko, beharrezkoa den edukia bakarrik ematea eskatu dute; DBHko eta batxilergoko lehen mailatan "garrantzitsuena dena" eta bigarren mailakoentzat "selektibitatearen sartuko dena". Ebaluazio irizpideak "egoerara egokitzea" eta zuzendaritza taldekoek "malgutasun handiagoz" jokatzeko ere gura dute. Hala, zentroetan negoziatio-mahaia sortzea "beharrezkotzat" jo dute.

## Unibertsitateko ikasleak ere etxetik

Koronabirusaren krisia izaten ari den eboluzioaren harira, Mondragon Unibertsitateak apirilaren hasieran eman zuen aditzera gradu eta masterreko ikasketak egiten diharduten ikasle guztiek "urruneko prestakuntzan" amaitu behar izango dutela aurtengo ikasturtea. Hala, gutxienez, datorren ikasturtera arte ikasleek ez dute ikasgeletara itzultzerik izango, eta etxetik jarraitu beharko dute lanean.

Mondragon Unibertsitateko errektoreorde akademiko Jon Altunak GOIENARI azaldu dio ikasleak martxotik ari direla online ikasketak aurrera eramaten, eta horretarako eragozpen handirik ez dutela izan: "Unibertsitatean online ikasketak garatuago daude, eta zentzu horretan prestatuta gaude; plataforma ezberdinekin lan egiten dugulako egunerokoan. Zentzu horretan, aurrerantzean ere hala jarraituko dugu". Gaineratu duenez, ikasgelatik etxerako aldaketa "oso azkar" gertatu zen arren, ikasle zein irakasleek "egoerara moldatzen" jakin dute.

Ikasketa-planari dagokionez, ebaluazio jarraituaren aldeko apustua "hasieratik" egin zuen Mondragonek, eta alde horretatik "eskertuta" azaldu da Altuna.



Hala, aitortu du ebaluazio irizpideak ez direla asko aldatuko, baina zertxobait moldatu behar izan dituztela: "Beharrezko arabera jardungo dugu, baina lanak eta proiektuak hartuko ditugu oinarri, ahal den heinean". Horrenbestez, ohi baino azterketa gutxiago egitea aurreikusten dute, "posible den kasuetan, behintzat". Hala ere, ikasgaiaren arabera egokitu egingo dira ebaluazio irizpideak, eta edukiak hasieran ezarritako pisu bera izaten jarraituko dute aurrerantzean ere.

#### Mugikortasuna, kaltetuta

Errektoreordeak azaldu duenez, "kalte handienak" jasan behar izan dituzten ikasleak mugikortasun programetan parte hartzen ari zirenak izan dira. Zehaztu du Europar zehar

egonaldia egiten ari ziren ikasleen artean batzuk Euskal Herrira itzuli behar izan dutela eta beste batzuek, aldiz, egonaldiarekin jarraitzeko aukera izan dutela. Etxera itzuli diren batzuek ikasketa plana moldatu behar izan dute, gainera: "Batzuek atzerrian egiten ari ziren ikasketekin jarraitu dute eta beste batzuek hemengo ikasketa planera egokitu behar izan dute". Egonaldia Europatik kanpo egiten ari zirenen egoera oso bestelakoa izan da: "Ikasle horiei etxera itzultzea gomendatu diegu, kasu guztietan".

Ikasturtearen itxierari buruz galdetuta, maiatzean zehar

#### MUGIKORTASUN PROGRAMAK KALTETU EGIN DIRA, ETA IKASLE ASKO ETXERA ITZULI

bukatuko dute ikasturtea ikasleek, eta, ildo horretatik, Jon Altunak azaldu du Aste Santutik bueltan ikasle zein irakasleek igarri dutela lan-karga areagotu egin zaiela. "Ondo moldatu arren, ez daude ohituta modu iraunkorrean etxetik lan egiten, eta dagoeneko nekeza egiten ari zaie", dio. Hala eta guztiz ere, azpimarratu nahi izan du unibertsitateko langile batzuk asteen hasi direla presentzialki lanera itzultzen, "protokoloari jarraituta eta segurtasun baldintza guztiak betetzen direla ziurtatuta". Eta datozen asteetan ere egongo da presentzialki lanera itzuliko denik.

Datorren ikasturtera begira jarrita eskolak noiz hasiko diren ezin dela jakin dio Altunak; izan ere, "faktore ezberdinak" hartu behar dira kontuan: "Esaterako, datorren ikasturtea Mondragon Unibertsitatean egingo duten ikasleetako askok selektibitatea gaintu beharko dute lehenengo; eta badakigu hilabete atzeratu dutela proba". Horrenbestez, sarrera proba egitearen jarraian datozen prozesu guztiak ere atzeratu egin beharko direla argitu du. Dagoeneko Mondragon Unibertsitatean ikasten ari direnen kasuan ere "ez dago jakiterik" ikasturtea noiz hasi ahal izango duten.

# Birusak eragindako amesgaiztoa gaindituta, aurrera egiteko gogotsu

COVID-19a gainditu duten hiru lagun elkarrizketatu ditu GOIENAK: Gipuzkoako lehen positiboa izan zen Eider Gabilondo aretxabaletarra, Iturbide egoitzako erizain Ione Santos bergararra eta arrisku taldearen barruan dagoen Jabier Altube oñatiarra

**J. Bereziartua / J. Olabarria** ARRASATE Gero eta gehiago dira COVID-19a gainditu duten herritarrak eta gero eta gutxiago kutsatzen ari direnak. Egoera oraindik ere oso zaila izan arren, argi izpiak ageri dira tunelaren amaieran bereziki koronabirusa gainditu duten debagoiendarren artean.

Hego Euskal Herriko datuei erreparatuta, azken datua da azken 24 orduetan 591 positibo izan direla Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan; hildakoak 35 bat izan dira martitzenetik eguaztenera bitartean eta erre-kuperatutakoak 604 izan dira.

Alde nabarmena dago, beraz, positiboan eta hildakoen artean erre-kuperatutakoekin alderatzen badira.

**Hiru positibo, hiru esperientzia**  
Hain zuzen ere, erre-kuperatu diren horiengan jarri du arreta GOIENAK oraingoan, eta hiru esperientziaren berri jaso du: Gipuzkoako lehen positiboa izan ostean bidean aita galdu duen Eider Gabilondo gazte aretxabaletarra; egoitzarik zigortuena izan den Iturbideko erizain Ione Santos; eta 69 urte dituen Jabier Altube oñatiarra.

## "Bizitzako pasarterik zailena gainditzeko ordua da"

**EIDER GABILONDO** GIPUZKOAKO LEHEN POSITIBOA

2020ko otsailaren 25ean hasi zen Eider Gabilondo (Aretxabaleta, 1997) gerora COVID-19 izenez ezaguna egin den gaitzaren lehen sintomak igartzen. Otsailaren 19an, Milanen jokatu behar zen futbol partidu berezi bat ikustera joan zen mutil-lagunarekin eta uste du handik etorri zela kutsatuta —edo, bestela, Txagorritxun kutsatu zela—, Gipuzkoako lehen kasu ofiziala izateraino. Amesgaiztoa bizi izan zuen bereziki hasieran, eta aita ere galdu du tartean. Denbora igaro izanak ematen duen ikuspegitik hainbat bizipen partekatu ditu GOIENAREKIN; oso argi dauka aurrera egitea besterik ez dela geratzen.

**Gehienontzat baino luzeagoa ari da izaten zure itxialdia. Nola zaude orain?**

Etxean egoteaz aspertuta, baina ondo. Orain daramadan itxialdia hasierakoa baino askoz eramangarriagoa da; kalera une batez bada ere irten ahal izatea onura handia izan da niretzat. Lau pareten artean preso egon edo jende ezaguna ikusi ahal izatearen artean alde itzela dago.

**Denborak ematen dizun ikuspegitik begiratuta, zer izan da gogorra?**

Hau guztia bakarrik pasatu behar izan dut, aitaren heriotza tartean. Ez dugu sekula ahaztuko nolako egoera bizi izan genuen familian; ez dut zalantzarik, bizitzako pasarterik okerrera izan da hau niretzat. Aita bakarrik utzi behar izan genuen Txagorritxun; nahiko genukeen moduan artatzeko, zaintzeko eta agurtzeko aukerarik ez izatea betirako markatuta geratuko zaigun zerbait izango da.

**Dolua igaro duzula esango zenuke?**

Ez. Doluaren prozesua hasi dugu, hein baten, aita ez dagoelako gure artean, baina ez dugu aukerarik izan familia osoa batu eta behar den moduko agurra emateko. Helduko da horretarako ordua.



E.G.

**Ze mezu helaraziko zenioke COVID-19agatik senide bat galdu duenari?**

Nik bizi izan nuen esperientziatik gogorra izan da maite duzun pertsona behar moduan ez agurtzea, eta horrek amorratu egiten du. Baina egoera zailenetan irten ohi da norberak duen onena eta pertsona horri esango nioke eusteko, aurrera egiteko indarrak irtengo zaizkiola batetik edo bestetik. Betirako hor geratuko zaigun zerbait izango da, baina aurrera egitea besterik ez dago. Agur esan diguten pertsona horiengatik egin dezagun, joan direnek nahiko luketelako hemen geratzen garenok aurrera egitea.

**Nola erreakzionatu zenuen positibo eman zenuela esan zizutenean?**

Kolpe itzela izan zen, ez nintzen gai positibo eman nuela ere esateko. Etxekoei kontatu nien, baina orduan ez genekien ondorioak neurtzen. Aita COVID-19arekin positibo eman aurretik ere gaixorik zegoen, eta Txagorritxutik atera zuten, han COVID-19aren lehen kasuak agertzen hasiak zirelako. Ni konfinatuta nengoela, egun baten sukar handiarekin esnatu zen

aita eta bueltan eraman zuten Txagorritxura. Han testa egin, eta positibo eman zuen; beraz, kontaktuan egon ziren senideak ere konfinatu behar... Gure kasuan, medikuak aukera eman zigun aitarekin egoteko azken egunetan. Txagorritxun protokoloa egunero aldatzen zuten hasieran, kaosa zen.

**Gipuzkoako lehen kutsatua izanda, albistearen zurrumbiloen izan zinen informazio falta eta ezjakintasuna nagusi zirenean. Nola eraman duzu?**  
Itogarria izan zen. Komunikabide batzuek bai izan zutela enpatia nirekin eta nire egoerarekin, baina beste batzuk ez ziren halakoak izan. Ulertzen dut norberaren lana dela eta orduan erabateko nobedadea zela nire kasua, baina moduak eta moduak daude. Emozioak eta sentimenduak

**"POSITIBO EMATEA KOLPE LATZA IZAN ZEN, ETA OSTEKO ZURRUMURRUEK KALTE HANDIA EGIN ZIDATEN"**

ditugun pertsonak gara, are gehiago halako egoera bat bizi dugunean, eta bai sumatu nuela batzuek ez zutela zuzen jokatu. Haserre bukatu nuen batzuekin.

**Zurrumurruek jomuga ere izan zinen...**

Bai. Gipuzkoako lehen positiboa nintzen, ezaguna Aretxabaleta moduko herri txiki baten... Nahikoa nuen nire orduko egoera nolakoa zen ikusita, eta horri zurrumurruek gehitu behar... Kalte handia egin zidaten.

**Nola aldatuko du gizartea COVID-19ak?**

Gauza txikiak askoz gehiago baloratuko ditugu, birus honek agerian utzi du zer den benetan garrantzitsua. Bestalde, gure arteko harremanek dagokienez, distantzia mantendu behar izateak harremanak hoztu egingo dituela iruditzen zait. Eta beste arlo guztietan etorriko diren ondorioak zeintzuk izan daitezkeen ikusita, ez dut batere panorama onik aurreikusten.

**Madrilek iragarri du itxialdia faseka arinduko duen egutegia. Zertarako duzu zuk behar handiena?**

Familia guztiarekin egotea da lehentasuna, zalantzarik gabe. Senitarteko batzuk bizilagun ditut, eta eskerrak horri...

Bestalde, nire lagunekin egon nahi dut.

Egon. Orain bertan Arrasaten nago eta nire jendea dena, Aretxabaletako jende hori, ez dago hemen. Eurekin egotea, zorakeria batzuk egitea... Lehen egunerokotasun baten egiten genituenak egitea, azken finean. Bi hilabete daramatzat lagun bat besarkatu gabe, eta behar handia daukat.


**Itzuliko gara normaltasunera?**

Etorkizuna inkognita handia da arlo guztietan, baina, birus honek eragingo duen inflexio puntua ikusita, zaila izango dela iruditzen zait. Hori bai, baikorra izaten jarraituko dugu, hori beti.

**Ezer gaineratu nahiko zenuke?**

Eskerrak eman nahi dizkizuet bi hilabete luze eta gogor hauetan ezinbesteko lanak egiten aritu zareten guztioi. Kazetaritzaren kasuan, informazio kontrastatua izatearen garrantzia agerian geratu da inoiz baino gehiago, nik neuk halaxe bizi izan dut.





## "Izan konfiantza profesional guztiengan"

JABIER ALTUBE KORONABIRUSA GAINDITU DUEN HERRITARRA

Martxoaren 30ean koronabirusaren proban positibo eman zuenetik, Arrasaten ospitalerata, etxeko ospitalizazioan eta koarentenan egon da Jabi Altube 69 urteko oñatiarra, atzora arte. Prozesu guztian zehar jasotako tratu "itzela" azpimarratu du.

### Kalenturarekin hainbat egun eman ostean jakin zenuen koronabirusak kutsatu zintuela...

Bai, hala da. Sintrom medikamentua hartzera joan nintzen Oñatiko ambulatoriora, eta uste dut bertan kutsatu nintzela. Horren ostean, 8-10 egun egon nintzen etxean, kalenturarekin. Familiako medikuari deitu, eta Arrasatera bidali ninduten martxoaren 27an. Erradiografia bat egitearekin batera, koronabirusaren proba egin zidaten; pneumonia puntu bat izateaz gain, positibo eman nuen.

### Nola joan ziren ospitalean eman zenituen egunak?

Martxoaren 30etik apirilaren 7ra arte, Debagoieneko Ospitalean ingresatuta egon nintzen. Sintomak gripe normal batenak ziren, ez nuen arnasa hartzeko arazorik ere. Oso ondo artatu ninduten, eta nire esker ona helarazi nahiko nieke bertan lan egiten duten profesional guztiei. Gaixotasuna azkar harrapatu eta sendatzen ederto asmatu zuten; gertuko tratu ezin hobea jaso nuen. Bertan egon nintzen lehen lau egunetan lortu zuten sukarra desagerraraztea, eta ordutik aurrera ez nuen sintoma berezirik izan. Lehen bi egunetan beragar bat izan nuen ondoan, eta gerora, oñatiar bat; egoera berean geunden eta oso lagungarria izan zen.

### Etxera bidali zintuzten ostean, etxeko ospitalizazioan...

Ospitalean alta eman zidatenean, etxeko ospitalizazioa egin nuen. Bi egunetan behin etortzen ziren medikua eta erizaina etxera eta egunero telefono bidez egiten zidaten jarraipena. Oñatiko nire medikuak ere une oro deitu dit. Apirilaren 15ean eman nuen negatibo koronabirusaren proban, baina, hala ere, bi astez egon behar dut koarentenan, atzora arte. Aste hauetan zehar hainbat proba egin dizkidate; 2017an, giltzurruneko arazoekin ibili nintzen eta ordutik tratamendu berezi bat jarraitzen dut. Koronabirusak tratamenduari eragin ahal ziola-eta egin dizkidate proba horiek, dena kontrolpean izateko.

### Beldurrik izan duzu prozesuan zehar?

Komunikabideetan hildako kopurua ikusita beldurra beti dago hor, baina ez nuen nire gorputza hain gaizki ikusten horretarako. Hala ere, ez nekien zenbaterainokoa zen, nahiko ezezaguna da gaitza denontzat eta ardura puntu bat banuen. Eman dezakedan gomendio onena profesionalengan konfiantza izatea da; medikuak esandakoa zorrozki jarraitu eta jarrera positiboarekin aurrera egingo dugu guztiok.



GOIENA



IONE SANTOS

## "Egoitzako egoerak eduki nau bereziki kezkatuta"

IONE SANTOS ITURBIDE EGOITZAKO ERIZAINA

Arrasateko Iturbide adinekoen egoitzako erizainen koordinatzailea da Ione Santos erizain beragarra. Koronabirusak kutsatuta 24 egun eman ditu etxean, isolatuta, joan den ostegunean alta eman eta ostiralean bertan lanera itzuli zen arte.

**Lanean kutsatu zinen?** Bai, hori uste dut. Egoitzan lehen kasuak martxo erdialdera izan genituen eta hasieran ez genekien kasu horiek positibo zirenik ere. Orduan babes material ugari falta zen, bai gurean, baita leku guztietan. Ziur ez dakidan arren, lanean kutsatu nintzela uste dut.

**Sintomak igarri zenituen ala proba eginda jakin zenuen?** Erresidentzian lehen hiru kasuak atzeman zirenean probak egin zizkiguten erizainoi, langile zuzen bezala eta arrisku gehien genuenetakoak ginelako. Positibo eman ostean etxera bidali ninduten eta hiru egunera igarri nituen izan ditudan sintoma bakarrak; usaimena eta dastamena galdu nituen. Bestelakoan, ez dut sukarririk izan, ez bestelako sintomaririk ere.

**Ordutik etxean egon zara, joan den atera arte...** Etxean egon naiz une oro, 24 egun eman ditut irten gabe. Zorionez, nahiko sintoma arinak izan ditut eta ez dut ospitalean egoteko beharrik izan. Etxean baina gelan egon naiz bakarturik; logelatan bertan komun bat dugu, eta hori izan da nik erabili dudana. Bestelako

neurriei dagokienez, arropak garbitzerakoan bi poltsatan sartu eta 60 gradura garbitu behar zituzten etxekoek nire arropak, horiek bakarrik. Mahai tresnak ere neureak erabiltzen nituen eta ostean garbiketa berezia egiten zuten.

### Nola bizi izan dute egoera etxekoek?

Denak egon gara konfinatuta, ezin irtenda 24 egunez. Bizilagunen laguntzari esker jatekoak ekarri dizkigute edo zaborra atera ahal izan dugu. Etxean egotea gogorra izan da seme-alabentzat, baina, zorionez, ez dira kutsatu eta ez dute inolako sintomaririk izan.

### Medikuen jarraipena ere etxetik egin duzue?

Telefono bidez. Erizainak edo medikuak deitzen zidan Osakidetzatik, eta gerora ere prebentzio zerbitzutik deitzen zidaten, jarraipena egiteko.

### Zer izan da egoera honetan gogorrena?

Niretzat, etxekoekin ezin egotea izan da gogorrena, gelan bakartuta egon behar hori. Positibo eman aurretik jada hartu genituen etxean hainbat neurri, eta erdi bakartuta nongoen, neure erabakiz, noski. Arriskua egon bazegoen, eta etxekoak babestu nahi nituen.

### Erizainen koordinatzailea zara; etxean egonda ere, gertutik jarraitu duzu egoitzako egoera...

Egunero egon naiz harremanetan nire lankideekin, eta bertako egoera jarraitu dut etxetik. Amorrux pixka bat ere

sentitu dut, egoitzan hainbeste arazo egonda ezin nintzelako bertan egon, ezin nuelako lagundu. Fisikoki ondo nongoen etxean, ez zuen sintoma askorik, baina nire lankideen eta egoiliarren egoerak bereziki kezkatuta eduki nau. Iturbide egoitzan erizainen lana indartu behar izan dute, Osakidetza erizainak ari dira lan horretan. Hiru mediku ere egon dira une oro hemen, horietako bat Debagoieneko COVID-19a koordinatzen duena. Alde horretatik, oso zaila egin zait; bestela, ondo, luze joan dira egunak baina irakurtzen pasa dut denbora.

### Nolakoa izan zen negatibo eman zenuen une hori?

Hiru egun jarraian egin zidaten testa eta joan den ostegunean esan zidaten negatiboa eman nuela. Egun hartan bertan alta eman eta hurrengo egunean itzuli nintzen lanera. Oso pozik hartu nuen, baina, batez ere, lanean berriz ere asteko gogoz nongoen; erizaintza oso bokazionala da eta ni desiratzen nongoen Iturbidera bueltatu eta koronabirusaren aurka lanean jarraitzeko.

### Egoitzara itzuli zinenean, nolako egoera aurkitu duzu bertan?

Esan beharra dut une oro harremanetan egon izanagatik oso gertutik ezagutzen nuela egoitzaren egoera, baina, hala ere, harritu egin ninduen apur bat; ospitale txiki bat ematen du Iturbidek. Gurean lehen kasuak atzeman zirenean egoitzatik atera zituzten eta Eibarko ospitalera edo Donostiako Gurutze Gorrira eraman zituzten. Egoiliarren gehiengo handi batek positibo eman zuela ikusita, erabaki zen hemendik ez atera eta Iturbiden zentralizatzea artatze-lan guztiak. Hein batean, horregatik ekarri digute errefortzua ere, guk normalean Iturbiden bertan egiten ez ditugun lanak hemen dabilta egiten. Zorionez, poliki-poliki bagoaz argia ikusten.

### "GELAN BAKARTUTA EGOTEA GOGORRA IZAN DA; ETXEKOekin EZIN EGOTE HORI"



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

## Botila erdi betea

Betidanik baikorra izan naiz, eta orain inoiz baino gehiago optimistak izan behar dugulakoan nago. Demaseko astindua jaso dugu: milaka edo milioika proiektu geratu dira edo geratuko dira bidean; galdutako senitarteko edo lagunak; pikutara joan diren negozioak edo talde egitasmoak...

Ezin ditugu ahaztu, eta ez ditugu ahaztu behar.

Baina aro berri baten aurrean gaude; erronka ugari ditugu parez pare, pertsonalak eta baita taldekoak ere; eta hauei aurre egiteko jarrera positiboa izatea proposatzen dizuet.

Uste dut gehienok ikasgaiten bat gutxienez atera dugula: zein ondo bizi garen Euskal Herrian, zein gutxi baloratzen dugun normaltasuna, zein beharrezkoak diren lagunak...

Eta hemendik aurrera zer? Arriskua hor dago. Neurriak hartu behar ditugu normaltasun berrira egokitzeko. Eta ez dakigu noiz arte... Baina egoera berri honetaz disfrutatzeko gai izango gara, seguru.

Kirol arloan erabateko aldaketa izan dugu. Hain soziala den ekintza zazpi aste hauetan banakako jardura bihurtu da; baina, hala ere, nahiz eta mugatuta egon, lagungarria izan delakoan nago. Maiatzetik aurrera berriz ere jardura fisikoaz eta kirolaz kalean

disfrutatu ahal izango dugu, momentuz banaka edo familian; aurrerapauso garrantzitsua.

Gure herrietako kiroldegien irekiera ere aste gutxi batzuetan etor omen daiteke, baina jakin behar dugu mugak izango dituela. Instalazioetako edukierak herenera edo erdira murrizten badira, irizpideak jarri beharko dira sarrera mugatzeko: abizenak, bizi garen kalea, aurrez izena ematea. Beharbada, erreserbatu egin beharko dugu egun, ordutegi, espazio edo makina zehatza. Ez da joan zen urtean genuena, baina azken asteetan izan duguna baino askoz gehiago da. Udalen eskaintza errealitate berrira egokitu beharko da.

Eskola-kirola amaitu da, eta kirol federatua ere denboraldia bukatu dela esan daiteke. Ikusiko dugu noiz eta nola hasiko den hurrengo denboraldia.

Hemendik gonbidatzen zaituztet malguak izatera, arduratsuak, kontzienteak, solidarioak, baikorrak. Eta horrela, denon artean beteko dugu botila.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Mundu berria

**FRANCISCO JAVIER ARRIETA IDIAKEZ**

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Apirilaren 26an Gernika bonbardatu zuteneko 83. urteurrena beteko da.

Orduan ere baziren orain *fake news* deitzen direnak edo berri faltsuak. Gorriek bonbardatu omen zuten Gernika, bi bandoetako euskaldunentzat hain garrantzitsua zen hiribildua, arbola santuarena. Gaur egun, ordea, badakigu nork bonbardatu zuen. Horretan, esanguratsu Castor Uriarteren *Bombas y Mentiras sobre Gernika* liburua. Esanguratsu, berebat, bonbardaketaren lekuko izan ziren

arrantzaleak, Ogoñoren aurrean antxoatan zebiltzanak.

Gaur egun, pandemia batek jo gaitu ezustean. Berri faltsuak izan dira horren inguruan, baina badira, halaber, eman gabeko berriak, jakin beharko genituzkeenak eta, agian, inoiz jakingo ez ditugunak. Aitzitik, gaur ez dago antxoarik Ogoño aurrean. Bada, ur sakonagoetara jo behar da daude arrantzaleak, atako bandan.

Alabaina, gaur egungo arrantzaleak ere lehorreratuko dira, iraganekoak bezala. Eta Bigarren Mundu Gerra ostean gertatu antzera, pandemia

ondorengo mundu berrian komeniko da berriro lehorreratzea beherdugar eta keynestar filosofia gaurkotuak, eraberrituak, liberalismo komunitaristaren eskutik.

Izan ere, azken hamarkadetan ezagutu ditugun gizarte-ereduek dagoeneko ez dute balioko. Azken buruan, halabeharrez, berriro askatasunetik elkarri laguntzeko izan beharko dugu.

Aurkakoa, aldiz, anabasa ederto asko baliatzen dakiten tirano desberdinen mende geratzea litzateke, Jainkoaren beldurrik ez dutenen eta gizakiari begirunerik ez diotenen mende, alegia.

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.es](http://www.goiena.es)

### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza,  
Maite Igartua.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.es](mailto:harpidetza@goiena.es)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.es](mailto:publi@goiena.es)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.es](mailto:berriak@goiena.es)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

## BERBAGAI

# "Jendearen babesaren eta esker ona jasotzea da onena"

ASENTZIO ZUBILLAGA DYA-KO BOLUNTARIOA

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE

DYAn 35 urte dihardu boluntario Asentzio Zubillagak (Antzuola, 1963). Une zailak eta gozoak bizi izan ditu urte hauetan guztietan. Larrialdi egoera bakarra, koronabirusagatik egun bizi duguna. Autobus gidaria da ofizioz.

**DYAn zuk beste urte daroanik asko ez dira izango.**

Gipuzkoan badira bizpahiru-edo 40 urte daroatzatenak; Debagoienean neu naiz beteranoena. Antzuolan izan dugu urte askoan egoitza eta azkeneko urteotan Bergarako Martokoan. Hori da Debagoieneko egoitza. Hamar bat lagun gari gara bertan.

**Urte hauetan zelako lanak tokatu izan zaizkizu egitea?**

Berez, DYA sortu zen errepidean laguntza eskaintzeko, baina egunerokoa denetik egiten dugu. Mendian eta itsasoa erreskate lanak... Era berean, larri daudenak etxetik ospitalera eroaten ditugu...



Asentzio Zubillaga, DYako ibilgailuaren aurrean, Arrasaten. ENEKO AZKARATE LASPIUR

**Zein da gogoratzen duzun esperientziarik gogorrena?**

Ez ditut ahazten Biescasko kanpineko uholdeak. Ezbehar hartan, euskaldun asko izan zen tartean, ezagun eta gertuko antzuolarrak ere bai.

Bestetik, San Juan jai batzuetan Osintxuko saihesbidean istripu larria gertatu zen eta hil ziren ama eta semea, eta senarra, ezagun nuena, larri zauritu zen. Haiek artatzera joatea egokitu

zitzaigun. Bestetik, sasoi batean, ETak bere aldarrikapenak edo iragarpenak DYara egindako deien bidez ere egiten zituen, eta halako deiak jasotzea egokitzen zitzaigun.

**Edozeinek ez du balio halako lanetarako.**

Ez, ez. Egia da. Gogorra da, baina ohitu egiten zara. Dena den, lehen, batik bat, errepideko istripuetarako izaten ziren gure irteera gehienak. Gaur egun, gizarte lanak, larrialdi sozialak, ere izaten dira. Etxean bakarrik bizi eta etxean erori den zaharra laguntzea eta halakoak. Horiek ere ez dira erosoak. Ez da odol kontua bakarrik.

**Larrialdi egoera honen oroitzapena betirako geratuko zaizu?**

Bai. Ez dut inoiz halakorik ezagutu.

**Bereziki gogorra da une hau?**

Ezberdina da. Une gogorrek edo okerrak bizi izan ditugu. Hau beste bat da. Egoera berrira egokitzea tokatzen da. Lan aldetik, izan ditut egunak lan askokoak; aste hau, lasaiagoa. Egunkari eta egunkari daude.

**Bus bidaiariei maskarak banatzen ikusi zaitugu...**

Bai. Hori ere egin dugu. Ondo. Busean jende gutxi dabil, hori

bai. Bestetik, etxean maskarak edo beste babesgailu batzuk egin dituztenak ere ezagutu ditugu, batetik bestera eroatea tokatu zaigulako. Jendea oso ondo ari da erantzuten, oso esker onez. Ez dugu erantzun txarrik jaso.

**Jendeak baloratzen du egiten duzuen lana?**

Bai. Eta horrek satisfazio handia ematen du. Hori da onena, jendearen esker ona jasotzea.

**Gauez, egunez, noiz aritzen zara?**

Berdin dio. Deitzen didatenean. Lanetik kanpo, gertu nago laguntzeko.

**Une honetan, bereziki, zer lan ari zarete egiten?**

Premia dutenak anbulatoriora eroaten, maskarak bus geltokietan banatzen, bestelako babesgailuak batetik bestera eroaten... Orain, auto istripurik ez dago apenas.

Lehendik ere sumatzen da jendea gauez edanda-eta gutxiago ibiltzen dela autoan eta asteburuetako istripuak gutxiago direla. Baina orain, larrialdi egoeran, gutxiago.

**DYako boluntarioak ondo babestuta ari zarete lanean?**

Bai. Alde horretatik ez dugu arazorik izan, maskarak eta beste babesgailu batzuk izan ditugu hasieratik. Ohituta gaude babestuta lan egiten.

## ITURRI ONETIK

### Argazkien eta bideoen blog berria

Argazkilaritzako blog berria abiaraziko dute Espainiako eta Euskal Herriko hainbat argazkilarik. Tartean daude lau debagoiendar: Aritz Gordo, Mikel Larrea, Iñigo Jimenez eta Asier Elgezua. Arlo bakoitzean espezialistak diren argazkilariak aukeratu dituzte: kirol argazkilaritza, paisaiak, erretratuak, natura... Bideogintzari ere helduko diote, eta horretan dabil buru-belarri Asier Elgezua. Marka ezberdinen materiala probatuko dute blogean, azalpenak emango dituzte, argazkiak erakutsi...

## ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2004-04-30

### Oñatiko Laixan elkarteak egoitza inauguratu zuen

Beste sasoi bat zen. Laixan euskara elkarteak -dagoeneko desagertuta- osasuntsu zen. Oñatin euskararen erabilera sustatzeko 1991n sortu zenetik laugarren egoitza izango zena inauguratu zuten. Ekitaldian hainbat bazkide eta zuzendaritzako kide batu ziren, beste herri batzuetako euskara elkarteetako ordezkariekin batera. Gauean, ospakizunekin jarraitzeko, Potemkin eta Sega Bat Hor taldeekin kontzertua egin zuten gaztelekuan.

## HAU BE BADOGU!

### Zumeta margolariari azken agurra

Joan den aste bukaeran zendu zen, 81 urterekin, Jose Luis Zumeta margolari usurbildarra:

@maia\_jon: "Gure izatearen koloreak zureak dira, Zumeta, zu gabe, ez ginateke".

@irribarez: "Izarrak koloreztatzen ariko zara orain. #Zumeta".

@pkaltzada: "Gaur mundua zuri-beltzagoa da. Jose Luis Zumeta. #AgurEtaKolare!".

@murguruzafm: "Agur eta ohore Jose Luis Zumeta, eta eskerrik asko bizitza kolore biziz margotzeagatik".

@XabierEuskitze: "Kolorez Dolorez Amorez Ohorez #zumeta Ez adiorik!".



**XABIER LETONA**  
'ARGIA'-KO KAZETARIA

## Etixeratzeko unea?

Bai, nik ere uste dut aldaketa asko izango direla koronabirusaren ondorengoan. Beste kontu bat da noiz, nola, zein neurritan... dena da ikusgai, pandemiaren etzilimorako. Eta ohi moduan, galderak zabaltzen du bidea: zergatik ez zieten munduko agintariek kasurik egin iragarpenei? Zergatik ez ziguten jakinarazi herritarrei? Zergatik jarraitzen dute kasurik egin gabe aldaketa klimatikoari dagokionez?

Nabardura ugariko hamaika erantzun egon daitezke, baina denak oinarri berekoak: munduko, Euskal Herriko, Gipuzkoako, gure herrietako botere nagusiei ez zaielako interesatzen. Kasu egiteak bizi dugun eredu neoliberal suntsitzailean ezinbesteko aldaketa handiak egitea dakarrelako, eta hori... hori hobe hurrengo belaunaldiei uzten badiegu. Gogoan izango gaituzte, hori seguru!

Zaldibarko zabortegiko luiziaren magalean harrapatu gintuen birusak. Bi langile zaborpean dira

harrezkeroztik eta haien familia eta lagunak zain. Abisu serioa. Baina lasai, "edonori gerta dakioke halako hondamendi bat", horrek ez du zerikusirik ez eredu ekonomikoarekin, ez zabortegien kudeaketarekin, ez mesedekeriarekin, ezta gure bizimoduarekin ere. "Edo zer, zuk ez al duzu kotxerik erabiltzen? Edo zuk ez duzu hegazkinean bidaiatu gura?".

Ez, nik ez dakit nola aldatuko diren mundua eta gure gizarteak. Hori bai, badakit 5, 10, 25, 50 urtean... gauzak asko-asko aldatuko direla! Ez da iragarlea izan behar horretaz ohartzeko. Jakina, egin daiteke itsuarena, orain arte moduan, ezkuta

**GURA ALA EZ, DESAZKUNDEA GAINAN DA ETA, AKASO, MUNDUTIK APURKA BAILARARA BUELTATZEKO UNEA ERE IRITSI DA**

daiteke gertatzen dena... eta noski, libre gara pentsatzeko Zubietako erraustegia egiteak edo kolapsora are eta ziztu biziagoan eramango gaituen tren lasterrak ez dutela zerikusirik egoera honekin. Hirietako pentsamoldearekin ortua lantzea ere debekatzen den sasoi honetan, hausnarketa bultzatzeko ia perfektua da Xabier Arzalluz zenak Lemoizko zentral nuklearraren garaietan luzatutakoa: azak edo modernitatea?

Zibilizazioen kolapsoei buruzko ikerketetan bada oinarritzko puntu bat: ekologikoki jasagarria dena baino askoz gehiago kontsumitzen jarraitzeak dakar hondamendia. Baina bada beste bat ere: eliteen isolamendua, zeinak kontsumo neurrigabeko hori ahalbidetzen duen. Trump zoroa bai, hura egon daiteke isolatua; eta munduko 60 aberatsenak ere bai... Eta gure agintari jeltzaleak? Eta Confebask-eko buruak? Mondragonekoak? Ipar hemisferioko aberatsak ote gara isolatuok?

1988an jan nuen lehen kiwia Bilbon, Bartolo lagun eta lankide zenak emandakoa. Zeelanda Berritik zetorren fruta berria. Egungo globalizazioaren hastapenak ziren, bailara honek ondo ezagutzen duen fenomeno, besteak beste, bere kooperatibek hainbat lantoki ireki dituztelako munduan barrena, deslokalizazio uholde bizian enpresa jarduera multilokalizatuz –"etxeko lanpostuak galdu gabeko internazionalizazioa"; itzulpena nirea da-. Orain, aldiz, kontrako joera gertatuko ei da apurka munduan, egungo globalizazioari akabera emanaz. Gura ala ez, desazkundera gainean da eta, akaso, mundutik apurka bailarara bueltatzeko unea ere iritsi da: erraustegi hilgarri eta AHT zororik gabeko gizarte eredu birpentsatzeko; ekonomia eredu atzekoz aurrera aldatu, publikoa, komunitarioa eta lokala indartuz. Datorkigunaren aurrean asmatzea da klabea, ez honaino ekarri gaituen hazkunde ekonomiko hilgarrian tematzea. Jakinaren gainean gaude, ez dago ezustekorik.



**ITXARO ARTOLA**  
AED ELKARTEA

## Mundua amesten, etxeko sofatik

Pandemiaren biharamunaz idazteko proposamena jaso eta, konturatzerako, Perlataren *Nondik hasi* abesten ari nintzen. Bitxia da gero nola datozkigun burura inkontzienteki garuneko disko gogorrean artxibatuta ditugun doinu, testu edo irudiak. Kulturak bizi gaitu, bai. Egun batean gure egin genituen doinu, testu edo irudiez osatuta gaude, indibidualki zein kolektiboki. Konfinamenduan nabarmena izan da. Eta, halere, ze gutxi zaintzen ditugun emari horien iturriak.

Kulturaz idaztera noa, bai, arrisku guztiak hartuta. Kontziente bainaiz fribolitate hutsa iruditu dakizuekeela txolopote lazgarri honetatik noiz eta zelan aterako garen ideia zipitzik ez dugunean. Nire ustez, aldiz, une egokia da kulturagintzaren debatea ere mahai gainean jartzeko, hain zuzen ere, gordinetan gordinena izan daitekeen etorkizuna ate joka dugulako.

Pandemia honek ehunka irakaspen utziko dizkigu, baina irudipena daukat badela bat honezkero askori barruraino sartu zaiguna: interdependentzia. Jada XVII. gizaldian utzi zuen idatzita John Donnek, "inor ez da irla, inor ez da bere baitan oso", baina orain ulertu dugu ze handia den komunitate bateko kide izatea. Baikorra izan nahi dut eta pentsatu, lezio hori lagungarri izango zaigula honezkero izen-abizenak dituen aro berrian, *post-Covid aroan*, herri gisa aurrera egiteko. Izan ere, jai daukagu gure txikitasunetik ikuspegi komunitario eta kohesionatu batekin erantzun ezean.

Artikulatze sozial horretan, kulturagintzak giltzarri izan behar du, talde sentiarazten eta mugiarazten gaituen sistema kreatibo, produktibo eta erreproduktiboa delako kultura, hizkuntza barne. Eta zapalkuntzan bizirauten duen herri batentzat, erresistentzia, ahalduntzea eta

burujabetzarako laborategi. Amestea dagokigu orain, berramestea aukeran, eta kulturagileak behar ditugu amets horiei forma eman eta imajinario berri bat sortzeko.

Arazoa da kulturagintza desprestigiaturako sektorea dela gure artean. Ziurgabetasun laborala, desenplegua, pobrezia mailaren azpiko soldatak, ordaindu gabeko lan militantea... horixe da argazkia aspaldidanik. Koronabirusa iritsi zenerako, Zainketa Intentsiboan Unitatean zegoen eta kolpe hau askoren akabera izango da, 2008ko krisi-finantzarioaren ondoren bezala, kulturari eta euskarari lotutako gastuak badira Administrazioaren erakunde publikoek sakrifikatzen dituzten lehenak. Erreskate gisako dirulaguntza batzuk agindu dizkiete oraingoan, baina adabakiak bainoago zentralitate emango dien herri-proiektu serio bat behar dute. Dekorazio eta propagandarako erabiliko dituzten erakundeak baino

gehiago, euren funtzio komunitarioa aitortuko eta duinki bizitzeko lain babestuko dituztenak, beste sektore produktibo bat bezala. Baina, bultzada sozialik jaso ezean, Administrazioak nekez lagunduko ditu, kulturagintza boterearen etsai naturala baita definizioz eta bokazioz.

Horra, bada, nire proposamena etxealdi honetarako: balora dezagun zenbat lagundu diguten etxealdi honetan eta jar gaitezen gure kultur ohiturak birpentsatzen. Zer eta non kontsumitzen dugun, nori egiten diogun mesede, amesten dugun munduaz koherente garen. Jaten edo erosten dugun bezala, hain justu. Gaurdanik hasi gaituzke, etxeko sofatik mugitu gabe.

**BALORA DEZAGUN ZENBAT LAGUN DIGUTEN ETXEALDI HONETAN ETA JAR GAITEZEN GURE KULTUR OHITURAK BIRPENTSATZEN**



## IBANE ABASOLO OLAORTUA

IKERLARIA VALL 'HEBRON OSPITALEAN, BARTZELONAN

# Aldapan gora

Konfinamenduan gaudenetik, ez dut askorik pentsatzen etorkizunean. Arduratuta nago, bai, eta badaukat urduritasun puntu hori. Hasieran, lo egitea kostatzen zitzaidan. Baina orain, ohitu naizela dirudi, eguneroko erronkez nekatuta. Bi haur dauzkagu etxean, eta haien eskolako lanekin eta norberaren telelanarekin... ez dut asti handirik ez lo egiteko ez eta etorkizunean pentsatzeko. Eta konfinatuta gaude, baina hiperkonektatuta baita. Ordenagailu aurrean jartzen naizenean ez dakit hurrengo bideokonferentzia zeinena izango den, ingeleseko maisuarena, familiarena edo lantokikoa. Beldur naiz ea egunen baten ez ote dizkiedan alaben matematiketako ariketak azalduko lankideei edo laneko azken txostena nire gurasoei. Gauzak horrela, pentsamenduetan urrunena *eguneroko* erosketak Internetez egitearena da niretzat. Komuneko papera edo esnea atean jaso ahal

izateko, hamabost egun aurrez egin behar ditugu enkarguak. Eta hor nabil, entretenituta, erosketak antolatzeke Excel bat egiteko puntuak. Entreenituta eta, nolabait, alde batera begira.

Koronabirusa gure bizitzetan instalatu zenetik, ziurgabetasun atmosfera dentso batek inguratzen gaitu. Ez dakigu noiz besarkatuko ditugun lagun eta senideak, noiz arte egon beharko duten etxean edadetuak, zelan bueltatuko diren haurrak eskolara edo zer motatako lana izango dugun, lanik badaukagu, hau dena pasatzen denean. Ziurgabetasun handiegia, ilunegia. Eta horren aurrean txikitu egiten

**TXIKI SENTITZEN NAIZ,  
BAINA ESPERO DUT  
AGINTARIEN ARTEAN  
AURRERA BEGIRATZEKO  
AUSARDIA DUENIK EGOTEA**

naiz, egunero ziztrinkerietan pentsatzen dut. Labadorak, bazkariak, eskolako lanak... Egun bat hurrengoaren ostean. Bista altxatu gabe. Mendan aldapa gogorak datozen bezala, oinei begira.

Badaude momentu bereziak eta gauza onak ere. Bartzelonan, aire kutsadura azken urteetako baxuena da. Apenas autorik gabe kaleetan, txoriak entzuten dira goizero. Eta euri asko egiten dabilenez, aspaldiko urteetako udaberririk politena antzeman daiteke gure balkoitik Montjuic-erantz begiratzean. Arratsaldero, zortzietan, balkoira ateratzen gara denok, txalo egitera. Hiri handi bateko auzo txiki bat da gurea, baina orain arte apenas ezagutzen nituen inguruko bizilagunak. Txalo egiteak nolabait batu egin gaitu. Orain, badakit ze etxetan dauden haurrak, nor bizi den bakarrik, edo zeinek dauzkan txakurrak bere etxean. Eta badakit bizitzak salbatzearekin

konprometituta gaudela denok. Oso berezia da. Momentu batez begirada altxatzen dut eta beste mundu bat posible dela amesten dut.

Pandemia honen eragina ingurugiroan, pertsonen arteko erlazioetan eta ekonomian itzela izango da. Adituek diotenez, gainera, datorrigun krisia azken bi mendeetako handiena izango da. Eta mentatzearekin bakarrik txiki bihurtzen naiz berriro. Oinetara begira. Etxean gelditzeaz aparte, gutxi egin dezaket. Agintarien momentua da, ez nirea. Orain hartuko dituzten erabakiek hurrengoko hamarkadetan izango dugun gizartea definituko dute, dudarik gabe. Non ipiniko dute dirua? Ni txikia naiz, txiki sentitzen naiz, baina espero dut agintarien artean aurrera begiratzeko ausardia duenik egotea. Elkarren arteko liskarrak utzi eta gizarte bezala batzen gaituena zer den ikusi dezaket agintariak. Mendi gailurrera gidatu behar gaituzte, tipi-tapa, baina zein gailurretara joan nahi dugun ahaztu gabe.



## LARRAITZ MADINABEITIA GARAIKOETXEA

EMUN-EKO AHOLKULARIA

# Puntua

Konfinamenduaren lehen asteak espero ez genuen egoera bati erantzuten aritu gara gurean. Batetik, familiaren beharrak –alaba zaindu, berarekin etengabe jolastu, gosari-bazkari-afariak, fardela kentzeko aukera hau aprobetxatu, zikindutako arropak garbitu, umea lokartu...–; etxeko lanak –erosketak, etxea garbi mantentzen saiatu, apalak ordenatu, noizbait egiteko geneukan zereginen bat egin...–; eta ingurukoak zaindu –gurasoak, anai-arrebak, familia, lagunak...–.

Bestetik, telelanaren bidez aritu gara lanean. Lehen aurrez aurre ematen genituen trebakuntza-saioak sareko plataforma bidez ematea egokitu zaigu. Saioen azalpen-bideoak grabatu, Moodle-n ariketak sortu eta gau eta egun jardun dugu ikasleen galderak erantzuten.

Dena espazio bakarrean, lau paretaren artean; astea, aste bukaera eta Aste Santuko oporrak kolore berdinez margotutako

egutegia jarraituaz; asmatu ezinda zein zen gure momentuko rola: ama, irakaslea, laguna, ahizpa, alaba, irakaslea, lankidea, haurra... eta gure buruari tarte oso txikiak eskainita.

Esperientziak erakutsi digu jartzen ikasi beharra dauzkagula batetik besterako etenak; hau da, puntuak. Ekintzak eta zereginak aldatu, programatu, etxeko artean ondo koordinatu...

Halaber, eten geldialdi hau oso baliagarria izan zaigu aurrez bagenekizkien zenbait ideia berresteko.

Bat: gizaki sozialak gara. Behar-beharrezkoa daukagu inguruko gizakiekin komunikatzea, besarkatzea, aurrez aurre hitz egitea. Telelana egitea proposatuko balidate orain, esango nuke astean gehienez bi egunetan egingo nukeela etxetik lan.

Bi: gauza txikiak baloratzea. Zer behar dugu momentu honetan

daukaguna baino gehiago? Gehiegi geneukan eta urrunegi amesten genuen. Haurrek ere ez dute argi eta irudiz betetako jolas komertzialik behar. Ikusi dugu zein zoriontsu diren etxean birziklatutako materialekin egindako jolasekin, baita euren irudimenean dauzkaten milaka objektuekin ere. Patinetean aritzen gara etxeko korridorean, patineterik gabe.

Hiru: momentu honetan izugarri baloratzen dugu natura. Beharra daukagu bertan egoteko. Etxetik pauso batzuk egin, eta belardi eta basoetan arnasa hartzeko. Bertako fauna eta florak ere izugarri estimatu du eman diegun tregua hau.

Lau: Ondoko bizilagunak ezagutu ditugu. Harreman-sare ederra sortu da. Ondokoekiko gehiago pentsatzen hasi gara. Ahal diogunari eskua eskaini. Herriko komertzioetan kontsumitzeak duen garrantziak

jabetu gara eta herriko baserritarren lana balioetsi dugu.

Behartutako etena, proba-pilotua, esperientua, oso baliagarri izango zaigu ondorioak ateratzeko guztion artean sortuko dugun gizarterako.

Etorkizunean ez baita ezer berdina izango, eta nahiko genukeen gizartea berrasmatzeko aukera ezin hobea daukagu esku artean.

Bukatzeko, etenak egiteak duen garrantzia aipatu dizuet sarreran. Gonbidatzen zaituztet zuek ere geldialdi hau erabil dezazuen zein hizkuntza-portaera izan nahi duzuen etorkizunean hausnartzeko.

A! Eta ez ahaztu Euskaraldiko puntua zuen leihotetan jarri!

**BEHARTUTAKO ETENA OSO  
BALIAGARRI IZANGO ZAIGU  
ONDORIOAK ATERATZEKO  
GUZTION ARTEAN SORTUKO  
DUGUN GIZARTERAKO**



# #GuEtxean

## Arrasate Bidaiak-ek emandako saria jaso dute Mirari Letek eta familiak!

Goienaren #GuEtxean lehiaketan parte hartu zuten 50 familietako bat izan zen **Mirari Leterena**, eta zozketan saria haiei egokitu zitzaion. **Arrasate Bidaiak**-ek dagoeneko helarazi die Sendavivan asteburua igarotzeko lau lagunendako bonua.



Argazkian, Mirari Leteren alaba Leire Maiztegi, pozik, sariarekin.

BABESLEA: ARRASATE BIDAIK



Bea Aldai,  
Arrasate Bidaiak



ARRASATE BIDAIK



goiena<sup>™</sup>

Zu hemen zaude.



Estefania Fani Garai arrasatearraren erretratu. INTXORTA 1937 KULTUR TALDEA

# 106 urte beteta joan da 'Fani' Garai, Arrasateko historiaren lekuko aparta

Urtebetetze egunean zendu zen, apirilaren 25ean, 106 urte bete berritan. Emakume Abertzaleen Batzako kide izan zen eta emakumeen sufragioa bizi izan zuen 1931n. "Oso maitatua" izan den seinale, haren omenezko kandela-piztea egin zuten zapatuan

## Xabi Gorostidi ARRASATE

"Buru argiko emakumea zen, zintzoa eta, batez ere, langilea; familiaren alde edozer egiteko prest dagoen horietakoa". Hitz horiekin definitu du seme Jose Ignazio Zaitetik Estefania Fani Garai, ama. Arrasateko emakume adindunena zen Garai, azken unera arte burua osasuntsu mantentzea lortu duena. "Asko eta asko irakurri izan du, betidanik, eta, iaz arte, gurutzegramak egiten zituen maiz. Memoria pribilegiatua izan du beti, medikuek azaltzen jakin izan ez dutena". Haren memoria "pribilegiatuari" eta hark gordetako argazkiei esker, azken 100 urtetako Arrasateko historiaren pasarte asko bizirik heldu dira gaur egunera arte. "Gure herriko historiaren berri izateko, makina bat aldiz izan gara berarekin, eta baita haren ahizpa Carme-

nekin ere. Lekuko izateaz gain, argazkien zaintzaile ere izan zen. Arrasateko Emakume Abertzale Batzakoek Gernikan ateratakoa, batzokian egindako bilerenak, edota Arrasateko EAJkoak Bedoña auzoan Estepan Urkiaga *Lauaxeta*-rekin ateratakoa hari esker heldu zaizkigu", dio Intxorta 1937 elkarteko Juan Ramon Garaik.

Fani Garai 1936ko apirilaren 23an jaio zen, baina, handik bi egunera bataiatu zuten, betidanik ospatu izan urtebetetzea apirilaren 25ean. Zazpi anai-arrebako familia baten zaharrena zen bera. Aitak eraikuntzan egiten zuen lan, igeltsero, eta lan kontuengatik Donostiara lekualdatu ziren 7 urte zituenean. "Haren anai-arreba guztiek eskola publikoetan ikasi zuten, baina, amarentzat lekurik ez zegoenez, frantses eskolan ikasi zuen. Ez zen bertan denbora luze egon,

baina frantsesez ikasitakoak ez zituen inoiz ahaztu, eta duela gutxi arte *Aita gurea* frantsesez abesteko gai zen", gogoratu du Jose Ignazio semeak. Ostean, Gasteizen egin zituzten beste hiru urte eta 1930ean itzuli ziren Arrasatera, jaioterrira.

## Gerrak kolpatutako familia

Kolpe militarren hasieran, Pedro eta Felix anaiak gudariek irten ziren erresistentzian, *Lenago hil* eta *Kirikiño* batailloietan. Handik gutxira, urriaren 25ean, 30 lagun erail zituzten faxistek, eta horien artean zeuden bere ahizparen mutil-laguna eta Joseba Zeziaga abadea. "Denak pertsona on-onak, inorekin sartzen ez zirenak", kontatu zion Juan Ramon Garairi. 1936ko abenduaren 19an, aita hil zen. Kanpai hotsek errepublikazaleen aire-bonbardaketa baten berri



Arrasateko Emakumeen Batzakoek Gernikan aterako argazkia. FANI GARAI

## Emakume Abertzaleen Batzako kide

Gerra aurretik Emakumeen Abertzaleen Batzako militante izan zen, eta Arrasateko kideen artean Fani Garai zen bizirik geratzen zen azkena. "Euskal Herri mailan, gerra aurreko Emakume Abertzaleen Batzako kideen artean bizirik geratzen zen bakarra dela esango nuke. Ez dut modurik hori guztiz ziurtatzeko, baina oso zaila litzateke besterik egotea", dio Intxorta 1937ko Juan Ramon Garaik. Emakume Abertzaleen Batza EAJ barruan sortu zen, 1922an, emakumeek arlo politikoan zituzten helburuei erantzuteko. Ambrosio Martin O'Daly irlandar abertzaleak Bilbon egindako hitzaldi batean, emakume irlandarrek mugimendu nazionalen zuten pisuari buruz jardun zuen, eta hark bultzatuta 50 emakumek sortu zuten taldea. Lehen etapak urtebete iraun zuen, Primo de Riveraren diktadura hasi zen arte, eta, besteak beste, balkoietan ikurrinak jarri, euskara ikastaroak antolatu eta mendi-irteerak egin zituzten. 1931n abiatutako bigarren aldia hasi orduko, Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan 205 herritan zituzten taldeak. Debagoienean: Aramaion, Arrasaten, Elgetan, Oñatin, Antzuolan, Eskoriatzan eta Bergaran –azken honetan 400 afiliatu izatera heldu ziren—. Euskarazko irakaskuntza eta euskal kultura sustatu, etxeko andre eta irakasleen defentsa sindikala egin eta preso eta gaixoen aldeko lan sozialak egin zituzten, besteak beste.

## 104 urterekin, lekukoa

Arrasateko emakumerik adindunena zen Fani Garai. Haren lekukoa Carmen Jorgek hartuko du orain, apirilaren 7an 104 urte bete dituen arrasatearrak. Ortuellakoa da jaiotzez, baina bizitza osoa eman du Arrasaten, eta une honetan Aretxabaletako zaharren egoitzan bizi da. Bigarren adindunena 1917an jaiotako beste emakume bat da, eta hirugarrena, Rosario Uranga; azken hau da Iturbide egoitzako adindunena, 102 urterekin, eta berriki COVID-19 gaitza gainditzea lortu du.

eman zuten, 12:00 aldera, eta haren aita bomba batek harrapatu zuen Iturriotz kaletik Zerkaosteta kalean zuten etxera zihoala. Faxistek eliza garbitzera behartu zuten, Pilarica egunean garbi-garbi egon zedin, eta ondo gogoritzen zituen faxistek Arrasateko lau emakumeri egindako umiliazioak. Kaskamotz utzi eta errizino-olioa edanarazi ostean, danborren erritmora herriko kaleetan desfilatzen behartu zituztela kontatzen zuen.

## Gorrotorik gabe

Ezagutu zutenek diote "bizitza gogorra" izan arren ez zuela "gorrotorik gordetzen", ezta etsaien izenik aipatzen ere. "Memoria itzela zuen, baina margariten [emakume karlistak] edo falangisten argazkiak erakustean ez zuen haien izenik aipatzen; inoiz ez", dio Jose Ignazio semeak.



# ELAk Iturbideri jarritako salaketa ezetsi egin dute

Eibarko lan-arloko epaitegiak sindikatuaren salaketa ezetsi du, iritzita Iturbideko kudeatzaileek "euren esku zeuden eta exijitzeko modukoak ziren neurriak hartu dituztela, une oro, langileek informazioa, formazioa eta babes materiala izateko"

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Epaileak erabaki duenez, Aita Menni enpresako kudeatzaileek kasuan kasuko osasun gomen-dioak jarraitu dituzte, eta gehitu du: "Material eskasia egon arren, beti izan dituzte eskularruak, amantalak... baita alarma egoera ezarri aurretik ere".

"Mundu mailako pandemia honek eragindako kaosaren erdian", epailearen iritziz, salaketa jaso duten erakundeek "jokabide iraunkorra eta ahalik eta arretatsuena" izan dute, bi arlo hauetan: indarrean jarri den araudi berria betearazteko eta langileei euren lana behar bezala egiteko informazio, formazioa eta norbera babesteko ekipamenduak emateko.

"Testuinguru honetan, salaketa jaso dutenek egindako kudeaketa egokitzat jotzen da, existitzeko modukoak diren irizpiden arabera. Beraz, ondorioztatzen da salatzaileek aipatutako langileen oinarrizko eskubideen urraketarik ez dela egon, eta ondorioz, salaketa ezesten da", erabaki du epaileak. Epaian aipatzen denez, otsailaren 28tik alarma egoera ezarri arte, Aldundiak eta Servicios Sociales Aita Menni 35 neurri hartu zituzten COVID-19 arauketarekin lotuta: prebentzio neurriak buruzko informazioa eta formazioa ematea, egoitza barruan kartel informatiboak jartzea, termometroak erabiltzea eta langileei tenperatura hartzea, hitzaldi telematikoak egitea egoiliarrekin eta langileekin, besteak beste.

"Kudeaketa egokia" egin dela ondorioztatzeko, hainbat proba zerrendatzen dira epaian. Horien artean, besteak beste, hauek: martxoaren 27ko lan jardunaldiaren amaieran, Aita Menni aktuzio plana eta koronabirusaren aurkako prebentzio neurriak helarazi zizkiela langileei, eta hurrengo egunean koronabirusari eusteko arauen berri



Iturbideko egoitzaren irudia, kanpoaldetik. GOIENA

## AITA MENNIK ETA ALDUNDIAK EZ DUTELA LANGILEEN ESKUBIDERIK URRATU DIKTATU DU EPAILEAK

eman ere; martxoaren 20an, hiru kutsatze kasu susmagarri zeudenean, lan-txanda bakoitzeko FFP2 maskara bat jarri zutela. Erizain laguntzaile bakar batek erabili ahal zuen, hark bakarrik artatuz balizko egoiliar kutsatuak. Gainontzeko langile guztiek maskara kirurgikoak eta eskularruak zituztela baieztatzen da; martxoaren 23an konfirmatu zela lehen koronabirus positiboa Iturbiden. Hurrengo egunean, dokumentalki frogatu denez, hiruzpalau egunean behineko desinfekzio sistema ezarri zela, barandak eta leku amankomunak desinfektatzeko; martxoaren 26ko astean lehen amantal kirurgikoak heldu zirela Iturbidera eta martxoaren 28an lehen FFP2 maskarak lehen eta bigarren solairuetako langileentzat; apirilaren 1ean, Urquijo medikuak, norbera babesteko ekipamenduak

agortzen ari zirela ikusita, ezinbestekoak ziren arropa gehiago eskatu zituela, eta jaso ostean langileen artean banatu zirela –ez du zehazten zein egunetan–; martxoaren 30ean testak egiten hasi zirela egoitzako egoiliarrei, eta apirilaren 9an langileei, eta gaur-gaurkoz langile guztiei egin dizkietela.

### ELAren irakurketa

Epaia jakin ostean, sindikatutik adierazi dute salaketa ezetsi arren, epaian "agerian geratu" dela babes-neurriak berandu iritsi zirela. "Epaian egiaztatu da langileentzat egoera horretarako egokiak ziren babes-materialak eta testak egitea berandu etorri direla. Honez gain, ez zirela bete bere datan protokoloe-tan ezarritako beste neurri batzuk ere, hala nola kontingentzia-planak egitea".

### Salatutako erakundeak

GOIENA salatutako bi erakundeekin harremanetan jarri da epaiari buruz duten iritzia jakiteko. Ez Aldundiak ez Aita Menni ez dute baloraziorik egin, baina azken hauek "langileen esfortzua" eskertu nahi izan dute.



OLATZ ZUAZUBISKAR / AED

## la 100 memeren artean, onena

Guztira 99 meme jaso ostean, irudikoa aukeratu dute AEDko lagunek irabazletzat. Olatz Zuazubiskarrekin egin du, aurtien parranda gutxiago egongo direla adieraziz. AEDko antolatzaileak "pozik" daude lehiaketaren erantzunarekin eta baita mailarekin ere. Esker hitzak izan dituzte parte hartzaileendako, eta baita lehiaketa babestu duten Ibai-arteke kideentzako.

## Gesalibarko jolas-parkea berritzeko lanak hasi dituzte

Prozesu parte hartzaile bat egin ostean, *Goazen soka parkera* izeneko diseinua izan da boto gehien jaso zituena. Bost jolas estrukturak osatuko dute parke berritua, eta 31.944 euroko kostua izango dute lanek –BEZA barne–. 20 egunen buruan parkea amaituta egotea da aurreikuspena, eta alarma egoerak baimentzen duen unean estreina-

tuko da. Parte hartze prozesuan, guztira, 133 boto jaso ziren hiru leku hauetan: udal webgunean, Gesalibarko auzo elkartearen eta BAZen jarritako hautetsontzietan. Lehian aritu ziren zazpi enpresen diseinuen artean, 69 boto jaso zituen *Goazen soka parkera* izeneko diseinua.

Hala, Sumalim enpresaren diseinua jaso zuen babes gehien. Hain zuzen ere, Munarko, Zal-dibarko eta Nao Santiago kaleko jolas-parkeak berritu dituen enpresa berak.



NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA

## Adinekoen egoitzen eredua hobetzeaz

Koronabirusak eragindako heriotzen %67 adinekoen egoitzetan suertatu da. Euskadin 367 egoitza daude eta bertan 13.899 lagun bizi dira. Dakigunez, gure egoitzetako asko eta asko foru aldundiek eta euskal udalek joan den mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetan sortutakoak dira. Horien diseinuak egoiliarrak taldeka hartzea arbatzat izan du, eta, ondorioz, talde-gune ugari dituzte: jangela, egongela, telebista gela, taberna, eta abar taldeak hartzera zuzenduta daude.

Tamalez, "taldekako egoitza eredu" horrek gabezia handiak erakutsi ditu koronabirusak eragindako osasun-krisialdian. Ahalik eta azkarren –urte amaiera baino lehen, alegia– ezinbestekoa da Adinekoen Egoitzen Eredu Berri bat garatzea egoera eta modu hoberean oraindik gure artean izango dugun birusari aurre egiteko.

Erronka ez da makala. Izan ere, birusari egoki aurre egitea konplexua da, eta, aldi berean, egoitzen eraberritzeak atal askotariko lana eskatzen du. Dena den, ezin dugu hutsik egin, gure nagusien bizitza jokoan baitago!



Hainbat herritarrek koloretako puntuekin apaindu dituzte euren leiho eta balkoiak. ARRASATEKO EUSKARALDIA

## Konfinatuta ere euskaraz bizi daitekeela erakutsiz

Etxealditik Euskaraldira kanpainaren baitan, etxean egiteko hainbat ekintza eta jolas gomendatzen ari da asteon Arrasateko Euskaraldia, eta gaur, eguena, bizipenak partekatzeke dei egingo diete herritarrei, kanpainari bukaera ematen joateko

### Eneko Azurmendi ARRASATE

Apirilaren 20an jarri zen abian Etxealditik Euskaraldira kanpaina, eta, hausnarketa baten ostean, hilaren 24an hasi ziren eguneko ekintza bat gomendatzen. Arrasaten dagoeneko aurretik ere lanean hasiak ziren. "Kezka sortu zitzaigun ea konfinamendu egoera honetan euskara aparte geratuko ote zen. Mugikorre-ira iristen zaizkigun bideoak, memeak, eta abar, gehienak erdaraz dira; dendetako kartel asko ere gaztelaniaz daude, ahalik eta herritar gehienengana iristeko asmoz. Horri buelta eman eta gure artean euskaraz egiten jarraitzeko asmoz hasi ginen mugitzen", azaldu du Jokin Etxebarriak, Euskaraldiaren Arrasateko dinamizatzaileak.

### Etxean egiteko ekintzak

Kontuan hartuta herritarrek etxean sartuta daudela, etxean egiteko moduko ekintzak dira gomendatu dituztenak, familian, bikotean edo gura den moduan:

jolasak, poteoa, bazkaria, esker mezuak, eta abar. "Domekako bazkariak, esaterako, oso ondo funtzionatu zuen, sare sozialetan asko mugitu delako. Iratiko entsalada, Muxibarko lasagna eta Arteagako intxaurre-saltsa".

Jolasei dagokienez, Belun eta Olgeta dendek eta Txatxilipurdi elkarteak jolasteko proposamen batzuk kaleratu dituzte sare sozialen bitartez.

### Kolorezko puntuak leihoetan

Bestalde, herritarrei eskatu zieten balkoietan edo leihoetan kolorezko puntuak jar zitzaten, identifikagarria izan zedin ekimenarekin bat egiten zutela jakiteko, *ahobizi* edo *belarrirrest* txapak erabiltzen diren moduan.

### ZAPATUAN, BALKOI FESTA EGINGO DUTE DJ MARKELEN ETA DJ IVERREN LAGUNTZAREKIN

### Bizipenak partekatzeke deia

"Gaur, eguena, eskatuko duguna da herritarrek aste honetan izandako bizipenak partekatu ditzaten; gehienbat, guk jakiteko zelakoak izan diren bizipen horiek eta hortik ikasi ahal izateko. Horrek lagunduko digu jakiten bide onetik goazen, edo zerbaitetan huts egin dugun", adierazi du Etxebarriak. "Benean gustatuko litzaiguke bizipen horiek jasotzea gure sare sozialen bidez edo *arrasate@euskaraldia.eus* helbidearen bitartez".

Bestalde, zapatuan, balkoi festa egingo dute –Eskoriatzan eta Aretxabaletan ere bai–. "Egoera honek erakutsi digu bizilagunekin harremanak izatea posible dela eta balkoitik balkoirako hori, galduta zegoena, berreskuratuko dugula". Beraz, DJ Markel eta DJ Iverrekin elkarlanean, saio bat egingo dute, Etxealditik Euskaraldira kanpainarekin lotuta. Beste behin ere, herritarrek animatu gura izan dituzte parte hartzera.

## Egun osoko egitaraua bihar, San Andresko jaiak ospatzeko

Auzotar zein herritar guztiak animatu dituzte parte hartzera eta jaiak ospatzera, "modu arraroan bada ere"

### E.A. ARRASATE

Apiril hasieran jakinarazi zuen batzordeak aurtengo jaiak bertan behera geratuko zirela. Hala ere, eta nork bere balkoitik bada ere, ospatu egingo dituzte, *San Andresko Jaiak COVID-19* izenpean. "Buruari bueltaka, pentsatu genuen egun bateko egitarau bat egitea, auzoak merezi zuelako", azaldu du Oiana Sanchezek, jai batzordeko kideak.

"Jaiak bertan behera geratu zirenetik, jendea nola animatu pentsatzen ibili gara. Momentuz, bi lehiaketa antolatu ditugu: argazki eta bideo lehiaketa eta aurtengo kartelaren marrazki lehiaketa umeentzako", dio Sanchezek. "Markel Goikolearekin berba egin genuen, orain arte gauzak antolatzen ibili delako zapatuero. Modu horretan, egitaraua osatu dugu". Asmoa da nor bere etxetik Youtuben

sartzea, Goikolearen kanalean –*Akorde Music Experience*–, eta "momentu konkretu batzuetan musikarekin eguna alaitzea".

### Aspertzeko tarterik ez

12:30ean, balkoiak eta leihoak apainduko dituzte. "Auzotarrei dei egiten diegu jaietako kamisetak janztera". 12:55ean, balkoira irtengo dira auzotarrak; eta 13:00etan, nagusiendako txalo zaparrada egingo dute. Horren ostean, auzo txotxa izango da. 13:10ean, triki-poteoa eta dantzaldia, nork bere etxean.

Arratsaldean, 18:00etan, umeendako txalo zaparrada egingo dute, eta gero, mozorro jaiak. Bukatzean, berriro dantzaldia egongo da, eta 20:00etan, txalo zaparrada berriro. Beste dantzaldi baten ostean, kandela eta linternekin agurtuko dituzte aurtengo jaiak, 21:00etan.



OIHANE AGIRRE

## Seinale berria Araba etorbidean

Araba etorbideko urbanizazio lanen barruan, biribilguneetako batean *Arrasate-Mondragon* izena jarriko dute. Oraingo, azpian doan *Mondragon* jarri dute, eta horren gainean *Arrasate* jarriko dute astelehenean. Herriko enpresa bat ari da lan horiekin. Debagoienean lehena izango da. Seinaleak zeresana eman du herritarren artean eta sare sozialetan.

# Saskibaloiairen paradisua zain du Irene Muruak

Ointxe! taldearen harrobitik azken urteetan irtendako harribitxi distiratsuenetakoa da 17 urteko arrasatearra. Ameriketako Estatu Batuetako 40 unibertsitatearen interesa erakarri ostean, Louisianako unibertsitatean jokatuko du hurrengo lau urteetan

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Irene Murua saskibaloia jokalaria arrasatearra Ameriketako Estatu Batuetan jarraituko du kirol ibilbidea. Ointxe-Araski taldeko 17 urteko jokalaria Louisiana Tech taldeak fitxatu berri du, eta, hain zuzen, han jokatuko du hurrengo lau urteetan, Enpresagintza ikasketak egiten dituen artean.

**Txikitatik nabarmenduz**

Bere entrenatzaile izandakoek azpimarratu dutenez, "bereko talentuagatik eta lanerako bokazio nekaezinagatik" txiki-txikitatik hasi zen nabarmentzen.

Infantil mailan Gipuzkoako zein Euskadiko selekzioekin jokatzeke hautatu zuten, eta, kadete mailan, Espainiako selekzioarekin jokatu zituen hainbat txapelketa. Bartzelona taldearen eskaintza ere jaso zuen, baina uko egin zion. Ostean, Ointxe-Araski taldera egin zuen, eta 2018an, 16 urte zituela, debuta egin zuen Espainiako emakumezkoen maila goreneko Dia ligan. 2018-2019 denboraldian, 18 urtez azpiko euskal ligako saskiratzailerik onena izan zen, eta ia jokatutako 16 urtez azpiko Espainiako txapelketan maila aparta zuen. Agentzia baten bidez bere bideo bat helarazi



Irene Murua, Araski taldeko elastikoarekin jokatutako partidu batean. IRENE MURUA

zieten Ameriketako Estatu Batuetako hainbat unibertsiteri, eta horietako ia 40ren arreta erakartzea lortu du Muruak. Horien artean aukeraketa egin zuen, eta, erabaki zuzenena hartzeko, aukeratutako hiru unibertsitateak bertatik bertara bisitatu ditu berriki. Behin hori eginda, hala azaldu du zergatik egin duen apustu Louisianako unibertsitatearen alde: "Arlo akademikoan hirurek egiten zidaten eskaintza antzekoa; beraz, kirol arrazoiengatik egin dut Louisianaren alde. Euren jokoa

europarragoa da, eta hor hobeto egokituko naizelako aukeratu ditut". Ameriketako unibertsitate liga emakumezkoen saskibaloiko bigarren maila gorena da, WNBA ligaren azpitik, eta maila gorenean jokatzeke derri gorrezkoa da aurrez unibertsitatean liga jokatzea. Ilusioz beteta dago ibilbide berria hasteko, baina koronabirusaren osasun larrialdia dela-eta abentura berriaren hasiera zertxobait atzeratu zaio: "Uztailean joateko eskatu zidaten, eta orain, abuztura arte itxaroteko esan didate".



GOIENA

## "Talentua eta dedikazioa, bi bertuteak ditu"

**IÑAKI OGARA** OINTXE!-KO ENTRENATZAILE OHIA

Arrasateko taldean Iñaki Ogara aginduetara egin zituen lehen urratsak Muruak.

### Zer du Irene Muruak heldu den lekuraino heltzeko?

Talentua eta dedikazioa, bi bertuteak ditu. Bere ibilbidean zehar inork ez dio ezer oparitu, eta izaera nekaezin eta langile horrek emaitzak eman dizkio. Beti zegoen hobetzeko prest eta ez die inoiz ezezko batekin erantzun lan saio gehigarri.

### Nola moldatuko da Louisianan?

Ondo, ez dut zalantzarik. Ziru esperientzia aberasgarria izango dela berarentzat: kirol arloan, arlo akademikoan eta baita arlo pertsonalean ere. Ziru nago urte batzuk barru Irene Muruaren izenak zeresana emango duela emakumeen saskibaloian.

## Aurrez AEBetan jokatu zuen arrasatearra

Itxaso Mallabiabarrenak ere antzeko bidea egin zuen 1998an, eta han egin zituen unibertsitate ikasketak. "Ni baino urtebete lehenago Aretxabaletako mutil bat joan zen AEBetara jokatzerara, eta haren agente beraren eskutik joan nintzen ni. Unibertsitatera sartu aurretik urtebete egin behar izan nuen institutuan".

Massachusetts-eko Lowell unibertsitatean ikasi zuen eta lau urtez jokatu zuen bertako unibertsitate taldearekin. "06:00etan korrika egiten hasten ginen eta diziplina militarrekin entrenatzen ginen; hemen baino askoz gehiago. Gogor entrenatzea funtsezkoa da han, eta ziur Irene Muruak ez duela arazorik izango".



Itxaso Mallabiabarrena, AEBn. I.M.

## Kirola 'online' egiteko aukera jarri du martxan Udalak

'Kirolaonline.arrasate.eus' webgunean E-goitek enpresa adituak gidatutako lan-saioak jarraitu daitezke

**X.G.** ARRASATE

Konfinamendu garai hauetan etxeko ariketa fisikoa errazteko asmoz, Arrasateko Udaleko Kirolen Saila erabiltzaileei zuzendutako kirol ikastaroen hainbat saioak emititzen hasi da, Internet

bidez. Hala, E-goitek Kirol Zerbitzuak eta Arrasateko Udalak aukera emango diete euren ikastarotako parte hartzaileei etxetik ikastaroekin jarraitzeko. Hori ahalbidetzeko hainbat saio grabatu dituzte, eta, noizean-behin,

streaming bidezko zuzeneko saioak ere eskainiko dituzte.

Horretarako, Udaleko Kirol Zerbitzutik helbide elektronikoa bidez jarriko dira ikasleekin harremanetan, beharrezko lotura eta pasahitza helarazteko. Hala ere, kirol zerbitzuko webgunetik ere bideratuko da lasterbidea ireki berri den *Etxean egiteko ariketak* atalean. Posta elektronikorik jaso ezean, *kirola@arrasate.eus* helbidera mezu bat bidali daiteke, edo Musakola kiroldegira deitu.



Emakume bat, etxean, ariketa fisikoa egiten. ARRASATEKO UDALA



Ezkerretik eskumara, Imanol Roman, Iker Hervas, Aitor Atxa, Andoni Barkero eta Ruben Conejo. UNAI ENDEMAÑO

# Guztiz eraberrituta itzuli da Lined, lan berriarekin

'Devil' abestiaren bideoklipa kaleratu berri du Lined talde arrasatearrak, ekainaren 12an argitaratuko duten 'Soulcrife' diskoko singlearena, hain zuzen. "Momentuz, oso harrera ona izaten ari da, espero ez genuena, eta hori pozgarria da guretzat", diote

**Eneko Azurmendi** ARRASATE  
2019ko udan grabatu zuten hamar abesti dituen disko berria, Aretxabaletako Auryn Studiosen. "Denbora bat hartu dugu nola kaleratu pentsatzeko. Dudan geunden guk kaleratu ala diskoetxe batekin egin; azkenean, Valentziako Art Gates Records diskoetxearekin kaleratuko dugu", dio Aitor Atxa abeslariak.

Orain, promozioarekin dihardute. "Horretarako, zerbait serioa egin behar genuela pentsatu genuen. Taldea ezagutzera emateko, erabaki genuen bideoklip bat grabatzea. Izan ere, orain arte ez zeukan horrelakorik Lined taldeak, eta ilusioa egiten zigun". Asier Elgezua arrasatearrak egin du bideoklipa. "Laguna dugu, eta, horrelako lanak

egiten oso ona dela bagenekienez, berarengana jo genuen. Proposamena onartu zuen, eta asko lagundu digu", azaldu du Atxak.

Horrez gain, Elgezuak egindako letra-bideo bat ere kaleratuko dute maiatzaren 13an. Elkarlana oso ona izan dela dio abeslariak. "Ikusi da bera ere oso motibatuta egon dela, hasieratik prest egin da edozertan lagun-

tzeko, eta ideia berriak ere ekarri dizkigu. Oso pozik gaude alde horretatik, eta eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, egin duen lanagatik".

Diskoaren azala, berriz, Adolfo WB Warbannerrek egin du.

## Aurrez erosteko aukera dago

Ekainaren 12an kaleratuko den arren, dagoeneko erosteko aukera dago, [Artgatesrecords.com](http://Artgatesrecords.com) webgunean. "Orain ordaintzeko aukera dago, eta kaleratutakoan jaso". Kaleratzen denean, diskoetxearen webgunean salgai egoten jarraituko du eta ematen dituzten kontzertuetan ere salduko dituzte, baita Arrasateko eta Oñatiko taberna batzuetan ere. "Halere, oraindik ez dugu erabaki, eta jakinaraziko dugu".

## Disko "garatuagoa"

2009an kaleratu zuten lehenengo diskoa, taldearen izen berarekin: *Lined*. Oraingoa, beraz, bigarrena izango dute. Lehenengo diskotik bigarreneira taldearen eboluzioa nabaritzen dela dio Atxak: "Disko berriko kantuek gehiago garatuta daude, esperientziak ematen duen heldutasun puntu batekin. Plus hori dauka *Soulcrife* lanak".

Horrez gain, lehen diskoan gaztelaniaz ziren letrak, eta orain, ingelesez. "Taldea sartu nintzenean, ingelesezko abestiak egitea zeukaten buruan, eta letra gehienak, gainera, eginda zituzten ordurako. Ni ere ingelesez eroso sentitzen naizenez, aurrera egin genuen", dio Atxak.

Talde moduan ez zaie gustatzen musika estilo konkretu batean sailkatzea. "Azpigerenero askotatik hartzen ditugu ideiak. Baina, nonbait sailkatze aldera, thrash-metal melodikoa egiten dugula esan genezake".

## Gaur egun, taldekide berriekin

2007an sortu zen Lined taldea, eta hiru kide ziren orduan: Ruben Conejo bateria-jolea, Andoni Barkero gitarra-jolea eta Oxel Etxebarria *Buho* abeslaria. Gero, Aitor Fernandez baxu-jolea batu zen taldera eta 2009an kaleratu zuten lehenengo lana. Urte batzuk kontzertuak ematen ibili ostean, baxu-joleak taldea utzi behar izan zuen, eta geldialdi bat eragin zuen horrek, kontzertuei zegokienez.

Gero, *Buho*-k taldea utzi zuen eta Imanol Roman batu zen. Beraz, Andoni, Ruben eta Imanol geratu ziren. Abeslari eta baxu-jole barik, disko berrirako lanean hasi ziren, abesti berriak sortzen, eta abeslari eta baxu-jole bila. 2018 bukaeran, Aitor Atxa abeslaria sartu zen taldean. "Proposamena egin zidaten, eta asko gustatu zitzaidan egiten zutena. Beraz, animatu egin nintzen". 2019 hasieran, kantu guztiei forma ematen bukatu zuten, eta udan, Iker Hervas baxu-jolea taldera batzearrekin batera, diskoa grabatu zuten.

Beraz, gaur-gaurkoz, hauek dira taldekideak: Aitor Atxa abeslaria, Andoni Barkero eta Imanol Roman gitarra-joleak, Iker Hervas baxu-jolea eta Ruben Conejo bateria-jolea.

Formazio berriarekin oraindik ez dute zuzeneko kontzerturik egin. "Orain, zuzenekoak prestatzen ari gara, nahiz eta egoera hobetu arte itxaron beharko dugun horretarako".

**2009AN KALERATU ZUTEN LEHENENGO DISKOA, GAZTELANIAZ, ETA BIGARRENA INGELESEZ IZANGO DA**

## Jarduera ia guztiak martxan, "eragozpenei aurre eginda"

Arrasate Musikalen jardunean ere "eragin handia" izan du COVID-19aren ondorioz sortutako egoerak

**E.A.** ARRASATE  
Jarduera ia guztiak martxan ditu dagoeneko Arrasate Musikalek, nahiz eta pandemiaren eragina "handia" izan den, beste leku guztietan moduan. "Irakasleok egoera berrira moldatu

behar izan dugu eta horrek esfortzu handia eskatu digu. Baina merezi izan du, gure jardunarekin aurrera egiteko", adierazi du Edorta Aiastuik, Arrasate Musikaleko ekintzen arduradunak. Ikasleen eta gu-

rasoen erantzuna ere oso positiboa izan dela jakinarazi du: "Oso ondo eta azkar moldatu dira, eta hori eskertzekoa da".

Horrez gain, Aiastuik azpimarratu du musikak duen garrantzia agerian geratu dela egungo egoeran: "Gizakiarekiko zer nolako garrantzia duen musikak, bere osotasunean, ikusten gabiltza". Bukatzeko, Arrasate Musikalen izenean animoak bidali dizkie guztiei: "Musika lagungarri izan dadila egoera hau erosoagoa izan dadin".



Arrasate Musikaleko hainbat ikasle lanean irakasleekin. ARRASATE MUSIKAL

# "Zortzi abestiko diskoa da, rock-and-roll purua"

OMAR GRANA BALARRASA TALDEKO ABESLARIA

Taldearen izen bereko diskoa, lehenengoa, gertu dute. Abesti bat egin dute publiko, oraingo, eta pozik daude harrerarekin. Maiatz erdialdera kaleratuko dute lan osoa

Julen Iriondo ARAMAIO

Aramaioko bi lagunek –Gillen Mendikute da bestea–, Durangoko batek eta Santoñan bizi diren bik osatzen dute taldea. Euren asmoak aldrebestu ditu azkenaldiko egoera bereziak: diskoaren amaiera luzatu, kontzertuak bertan behera geratu, udako bira asmoak zalantzan jarri... Ilusioz daude, dena den; are gehiago, *Pisando fuerte* abestiak izandako harreraren ostean.

**Ze harrera izan du zuen lehenengo diskoko aurreneko kantuek?**

Oso harrera eta kritika onak izan ditu. Jendeak ulertu du mezua, eta pozik gaude; ez genuen espero jendeak hainbestera ongiatorrik ematerik.

**Zer komentatu dizuete, bada?**

Emakume batek esan zidan, adibidez, asko harritu zuela gizon batzuek halako mezu feminista emateak. Izan ere, kantuan kontatzen da emakume baten istorioa, zein ez dagoen ados rola jarraitzearekin, eta doa *pisando fuerte* denaren kontra.

**Harrera on honen ostean, gainerako kantuek eta diskoa noiz daukazu plazartzeko asmoa, eta nola?**

Gure asmoa zen diskoa apirilaren 4an aurkeztea, Aramaioko Gazte Egunean. Koronabirusaren kontu honekin dena atzeratu da. Orduan, fisikoki ez dakigu noiz aurkeztuko dugun, baina Spotifyn eta plataforma digitaletan maiatzaren 15ean egongo dela kalkulatu dugun.

**Nolako diskoa da?**

Zortzi abesti dira, eta denak dira rock-and-roll purua, horrelaxe. Hor barruan, estilo desberdinak daude: 60ko hamarkadako rock-and-roll klasikotik, 80ko eta 90eko hamarkadetako hard rockera. Transmittitu nahi izan dugu rock-and-rolleko gure bidea, ze prozesu jarraitu dugun eta ze musika estilo entzun ditugun. Letretan, egiten dugu kritika soziala, kontatzen ditugu esperientzia pertsonalak... denetik dago,



Omar Grana. OMAR GRANA

**"TRANSMITTITU GURA IZAN DUGU ROCK-AND-ROLLEKO GURE BIDEA, ZE ESTILO ENTZUN IZAN DITUGUN"**

eta gure iritzia ematen dugu hainbat gauzari buruz.

**Plataformetan egongo da maiatzean, baina salgai ere jarriko duzue.**

Bai, guk inbertsioa egin dugu gutxieneko kalitateko disko bat ateratzeko, eta diru hori berreskuratzeko eta taldeak aurrera egin ahal izateko saldu egin behar dugu, bai. Prezioa ez dugu pentsatu, baina ez da izango oso garestia, ze ez dugu-eta sinisten 15 euroko CDetan.

**Nola banatuko duzuen, non... erabakitzeko, pentsatzen dut.**

Zerbait hitz egin dugu, gauza desberdinak planteatzen ari gara. Konfinamenduan gaude, eta ez dakigu noiz arte iraungo duen honek. Ikusi beharko litzateke zein den kopien prezioa, eta ondo ateratzen bazaigu, bidalketa gastuak-eta ikusita, izan liteke geuk bidaltzea jendeari, aukera desberdinak daude.

**Grabaketa prozesua nola izan zen? Egoera berezi honek eragin zizuen?**

Oso kaotikoa izan da. Urrian hasi ginen, izugarriko gogoarekin, ze bi urte ari ginen-eta honi itxaroten: prozesu honetan sartzen zarenean dena perfektionatu behar duzu, ongi entsetuta joan behar duzu... Grabaketa ondo joan zen. Baina nahasketak egiterakoan, tartean egon ziren Gabonak; bestetik, grabaketa batzuk gaizki zeuden eta berriz grabatu behar izan dugu; gero, iritsi zen COVID-19 fama-tua, eta dena nahastu zuen: otsailerako egon behar zuen CDak, eta pila bat luzatu da, eta apirilean bukatu dugu. Buru-jan handia izan da, bidaia asko... ze nire taldekide bi Santoñan bizi dira eta.

**Nola iritsi zinen zu taldera?**

Taldeko kide arrasatearra [utzi berrri du] laguna nuen, institutuan batera ari ginen, eta hitz egiten zidan bere taldeari buruz. Esaten zidan abeslariarekin ez zuela pozik, eta nik iradokitzen nion gustura joango nintzela eurekin. Entsegu batera joan nintzen, kontzertu batera gonbidatu ninduten... eta horrela hasi nintzen, duela lau urte.



LUXUE IGARZA

## San Prudentziori, hutsik ez

Eskolako ikasle, irakasle eta familiek aurten ere jo dute erretreta San Prudentzio bezperan; modu berezian, hori bai. Auzoz auzo eta kalez kale, herriko txoko guztietara iritsi zen furgoneta musikarekin, eta geldialdiak egin zituen, haurrek danborrak eta txirulak jo zituzten eta abes zezaten. Konfinamenduaren zama arintzeko ekintza polita.

## Konposta egiteko aholkuak eman ditu Udalak, egoera berezira

Auzo-konpostatzerako eta etxekorako gomendioak dira; ez dago eragozpenik ez batean ez bestean segitzeko

J.I. ARAMAIO

Udalak jakinarazi du auzo-konpostatzeko guneak "modu egokian" ari direla funtzionatzen: "Beharrezko mantenua eta kontrola egiten da, eta erabiltzaileei konpostatzea ondo egiteko aholkuak bidali zaizkie".

Hona hemen horietako batzuk: konpostagailua irekitzeko orduan eskularruak erabiltzea gomendatzen da, baita tresnak erabiltzea ere –aireztatzailea eta–; auzo-konpostatzeko gunera joan aurretik eta ondoren, eskuak ondo garbitu eta aurpegia edo

sudurra ukitzea saihestu; hondakin organikoak eramateko kuboak garbitu; bereziki, heldulekua.

Antzerako jarraibideak hartu behar dira kontuan etxeko konpostatzearen kasuan. Udalak adierazi du lortutako konposta erabiltzeko eragozpenik ez dagoela, ez dagoela arriskurik.

Kontuan izan behar da tenperatura altuak birusaren etsai direla, eta, konpostatzeko prozesuan 55 graduko tenperaturara iritsiz gero, birusa desagertu egingo dela, Udaletik azaldu dutenez.

## Autobus zerbitzua %30era egotetik %50era pasa da

Azkenaldiko egoera berezi honetan, beste behin egokitu du Arabako Foru Aldundiak autobus zerbitzuaren ordutegia. Horrela, apirilaren 22tik aurrera ordutegi berriak daude indarrean. Zerbitzuak ugaritu egin dira, %30etik %50era, krisia hasi aurrekoarekin alderatuta. Udalaren webgunean daude ordutegi zehatzak.



Autobusa geltokian. J.I.



Herritar bat bi txakurrekin paseatzen. M.A.

## Aldaketak animalien araudian, "hobetzeko"

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza eguneratu egingo du Udalak; zirriborroa gertu dauka, eta 16 urtetik gorako herritarrek horri ekarpenak egiteko aukera izango dute; maiatzaren 15a izango da horretarako azken eguna

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Bide publikoan "animalien eta pertsonen ongizatea eta bizikidetzaren hobetzeko" animaliak edukitzeko eta babesteko ordenantza eguneratuko du Udalak. Horretarako zirriborroa gertu dauka, eta 16 urtetik gorako herritarrek ordenantzako artikuluen gaineko iradokizunak egin ahal izango dituzte Udalaren webgunearen bitartez *-Aretxabaleta.eus-*. Izenabizenak eta nortasun agiria jarri beharko dira artikuluen inguruko ekarpenak egiteko, eta maiatzaren 15a arte egongo da zabalik. Behin proposamenak jasota, udalbatzak behin betiko onartuko du ordenantza berria.

**Arau-hausteak, 60 eurotik gora** Zapki artikulua eguneratuko ditu Udalak eta bat gehituko dio ordenantzari. Batetik, jaso dute animalia basatiei *-usoak, kaleko katuak...* debekatuta dagoela jaten ematea. Eta bestetik, txakurrekin zerikusia duten hainbat artikulua egokitu dituz-

te: baldintza bereziak bete behar dituzten artikuluan, txakurren definizioak gehitu dituzte; salaketa bat jaso duten txakurrak kolore gorriko plaka batekin identifikatu beharko dira; txakurra lotzeko ezingo dira erabili luza daitezkeen uhalak; eta gorotzak derrigorrez jaso beharko dituzte jabeek bide publikotik. Esandako debeku horiek arau-hausteak jasotzen dituen artikuluan ere sartu dituzte, horien kopurua zehazteko; hona hemen: gorotzak uzteko poltsak ez eramatea, animaliak bide publikoan elikatzea eta txakurrendako aisialdi-eremua erabiltzeko arauak urratzea.

Arau-hauste arinak 60 eta 600 euro artean egongo dira *-gaur*

**TXARAPEA INGURUAN 900 METRO KOADROKO AISIALDI-GUNEA EGOKITUKO DUTE TXAKURRENTZAT**

egun, 43 eta 431 euro artean *-eta larriak, 600 eta 2.156 euro artean. Arau-hauste oso larrien kopuruak ez dituzte aldatu, eta zigorrak 2.156 eta 21.565 euro artean jarraituko dute egoten.*

**Txakurrendako aisialdi-gunea** Aretxabaletan 500 txakur inguru daude eta horiendako aisialdi-gunea bat egokitzeko asmoa du Udalak. Txarapea inguruan izango da *-17. eta 21. etxebizitzaren artean *-eta 900 metro koadro izango ditu; bi sarrera *-goian eta behean *-eta bi jarleku egongo dira han.****

Gune horretan ere ordenantzako hainbat arau bete beharko dituztela adierazi dute Udaletik; adibidez, txakurrak une oro pertsona heldu batek lagunduta egotea. Gainera, erroldatutako txakurrak, mikrotxipa dutenak edota higie eta osasun-arloan indarrean dagoen araudia betetzen dutenak bakarrik eroan ahalko dira, eta uhalarekin sartu eta atera beharko dira.



Anbulantziatoko langileak eta ertzainak GSR aurrean, zapatuan. MIRARI ALTUBE

## Urtarriletik hona iaz 16 heriotza izan ziren eta aurten, hamaika

Koronabirusarekin kutsatutako 44 herritar daude, 18 GSR egoitzan; lau heriotza izan dira hor guztira

**M.A. ARETXABALETA**

Koronabirusak ekarri duen gaitzaren ondorioz heriotza kopurua hazi egin da lurralde askotan eta hainbat herritan. Aretxabaleta ez da kasu horietako bat. Udaletik aditzera eman dutenez, urtarrila eta apiril bukaera bitartean hamaika heriotza izan dira guztira herritan. 2019an, osterara, 16 izan ziren, 2018an, 27; eta 2017an, 26.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jasotako datuen arabera, Aretxabaletan 44 kasu positibo izan dira bi hilabete hauetan *-martitzen arratsaldea bitarteko*

datua *-; hain zuzen, Gipuzkoako lehen kasua Aretxabaletakoa izan zen. Gaitzaren ondorioz hil diren herriko daturik, osterara, ez dago jasota.*

COVID-19 gaitzak adinekoen egoitzetan jo du bereziki gogor, baita Aretxabaletako GSR egoitzan ere. Foru Aldunditik jakinarazi dutenez, hemezortzi positibo daude eta lau lagun hil dira *-martitzen iluntzera arteko datua *-.** Hain zuzen egoitzatan egiten dabiltzan lana eskertu gura izan zieten ambulanziatoko langileek eta ertzainek joan den zapatuan, GSRra joanda.

## GORA ETA BEHERA



GOIENA

## Zerbitzua etenda egon arren, "kasurik ez"

Aretxabaletar batek gogorarazi du arropa bilketa zerbitzua etenda duela Debagoieneko Mankomunitateak *-eta ohar bidez adierazita *-,** eta, hala ere, herritarrek "ezin errespetatu".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo [688 69 00 07](tel:688690007).



Iaz, Aretxabaletako Andramaixak jaiak hasi berri, jendetza udaletxe aurrean. GOIENA

# Uztailerako kale-ekintza bat egiteko helburua

Uztailerako kaleko ekintzaren bat edo beste egiteko gertu egongo direla adierazi du Aretxabaletako alkate Unai Elkorok. Portasolgo jaiak eta Andramaixak, berriz, egingo diren aurreikuspenarekin, datorren astean hasiko dira gaia aztertzen

**Imanol Beloki** ARETXABALETA  
Beste herri batzuetan moduan, herriko jaiak egingo diren edo ez zalantzaz beterik daude herriarrak. Aretxabaletaren kasuan, Portasol auzoko jaiak eta Andramaixak egiteko moduan egongo direla adierazi du Aretxabaletako alkate Unai Elkorok, baina, jaietz gain, uztailerako

kaleko ekintzaren bat antolatze-ko asmoa agertu du: "Maiatzean Ojala Zelai eguna eta Txakolin Eguna geneuzkan, eta horiek ezin dira egin. Hala ere, Espainiako presidentek Pedro Sanchezek martitzenean emandako adierazpenekin argitzen doala egoera esango nuke. Joango gara zehazten, baina hiru hilabete

geratzen dira jaietarako, eta astez aste ari dira neurriak hartzen. Beti bezalakoak ez dira izango, baina ordurako egoera normalizatuagoa izango delakoan gaude, eta egingo dugu zerbait".

**Uztailerako kale-animazioa**  
Egoeraren arabera egokitzen joango diren arren, uztailerako

kaleko ekintzak bultzatzeko moduan egongo direla adierazi du Elkorok: "Ekainean, agian, ezin da ezer egin, baina herriarrak kalera irteteko deseatzten daude, eta, masifikazioak ekidinez, uztailean ekintzaren bat edo beste egitearen alde egingo dugu, seguruenik. Aurretik ere aritu gara lantzen Arkupe aretotik atera eta ekintzak kalera ateratzeko. Espainiako Gobernuak hartutako erabakiak jarraituz, datorren astetik aurrera hasiko gara ekintzaren bat edo beste lantzen; ea egin dezakegun, eta Portasol auzoko jaietarako eta Andramaixetarako zer egin dezakegun ere aztertzen hasiko gara".

## EH Bilduren proposamena

Honekin batera, herriko jai nagusiak gertatzen hasteko batzorde bat sortzea maiatzean proposatu du EH Bilduk, "aurtengoak ezberdinak" izango direla irizita: "Uste dugu herrian nahikoa sormen dugula agertoki posibleak eta jaiak ospatzeko modu ezberdinak aurreikusteko. Modu ezberdinean ospatuko ditugu, baina Andramaixak izaten jarraituko dute". Horren adibide jarri ditu AZ Gaubelak antolatzen dabilen jaiak, itxialdi sasoi honetan: "Gogoarekin eta irudimenarekin ia dena posible dela argi utzi dute; baina sekretua parte-hartzean dago". Aurten egindako guztiak etorkizunera begirako urratsak ezarriko dituela uste dute, "jaiak sortzai-

leagoak izatea ahalbidetuko" duelakoan.

Horrekin batera, kultura ereduaren gaineko hausnarketa ere egin gura izan du EH Bilduk. "Orain arte ezarri den kultura-eredua, kasu askotan, bertikala den eskaintza-eskariaren funtzionamenduan oinarritzen da", adierazi du ohar bidez, eta uste du beste eredu bat behar dela, "horren osagarri" izan daitekeena, parte-hartzailea eta kosortzailea: "Eredu horretan herriarrak izango liriateke eragile eta kultura-sorkuntza horretan parte hartuko lukete, bai eta haien gozamenean ere". Hori horrela, proposamen hau egin dute: "Gure herriko artistek parte hartuko duten programazio bat sortzea, egoeraren arabera espazio ezberdinak izango dituen. Espazio birtuala edo presentziala izan daiteke gure herriko hainbat tokitan". Etxetik, Arkupeko agertokitik, kaleko espazioetan edo kalera begira –erakuslehoak– sorkuntzak erakusteko aukera izatea herriko artistek aipatu dute EH Bildukoek: "Eta horregatik ordainsaria jasotzea planteatzen dugu".

**HERRIKO JAI NAGUSIAK NOLA EGIN AZTERTZEN HASIKO DIRA DATORREN ASTETIK AURRERA**


## Erakundeengana zuzenean joko dute Euskaraldiko batzordekideek

Euskaraldiko batzordeak euskararen erabilera sustatzeko harreman zuzenaren bidea hartuko du

**I.B.** ARETXABALETA

Aretxabaletan ere Euskaraldiarekin buru-belarri ari dira egunotan. Joan den egunean, Aretxabaletako Euskaraldiko batzordeak bilera telematikoa egin zuen, eta erabiliko dituzten estrategiak adosteko aprobetxatu zuten hitzordua, besteak beste.

Hartutako zenbait erabaki zeintzuk izan ziren adierazi gura izan du Eñaut Zubizarretak: "Zein estrategia erabiliko genituen markatuta geneukan, baina egoera honekin plangintza aldatu



Kanpainako borobil bat, balkoian. GOIENA

behar izan dugu. Harreman zuzena izan nahi dugu; hala, telefonoz deitzeko proposamena alde batera utzita, pertsonalki egitearen aldeko apustu sendoa egin dugu. Hala, herriko talde, eragile eta komertzioengana fisiko ki joango gara, dituzten zailtasunak batzera, euskararen erabilera sustatzeko bideak markatzen... Horrekin maiatzaren 11tik aurrera hasiko gara, eta egun horietan berriz batuko gara batzordekideak, egin beharrekoak hobeto zehazteko".

Zapatuan, berriz, balkoi-festa egingo da bailara mailan, 20:00etako txaloen ostean, eta aretxabaletarrei balkoi eta leihoak borobilekin eta #etxealditikeuskaraldira traolarekin apaintzeko dei egin gura izan diete Aretxabaletako Euskaraldiko batzordeko kideek.

## Lanean jarraitzen du Leizarra musika eskolak

Kuotekin zailtasunak izan dezaketen bazkide-familiak zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko eskatu dute

**I.B.** ARETXABALETA

Musika hezkuntzaren zein beste jardueren gaineko eskolak ematen jarraitzen du Leizarra musika eskolak, horretarako "ahalegin eta esfortzu guztia" eginda irakasleek. Egoera "zaila" dela askorendako jakitun, bazkide-familiei erraztasunak emango dizkietela iragarri dute.

Irakasgaiak modu birtualean emateko zailtasunak dituztela azpimarratu dute –batez ere, taldeetan egiten direnak– musika eskolako zuzendaritza batzordeko kideek ohar bidez. Era

berean, familien inplikazioa txalotu eta eskertu dute.

Koronabirusak eragin duen egoera "leuntzeko" asmoz, hainbat erabaki ere hartu dituzte: Kuotei dagokienez, edozein bazkide-familiak zailtasunak izanez gero zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko eskatu dute. Horrekin batera, maiatzean eskaini izan dituzten dantza emanaldiak, Ojala Zelai Egunean eta Haur Dantzarien Egunean –maiatzeko azken domekan–, ez direla egingo adierazi dute.



Kristina Cardenal etxean josten.



Jesus Jara eta Kati Perea lanean.



Roberto Caballero eta Pili Garcia josten.



Jaione Fernandez de Jauregi. ARGAZKIAK: USUNE BENGOA

## "500 maskara inguru egingo genituen"

Homologatuak ez direla argi utzita, hamabost laguneko herritar talde bat maskarak egiten ari da, behar dutenen artean banatzeko. Horiek jasotzeko, Dorleta liburu-dendara joan beharko da, eta bertan dagoen itzarote-zerrendan izena eman

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako herritar talde bat maskarak egiten ari da etxetik, eta behar duenaren esku doan utziz. Gaur-gaurkoz, hamabost laguneko osatzen dute taldea, eta boluntarioki ari dira maskarak egiten. Horiek jasotzeko, Santa Ana auzoan dagoen Dorleta liburu-dendara joan behar da, eta

bertan dagoen itzarote-zerrendan izena eman.

Kristina Cardenal da maskarak egiten ari den taldeko kideetako bat, eta ekimena nola sortu den adierazi du: "Marta Cantera eskoriatzarraren bitartez hasi zen egitasmoa. *Eskoriatza Opina* izeneko Facebook taldean mezua idatzi zuen proposamena eginaz,

eta zenbait herritarrek egin genuen bat ideiarekin. Hala, Whatsapp taldea egin dugu, eta batzuk maskarak egiteaz arduratzen garen arren, beste batzuk materiala lortzeaz arduratzen dira; beste batzuk, aldiz, leku batetik bestera eramaten... Hala ere, esan behar dugu ez direla maskara homologatuak, eta horren

berri ere ematen diegu maskarak jaso nahi dituztenei, informazio orri baten bidez...".

Interneteko bideoak ikusiz hasi dira taldeko partaideak maskarak egiten. Bertatik patrioiak atera eta gero materiala lortuz. "Pollero dendako Arantxa Ruizek lekua utzi zigun bere etxeko atarian materiala uzteko. Enrique Mazmela dentistarenean, bestalde, Jasone eskoriatzarrak egiten du lan, eta bere bitartez maskarak egiteko filtroak lortu ditugu, horiek desinfektatu eta berrerabiltzeko. Hala, oihalak eta filtroak erabiliz ibili gara egiten, baina filtroak gastatu egin zaizkigu dagoeneko; orain, Compostela tabernako Usune Bengoak utzitako paperezko mantalekin ari gara egiten, hauek filtro modura erabiliz...".

### Haurrentzako maskarak

Zaharren egoitzara hainbat maskara eraman dituzte, gertukoaren artean ere banatu dituzte, baina herritar guztien artean zabaldu dute egitasmoa. "Guztira, 500 maskara inguru egingo genituen, eta joan den astetik haurrentzako egiten ari gara. Gure egitasmoaz gainera, Ibiltariak Camper Ekipamenduak Jon Pagaldai pantailak ari da egiten 3D inprimagailuarekin bere kabuz, eta herriko zenbait komertziotan ari da hauek entregatzen".

### MASKARAK BEHAR DITUENAK SANTA ANA AUZOKO DORLETA LIBURU-DENDAN EGIN DEZAKE ENKARGUA

## Gertutasuna eta informazioa 65 urtetik gorako herritarrentzat

Hartutako neurrien berri eman, eta harremanetarako kontaktuak jarri dituzte eskuragai udal webgunean

### I.B. ESKORIATZA

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak 65 urtetik gorako eskoriatzarrei mezua bidali eta oinarritzko informazioa eman gura izan die udal webgunean jarritako ohar baten bitartez.

"Pasa den domekatik, 14 urtetik beherakoek aukera dute heldu batekin kalera ordubetez irteteko. Hortik aurrera ere, konfinamendu egoera apurka-apurka arintzen joango da, baina oraindik ez dakigu nola egingo den, eta, itxura guztien arabera, 65 urtetik gorakoek


azkenetarikoak izango zarete kalera irteten. Hori dela eta, une gogor hauetan oinarritzko informazioa eman eta nire gertutasuna adierazi nahi dizut".

### Hartutako neurriak

Adinekoentzat hartutako neurriak zeintzuk izan diren adierazi eta gogorarazi gura izan ditu alkateak: "Boluntario sarea sortu da, Gurutze Gorriaren bitartez, zaurgarritasun egoeran daudenei laguntza eskaintzeko: erosketak egiteko, medikuak agindutako botikak erosteko

edota zaborra ateratzeko. Eskoriatzako boluntario ugari eman du izena zeregin horietan laguntzeko, eta horretan aritu dira. Benetan eskertzekoa da euren laguntza! Udal langileek ere, gizarte zerbitzuetako langileei lagunduz, 75 urtetik gorakoei telefonoz deitu diete euren egoeraren berri izateko, eta, beharrik antzeman ez gero, irtenbide bat bilatu ahal izateko. Gizarte Zerbitzuetako langileek zaurgarritasun egoeran daudenei deitu diete, eta euren egoeraren jarraipena egiten ari dira. Denok ahalik eta ondoen egongo zaretelakoan, animo eta zaindu".

Eskoriatzako Udala kontzientzia da herritarren ongizatearen ardura duela, eta, horretarako, Udalarekin harremanetan jartzeko bideak jarri ditu udal webgunean.



OSCAR ESCRIBANO

## Izugarrizko sitsa kalean

Oscar Escribano eskoriatzarrak Hiralga kalean aurkitu zuen sitsa joan den zapatu goizean, ogi bila joan zenean, eta argazkia atera. Horretarako, euro bateko txanpona alboan jarri zion animalari, haren tamaina argiago ikusteko. "*Gran pavón nocturno (Saturnia pyri)* deritzona delakoa dela uste dut, eta, ikusgarria zenez, argazkia atera nion".



# Merkatariei laguntzeko, playback txapelketa

Atxorrotx Kultura Elkartek abian jarri du playback txapelketa. Lanak maiatzaren 10era arte entregatzeko epea dago, eta hiru sari egongo dira, dirutan jasoko dira; hauek Axtroki Merkatariei Elkarteko dendetan gastatu beharko dira

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkartek playback txapelketa jarri du martxan. Familian, lagunartean edo bakarka grabatutako bideoak izan daitezke; aukeratutako kantuak euskara hutsean izan beharko dira; eta, guztira, hiru sari egongo dira, gero hauek Eskoriatzako Axtroki Merkatariei Elkarteko dendetan gastatuko dira. Lanak maiatzaren 10a baino lehen entregatu beharko dira, [inkernu@atxorrotx.eus](mailto:inkernu@atxorrotx.eus) helbide elektronikora bidalita, eta dagoeneko bideoak grabatu eta bidaltzeko epea irekita dagoela adierazi dute.



Maite Santamaria karakterizatuta. GOIENA

**Entretenez helburu**

"Elkartean aurrera begirako ideia berriak aztertzen ari gara, eta playback txapelketa izango da horretarako lehenengo pausoa. Funtsean, herritarrok entretenitzeko eta aktibo jarraitzen dugula adierazteko antolatutako dugu egitasmo hau. Hala, bide batez,

herriko merkatariei txikiei laguntza txiki bat ere eskaini nahi diegu modu honekin, bizi dugun egoerak kalte handia eragingo dielako. Hori horrela, playback txapelketara animatu nahi ditugu herritarrek, bideo diberti-

garriak, landuak eta sorpresak beterikoak jasotzeko asmoz", adierazi du Iñaki Kortazar Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak.

**Bete beharreko oinarriak**

Playback txapelketan parte hartu nahi dutenek zenbait oinarri bete beharko dituzte: lanak maiatzaren 10a baino lehen bidai beharko dira [inkernu@atxorrotx.eus](mailto:inkernu@atxorrotx.eus) helbide elektronikora; euskal musikan oinarritutako bakarleri edo taldeen musika erabili beharko da; eszenaratzea baloratuko da, hau da, atrezzoak, koreografia, eta bestelakoak; hiru sari egongo dira: lehenengo saria 150 euro, bigarrena 100 euro eta hirugarrena 50 euro; lanak horizontalean grabatuak izan beharko dira; epaimahaia Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek osatuko dute. Parte hartzea eskoriatzarren artera mugatuko da; eta, azkenik, epaimahaia talde irabazleak maiatzaren 15ean iragarriko ditu.

## Tontorrera igo barik, Atxorrotx mendiko eguna ospatuko da

Maiatzeko lehenengo domekan izaten den Atxorrotxeko eguna beste era batean ospatzeko dei egin dute

**I.B.** ESKORIATZA

Domeka honetan ospatuko da Atxorrotx mendiko eguna, eta, tontorrera igo ezin denez, jaiak beste modu batera gauzatzeko proposatu dute San Pedro eta Intxaurtxuetako jai batzordeko kideek.

Egunarekin bat egin nahi duen eskoriatzar orok honako hau egin beharko duela adierazi dute: "Herritarrek mendiko botak jantzi, motxila hartu eta Atxorrotx mendira igo beharrean, 12:25ean, leiho eta balkoietara mendiko arropak jantzita ate-

ratzeko gonbidapena egin nahi diegu herritarrei. 12:30ean, berriz, kanpai hotsak entzungo direnez, horrekin batera, *Ikusi mendizalea* euskal abesti herrikoia kantatuko dugu. Amaitzeko, aldiz, leiho eta balkoietan poteoa egiteko proposamena egiten dugu".

**Ikurrinak eta marrazkiak**

Horrekin batera, Atxorrotx mendiko eguna dela argi eta garbi adierazteko ikurrinak eta marrazkiak leiho eta balkoietan zintzilikatzeko dei ere egin dute antolatzaileek. Marrazkiei da-

gokienez, Karmelo Oñate ilustratzaile eta marrazkilaria eskoriatzarrak Atxorrotx mendiko hiru marrazki eredu egin ditu haurrek koloreztatzeko. Eta hauek *San Pedro Intxaurtxuetako Jaiak* Facebook orrialdetik deskargatu eta inprimatu daitezke. Atxorrotx mendiko marrazkien ereduak inprimatu ezin dituenak, berriz, aukera izango du hauek jasotzeko Eroski, Coviran, Mapfre, Ogiberri eta Zarus gozoki dendan.

**Sare sozialak bete nahian**

Atxorrotx Eguna dela adierazteko, gainera, *#AtxorrotxEguna2020* traola erabilita, Atxorrotx mendiko argazkiak Whatsapp, Facebook, Instagram... hainbat sare sozialetara igotzeko dei ere egin gura izan dute antolatzaileek.



Gatzagako Hautesle Elkarteko kideak batzartuta. IMANOL BELOKI

## Egur publikoak non utzi aztertzen ari dira egunotan

Egunez egun herriko beharrak aztertzen eta erabakiak hartzen ari dira Hautesle Elkarteko kideak

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Zenbait erabaki hartzeko eta herriko egoera aztertzeko sarriago ari dira batzen Leintz Gatzagako Hautesle Elkarteko kideak. Batu ziren azkenengo aldiran, esaterako, maskaren banatzea, egur publikoen kokapena eta haurrak kalera irten izanaren balorazioa egiteko aprobetxatu zuten.

Joan den zapatuan, maskaren banaketa egin zuten herritarren artean, baina, akatsa zuten, ez erabiltzeko gomendio egin zuten banatu bezain pronto: "Zenbait banatu ostean, Eudeletik akatsekin zeudela esan ziguten, eta,

eguerdirako, herritarrei hauek ez erabiltzeko esan genien... Horrekin batera, haurrak kalera hasi ziren irteten domekan, eta neurriak errespetatu zituztela... izan genuen hizpide", adierazi du Garazi Orobengoa Ogasuneko zinegotziak.

**Egur publikoak uzteko toki bila**

Orain arte, Dorleta Santutegian izan dituzte batuta egur publikoak, baina, kultura ondasun izendatuta dagoenez, Gaztainuzketa mendi-etxeen edo Gure Ametsa jatetxe ingurura lekualdatzeko proposamena aztertzen izan ziren.



GATZ MUSEOA

## Etorkizun beltza museoan

Ikastetxeetako haurren irteerak bertan behera geratuta, 370 bisitari gutxiago izan dituzte, Aste Santutako erreserbak bertan behera geratu dira... eta langileen esanetan, bisitetan egiten dituzte salmenta handienak. Hala, galerak kontabilizatzen ari dira egunotan. Etorkizunera begira, gatz salmenta igotzeak lagundu egingo lieke, baina etorkizuna beltz ikusten dute.



Bitorianatxoren jaitsierarik egongo bada ere maiatzaren 27an, San Martin plazak ez du iazko itxurarik izango. IMANOL SORIANO

# Adostasuna jaiak bertan behera utzi eta birusari elkarlanean aurre egiteko

Historian lehen aldiz modu telematikoan elkartu den udalbatzak erabaki du Pentekosteak suspenditzea, ohiko ereduarekin ospatzeko egoera egokia ez delako; COVID-19aren ondorioak arintzen saiatzeko, diferentzia politikoak "bigarren plano baten" utziko dituzte

## Jokin Bereziartua BERGARA

Pentekosteak ez dira ospatuko aurten. Ez orain arte ezagutu diren moduan, behintzat. Hori-ze izan zen astelehenean osoko bilkura berezian aditzera eman zen erabakietako bat. Bilkura oso berezia izan zelako, COVID-19aren ondorioz Bergarako Udalean modu telematikoan egin den historiako lehena izan zelako. Udalbatza osatzen duten 17 zinegotziak eta udal idazkaria bideo-deietarako aplikazio baten bidez birtualki elkartu eta *streaming* bidez zuzenean ikusi ahal izan zuten herritarrek.

Osoko bilkura berezian, hilaren 27an hasi ziren Amillaga kaleko obrak –ikus 27. orria–, Arrano taberna eta Artatse elkartearen babesteko mozioa –ikus 29. orria– eta COVID-19aren bueltan ateratako adierazpen bateratua izan ziren berbagai,

besteak beste. Adierazpen bateratu horretan eman zuten aditzera egoera ez dela egokia Pentekosteak ospatzeko: "Gaur-gaurkoz, argi dagoena da Pentekosteak maiatzean ezingo direla ospatu, eta hala aditzera eman nahi dugu. Bergarako kaleak piztu eta girotuko dira berriz baldintza hobek ematen direnean".

## Xaxau, 'birusa' noiz kutsatuko


Ez dago Pentekosteak ulertzerik Xaxauren *birusik* eta egitarau barik; asteon, bideo bidez iragarri dute aurtengo jaietarako

## AURTENGO NOBEDADE AIPAGARRIETAKO BAT IZAN BEHAR ZEN BALTSAN JAITSIERA BERRESKURATZEA

egitaraua bertan behera utzi dutela, eta lotuta zuten egitarauaren berri eman dute. Bideberriko txosnagunean ohikoak ziren ekitaldiez gain, bazegoen aurtengo jaietarako prestatuta zuten nobedade aipagarri bat, dagoeneko adin bat duten bergararren artean ekitaldi kutuna zena. Baltsen jaitsiera, hain zuzen: "Aurten, ez da posible izango, baina jaiak ospatzen ditugunean berreskuratuko dugu".

Horrez gain, aurtengo eragile omendua Jardun euskara elkartearen behar zen, baina jasoko dute merezi duten omenaldia jaiak ospatzeko egoera egokia denean. Erramu zapatua balkoitik ospatzeko gonbita egin zuten Xaxaukoek, eta ziur maiatzerako ere prestatuko dutela zerbait: "Antolatuko diren ekintzetan parte hartzea animatzen zaituztegu".

## Pentekosteak suspendituta: erreakzioak




GORKA ARTOLA  
EH BILDU

"Ez da baldintzarik ematen Pentekosteak ospatzeko eta ez dugu uste zentzu handirik duenik festak egutegian atzeratzeak. Sanmartzialekin edo San Martin jaiekin zer gertatuko den, tokatzen denean erabakiko da".



ELENA LETE  
EAJ

"Herri baten identitatea eta ohiturak mantentzen dituzte jaiak. Denok behar dugu poza eta ondo pasatzea une honetan, baina itxaron egin behar; aldakorra da egoera eta egoerak berak finkatuko du jaien agenda ere".



ALBERTO ALONSO  
PSE-EE

"Festa gizartearen balbula beharrezkoa da, orain inoiz baino gehiago. Festa gizarte kohesioa ere bada, tribuaren kohesioa ziurgabetasunaren eta beldurraren aurrean, baina etorriko da behar den moduan ospatzeko unea. Elkar zaindu gaitezen orain".

## 17 zinegotziak bat, ondorioei aurre egiteko

Adierazpen bateratu baten berri eman zuen udalbatzak astelehenean osoko bilkura telematikoan. Argi geratu da COVID-19ari aurre egiteko Gobernuaren eta oposizioko taldeen arteko elkarlanerako prestutasuna: "Ez dakigu asmatuko dugun edo ez, aurretik inoiz ez dugu-eta ezagutu halakorik, baina gure borondate onenarekin ahaleginduko gara".

## Itxialdian joan direnak

Hil diren bergararrak izan dituzte bereziki gogoan: "Gogoan ditugu bereziki itxialdian hil direnak eta euren familiak, ez delako erraza egoera honetan dolua egitea". Egoera zaurgarriena bizi dutenentzat lan egiteko konpromisoa agertu dute, ahal duten neurrian: "Gure bitarteko guztiak ipintzeko konpromisoa hartzen dugu".

## Komunitatea eta elkarlana

Komunitatearen garrantziaz ere badirhardute: "Osasuna eta zaintza erdigunean jarri da, eta horrek zer hausnartu eman digu. Bistaratu egin dira zaintza lanetan dabilzan emakumeak, ohartu gara zein garrantzitsua den bizilagunak ezagutzea, eta, orokorrean, komunitatearen garrantziaz jabetu gara. Indibidualtasunetik, ezin aurrean ditugun erronkak gaintitu". Horregatik, elkarlanerako dei inoiz baino ozenago egin nahi izan dute: "Herritarrek, Udalak eta beste erakundeek elkarlanean jardun beharko dugu, aurreko hamarkadetan sortutako ongizate estatuaren alde positiboak babestu eta guztien artean eredu gizatiarragoa eraikitzeko. Eskubide zibil eta sozialak modu kolektiboan landuta eta konpartituta lortuko dugu aurrera egitea".



Wolframaren biribilguneetik IAT-ITVraino ari dira lanean, atzo goizean ateratako argazkian ikusten denez. ANDONI OLABARRIA

# Amillagarekin aurrera, dirulaguntza bati lotuta

Amillaga kalea berriro urbanizatzeko proiektua gauzatzen hasi dira asteon, Jaurlaritzaren Renove Industrialdeak Planaren barruan 150.000 euroko laguntza jaso delako; gunearen irisgarritasuna bermatu eta hiri altzariak berritzeko hainbat lan egingo dira, sei hilabetez

## Jokin Bereziartua BERGARA

Astelehenean hasi zituzten obrak Amillaga kalean, Ondartza eta Ernai biribilguneen artean. Kale zati hori berriro urbanizatzeko lehen faseko lanak dira; irisgarritasuna bermatzea da helburu nagusia, eta baita tarte horretako hiri-altzariak berritzea ere. Horretarako, honako lan hauek egingo dira: espaloia zabaldu irisgarritasuna bermatzeko eta zorua berritu; burdinazko ur hornidura berria ezarri; euri urak jasotzeko azpiegitura berritu; argiteria berritu, LEDeekin; Laino skate parkearen pareko espaloia oztopatzen duen kutxa handiaren tapa kendu eta espaloiaren kota berean utzi; eta autobus geltokia lekuz aldatu eta markesina berria jarri.

Zirkulazioan eragina ari da izaten, norabide bat itxi behar izan dutelako wolframaren ikurra duen biribilgunearen eta IAT-ITV pareko biribilgunearen artean. Hortaz, herritik irteteko Ernai kalea erabili beharko da

norabide guztietarako. Zirkulazio aldaketak ez du eraginik izango autobus zerbitzuan eta geltokietan, eta oinezkoen joan-etorriak uneoro bermatuko dira. Sei hilabete iraungo dute lanek.

## Dirulaguntza bati lotuta dago

Proiektua Sasoi Eraikuntzak SL enpresa ari da gauzatzen eta obraren aurrekontua 376.734 euro da -BEZa barne-. COVID-19ak ekarriko dituen ondorio ekonomikoaren testuinguruan eta 2020ko udal aurrekontua ia erabat berrantolatu beharko dela jakinda, Udala aurreikusitako inbertsioak berraztertzen ari da, egoera ekonomiko berrira egokitzeko, helburua izanik ezinbesteko edo lehentasunezko inbertsioak iden-

**SASOI ERAIKUNTZAK  
ENPRESARI ESLEITU  
ZITZAIÓN OBRA,  
376.734 EUROKO  
AURREKONTUAREKIN**

tifikatzea: "Proiektu honekin aurrera egitea erabaki da 150.000 euroko dirulaguntza jaso delako Jaurlaritzaren Renove Industrialdeak Planaren barruan".

## Eztabaida osoko bilkuran, berriro

Asteleheneko bilkuran Amillaga kaleko 21 metro koadroko lur eremu baten lagapena izan zen hizpide eta EAJK beste behin salatu zuen obraren adjudikaziorako Gobernuak ez duela eurekin kontatu; jeltzaleek ez dute begi onez ikusten autobus geltokiaren kokapena herrigunetik urruntzea: "Oso garrantzitsua da geltokia herrigunetik ahalik eta hurbilen izatea eta aldaketa egin da gure iritzia aintzat hartu gabe".

Udal Gobernuak 150.000 euroko dirulaguntzari lotuta egonda denbora tarterik apenas izan zutela nabarmendu du, eta gaineratu teknikoki ezinezkoa zela bi autobus geltokiak gaur egun dauden moduan bata bestearen parean mantentzea.



NIRE USTEZ

AINHOA NARBAIZA

## Osasuna zer den

Bergaran eta beste txoko askotan laguntza sareak sortu dira herritarrek elkar babesteko asmotan. Osasun komunitarioari heltzeko, herritarrak antolatzeke moduak berrasmatu nahian galdera ugari dantzan: auzokideekin nola harremandu? Zaintzeak zer esan nahi du? Non daude mugak? Norena da ardura? Sare hauek laguntzeko prest jende asko agertu den arren, egoera zaurgarrian dauden herritar asko ez dira sare hauek iristen.

Espazio askotan errepikatu den gogoeta da, beharbada bizilagunen arteko harremanak ez direla uste dugun bezain sendoak. Norbere etxean panorama latza dagoenean, besteen aurrean zaurgarri agertzea ez da batere erraza. Eta hori ere osasuna da, osasuna ere bada norbere egoera sozialak nola eragiten dion gorputzari: harreman sareak, etxebizitza-lan-zerbitzu duinerako aukera, paperak edo kontratua izatea, kontsumo eta elikadura eredua... Mugimenduan antolatuta eta desira askori helduta harrapa gaitzala datorrenak. Bukatzeko: dena baikor ikusteak, polizia lana egiteak eta egoera hau erromantizatzeak osasunean ez du batere laguntzen, benetan.



GOIENA

## Saia ere paseora irten zenekoa

Herriko kaleak ohi baino askoz lasaiago dauden egunotan, irudiko putreak San Lorentzoren lur hartu zuen domekan, Espainiako Gobernuak umeei ordubeteko irtenaldiak baimendu zitkien egunean. Oinezko baten antzera zirkulazio arauak ezagutuko balitu bezala, zebra-bidea igarotzen ageri da saia Ertzaintzaren patruila baten aurrean. Irudia bolo-bolo ibili da sare sozialetan.

## OHARRAK

### Gazteendako alokairu soziala: eskaera zabalik

Gazteek etxea alokatzeko laguntzak eska ditzaketela azaldu du Udalak. Abenduaren 31era arte egin daiteke eskaera; baldintzen eta bestelako argibideen berri izateko: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus).

### Irukurutzeta eguna ere bertan behera geratu da

Domekan ospatu behar zuten Irukurutzeta egunak 2021era arte itxaron beharko du. Irukurutzeta eguna herri askoren topagune zen garai baten; osintxuarrez eta bergararrez gain, Soralezuko, Elgoibarko eta Azkoitiko jendea batzen zen mendian.

### Erretiratu eta pentsiodunen aldarria balkoitik

Maiatzaren 4an, balkoitik egingo dute protesta, 12:00etan hasita.

# "Neurriak hartu ditugu Mizpirualde egoitzan"

**ALAZNE IRAZABAL** MIZPIRUALDE EGOITZAKO BURUA

Oraingoz, ez da COVID-19 gaitzaren kasu positiborik atzeman Bergarako adinekoen egoitzan. 100 bat langile eta 97 egoiliar daude bertan egunerokotasunean

**Oihana Elortza** BERGARA

COVID-19 gaitza ez da, oraingoz, Mizpirualde egoitzan sartu. Neurriak hartuta dituzte eta egunerokotasunari eusten diote, egoerak behartutako moldaketak egin dituzten arren. "Indartsu eta pozik" daudela dio egoitzako buruak, Alazne Irazabalek.

**Zer moduz zaudete Mizpirualde egoitzan?**

Ondo gaude denok, bai. Oraingoz, ez da inor kutsatu. Sano gaude guztiok.

**Horixe ikusten da zabaldu berri duzuen bideoan.**

Halaxe gaude eta! Egoiliarren senideendako egin dugu bideo hori. Hasiera batean, bisitari bakarra izan zezakeen egoiliar bakoitzak, baina badira aste batzuk ezin dutela bisitarik jaso. Etxeako ezin dira etorri eurekin egotera, eta senide horiekin pentsatuz erabaki genuen lan hori egitea. Adinekoen egoitzetako albiste ilun eta desatsegin asko entzuten gabilta sasoi honetan, eta gura genien familiei erakutsi Mizpirualden oso ondo gaudela denok; indartsu gaudela, gainera.

**Ze prebentzio-neurri hartu dituzue?**

Neurri handiak eta ezberdinak hartu ditugu. Esaterako, antolaketa aldaketak egin dira. Orain arte, areto nagusian elkartzen ginen hainbat lagun, egoiliar eta langile, elkarrekin dantza egiteko, bingoan jolasteko edo beste ekintzaren bat egiteko. Orain, ordea, pisuka egiten dugu hori. Hau da, pisu bakoitzean antolatzen ditugu ekintzak eta bakoitza bere solairuko ekintzetara joaten da. Modu horretara, ez ditugu talde handiak osatzen eta saiateraz gura ez nahasten eta egitura horri eusten. Baita langileen artean ere. **Norbait kutsatzen bada, zer bide jarraituko duzue?**

Mediku zerbitzua oso erne dago, eta, edozein sintoma igarri gero, kutsatuen protokoloa jarriko



Alazne Irazabal, Mizpirualde egoitzako bulegoan. N.L.

## "LANGILE GUZTIOI EGIN DIZKIGUTE TESTAK; ASTE HONETAN IZAN DIRA AZKENAK"

genuke martxan. Solairuetan aldaketak egin ditugu gela hutsak egon daitezken. Modu horretara, norbait kutsatzen bada edo kutsatuta egon daitekeela uste badugu, gela horietako batera eramango dugu eta ez du kon-

takturik izango beste egoiliarrekin. Hori da egin dugun bigarren aldaketa nabarmena. Bestalde, positiboren bat egonez gero, hori tratatzeko behar den materialean ere inbertsio bat egin dugu hainbat gauza erosiz. Dena dela, nik uste dut beste hainbat egoitzatan ez bezala, guk zortea izan dugula. Hau da, hau zabalitzen hasi zenerako barruan zegoela birusa.

**Zenbat lagun zaudete?**

100 bat langile eta 97 egoiliar. Eguneko zentroa itxi zutenean, hango langileak hona etorri zi-

ren errefortzu moduan, eta asko eskertzen da.

**Testak egin dizkizute?**

Langileei, 82ri egin dizkiete, eta gainerako hamaikei eguaztenean [atzo] ziren egitekoak. Egoiliarren kasuan, 40k egin dute. Positiborik ez dagoen egoitzetan ez ditzutela egingo esan ziguten gero, eta hortxe gelditu da gaia. Oraingoz, inork ez du positibo eman. Pozik gaude.

**Nolakoa da zuen egunerokotasuna?**

Egoiliarrena ez da askorik aldatu, egia esan. Bisitak falta ditzute, hori bai, baina jarraitzen dugu betiko ohiturekin eta betiko martxarekin. Bideo-deiak, bestalde, egunero egiten ditugu. Bi gailu ditugu horretarako eta horien bitartez izaten dute familiakoen berri.

**Ezer onik ekarri du egoera honek?**

Euren arteko harremana aipatuko nuke. Askok diote konfinamenduak senideekin egoteko balio izan duela. Hemen ere berdina gertatu da. Orain arte elkarren artean berba egiten ez zutenak hizketan ikusten ditugu orain, adibidez.

**Ez dakigu noiz arte, baina badirudi luze joko duela egoera honek. Nola ikusten dute etorkizuna egoiliarrek? Zer diote?**

Orain arte, oso ondo egon dira. Etxean egon beharko genuela ulertu zuten, eta bideo-deiak egiteko aukera etorri zen gero. Baina orain, hasi dira galdetzen ea maiatzaren 2tik aurrera bereaie ere atera daitezkeen, eta batzuek atsekabetu egiten dira ezetz erantzutean.

**Beldurrik baduzue?**

Bai, handia. Prestatuta gaude, neurriak hartu eta hartzen ditugu, baina ikusi dugu oso azkar hedatzen den gaitza dela COVID-19a, eta beldurra ematen du horrek, bai.



Tunelaren sarrera bat. O.E.

## Gabiriako tunela itxi egingo dute martitzenean

Gabiriako tunela itxi egingo dute martitzenean, maiatzak 5. Egun batez egongo da itxita, egin ziren inpermeabilizazio lanak bukatzeko. Lan horiek udan egin zituzten, baina proba batzuk egitea falta zen, eta horretarako euri handiak egiteari itxaron behar izan zitzaion. COVID-19 gaitzagatik atzeratu egin dira, eta datorren astean, martitzenean, bukatuko dituzte.

## Auzoko balkoietan ospatuko dituzte Labegaraietako jaiak

Egungo egoerara egokitutako jaiak ospatuko dituzte bihar Labegaraietan; auzoko balkoi eta leihoetan egingo dituzte ekintzak: 12:30ean, musika entzungo da auzoan; 13:00etan, salda eta txorizo jatea egingo da balkoietan; 17:00etan, auzotarrak zoriendu eta segidan txokolate-jana. Txalo zaparrarekin bukatuko dira jaiak.

## Udal artxiboko kontsultak online egin daitezke

Udal artxiboko langileak telelanean ari dira. Hortaz, webgunean kontsultak online egiteko aukera dago eta eskaerak posta elektronikoz egin daitezke. Webgunean eskegitako dokumentuez gain, beste asko daude digitalizatuta: kaparetasunak, kontzejuko erregistroak, aktak, eta abar. Dokumentua digitalizatuta badago, bidaltzeko aukera dago.

## Eskerrak emateko beharra

Irazabalek eskerrak eman gura dizkie laguntza eskaintzeko deitu duten bergararrei eta baita herriko eta bailarako hainbat enpresari ere, materiala emateagatik. "Bideoa abestia horregatik aukeratu genuen. *Heldu da garaia eskertzeko Eman didazun guztia.* Egoiliarrei eta langileei bai, baina baita gurekin akordatu diren beste guztiei ere. Eskerrik asko".



Mizpirualde egoitzako langile bat eta hainbat egoiliar. GOIENA

# COVID-19aren ondorioak aztergai Eskola Herritarrean

Bergarako Sortuk eta Iratzar Fundazioak elkarlanean antolatutako Bergarako Eskola Herritarrean edizio berriak hainbat hitzaldi antolatu ditu datozen asteetarako. Internet bidez egingo dituzte eta COVID-19aren eragina aztertuko dute, arlo ezberdinetan

**Jone Olabarria** BERGARA

Asteazkenean hasita, Bergarako Eskola Herritarrean beste edizio bat egingo dute Bergarako Sortuk eta Iratzar Fundazioak; kasu honetan, Internetez. COVID-19ak bizitzak "hankaz gora" jarri dituen honetan, "punta-puntako" hizlariak parte hartuko dute eta Bergarako herritarrek ere protagonista egin nahi dituzte. Hala, "hurrengo hilabete zein urteak baldintzatuko dituzten hainbat gai" izango ditu ardatz eskola herritarrek; osasun arloan, ekonomikoan, politikoan eta sozialean.

**Youtube bidez**

Arlo teknologiko eta metodologikoan moldaketak egin ostean, saioak zuzenean eskainiko dituzte Bergarako Sorturen Youtubeko kanaletik: *Bergara Sortu Herria*. Jakinarazi dutenez, ikusentzuleek aukera izango dute zuzenean iritziak eta galderak helarazteko, horrela, "eskolaren izaera parte hartzaileari utsita". Saioak atseginagoak izateko ordubetekoak izango direla azaldu dute, elkarrizketa formatuan eginak.

**Egitarau zabala**

Atzo, apirilak 29, egin zuten lehen saioa eta bertan aritu



lazo urrian egindako Eskola Herritarrean lehen saioa, Irizarren. GOIENA

ziren Ainhoa Etxaide LABeko Idazkari nagusi ohia eta Isidro Esnaola ekonomialari eta kazetaria. Egoera ekonomikoa izan zuten ardatz: "Langile klasea koronabirusaren ondorioak su-fritzen ari da. Zein da etorkizuna? Murrizketak, langabezia, denda txikien itxiera... kapitalismoa al da aukera bakarra?".

Maiatzaren 4an, astelehena, 19:00etan, *Askatasun demokratikoak, euskal errepublikarantz* hitzaldia eskainiko dute Julen Arzuaga EH Bilduko parlamen-

tari eta abokatuak eta Kizkitza Gil de San Vicente Sortuko kontseilu nazionalako kideak.

Maiatzaren 6an, asteazkena, 19:00etan hasita, Bergarako komertzio, baserritar eta langileekin solasaldia egingo dute: "Bergaran dugun egoera ekonomiko eta sozialari begirada. Nola daude herriko komertzioak, azoka eta enpresak? Zein egoera bizi ditugu? Zein etorkizun du gure herriak?". Maiatzaren 11n, astelehena, 19:00etan, Bergarako kultur sortzaile eta langileekin solasaldia izango da.



Arrano tabernako kanpoaldea, pasa den astean. GOIENA

## Arrano eta Artatse babesteko mozioa

COVID-19ak eraginda, historian lehen aldiz egin zuten osoko bilkura telematikoa astelehenean. Gai zerrendaz kanpo, azken orduan sartu ziren gaien artean dago *herriko tabernen* auziaren bueltan landu zen mozioa, Artatse eta Arranoko bazkide zein langileek aurkeztuta. *Herriko tabernen* auziaren barruan 2015ean Auzitegi Gorenak emandako epaia gauzatzen hasi ziren joan den astean, eta Debagoiengan Bergarako da ixteko arriskuan dagoen bakarra: Arrano taberna, Artatse elkarte, elkarte zaharra zegoen lokala eta bi garaje dira arriskuan daudenak.

Auzitegi Nazionalak 2014an atera zuen 35/02 sumarioko epaia, eta bertan, 107 herriko taberna konfiskatzeko agindua eman zuten, ETaren egitura finantzatzen zutela leporatuta. Auzitegi Gorenak 2015eko ekainean berretsi zuen sententzia, eta orduan, Arrasateko Irati eta Oñatiko Gorgo Mendi izan ziren libratu ziren bakarrak Euskal Herrian, Pasai San Pedroko Antxeta eta Harotz Toki-rekin batera.

**Mozioa onartuta**

EH Bilduren aldeko botoekin, EAJren abstentzioarekin eta alderdi sozialistaren kontrako botoarekin aurrera egin zuten mozioak asteleheneko osoko bilkura telematikoa.

Besteak beste, Arrano tabernako eta Artatse elkarteko tabernari eta bazkideei babesa erakutsi eta "epai politiko horren injustizia salatu" nahi zuten mozioak: "Operazio hau oinarrizko eskubide demokratikoen aurkako eraso da eta COVID-19a dela-eta bizi dugun salbuespen eta isolamendu egoera baliatzen dabilta berau gauzatzeko. Espainiako estatuaren epai politiko honen ondorioz egiten ari den espolioa 1936ko gerratik egin den handiena da". Mozioaren harira, Gorka Artola alkateak sententzia egun exekututzea "anakronikoa eta ulergaitza" dela adierazi zuen, "injustizia itzela".

## Belaunaldi arteko Mizpirualdeko auzolandegia, bertan behera

Eusko Jaurlaritzaren aginduz, aurten ez da gazteen eta adindunen arteko auzolandegirik egongo Bergaran

**J.O.** BERGARA

Eusko Jaurlaritzaren programa baten bitartez, Bergarako Udalak 2009tik dihardu *Belaunaldien arteko trukaketa* auzolandegia antolatzen. Proiektu honen helburu nagusia da adindunen

eta gazteen arteko harremana sustatzea.

Proiektua abiarazi zenetik, Espainiatik eta Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako hainbat gaztek hilabeteko egoaldia egin dute Bergaran. Iaz,

esaterako, hamazortzi gaztek igaro zuten hilabete oso bat Bergaran. Hasiere batean, lehenengo urteetan, uztailean antolatzen zen, baina azken bi urteetan abuztura pasa da auzolandegia.

Mizpirualde egoitzan bizi diren adindunekin aisialdi eta zaintza ekintza desberdinak egiteko baliatzen dute denbora hori. Goiz eta arratsaldez egoiliarrekin jarduerak egiten dituzte, baina turismo pixka bat egiteko tartea ere badaukate, Bergarako



lazo auzolandegia. GOIENA

herria eta inguruneak ezagutzeko asmotan.

Aurten, baina, Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi ditu herri guztietako auzolandegiak, eta, beraz, ez da posible izango Mizpirualde egoitzan auzolandegia egitea, Bergarako Udaletik jakinarazi dutenez.

Jakinarazi dute erabakia hartzearen arrazoia dela koronabirusa dela-eta bereziki zaugarriak diren kolektiboak babestea eta adineko pertsonen egoitzetan bizi den egoera.

Hainbat haur abesten *Aukera badogu* bideoa irudietan. BERGRAKO MUSIKA ESKOLA

## Musika protagonista dela, etorkizunera bidaia

Martxoaren 29an estreinatzekoa zen 'Kaixo, Stoltz jauna, hor zaude?' ipuinaren kanta baten egokitzea egin dute, konfinamenduan, Bergarako Musika Eskolako ikasle eta irakasleek. Etorkizuneko Bergara eta bertako bizimodua ditu oinarri ipuinak

**Jone Olabarria** BERGARA

Eskolak bertan behera geratu zirenean erabaki zuen Bergarako Musika Eskolak ere era presentzialean eskolak etetea. Hala ere, norik bere etxetik egunerokoarekin jarraitzen dute Bergarako musikariek, eta, Marije Ugalde Musika Eskolako zuzendariak adierazi duenez, "espero baino hobeto" ari dira moldatzen: "Hasieran, ez genekien oso ondo nola egin, baina pazientziaz eta lan askorekin bagabiltza gure ordutegi normala errespetatuz eskolak jarraitzen".

**Irakasleen eta gurasoen lana**

Lan horretan, ikasleek gain, gurasoen eta irakasleen lana azpimarratu nahi izan du Ugaldek: "Zaila da online bidez egitea; atzerapenarekin iristen da seinalea eta geratu ere egiten da. Irakasleak lan bikoitza dabilta egiten aurretik bideoak prestatuz, ikasleak aztertuz... Era berean, teknologia bakarririk erabiltzeko txikiak diren ka-

suan gurasoen laguntza ezinbestekoa da konexioak egin ahal izateko.

**"Aukera badogu"**

Etxean egonda ere, ikasleak gogoz daudela azaldu du Ugaldek, eta hainbat proiektu ari dira aurrera eramaten konfinamenduan. Horren adibide da martxoaren 29an estreinatzekoa zen ipuin musikatuak. Ezin izan dute estreinatu eta ipuin musikatuak kanta bat hartuta *Aukera badogu* bideoa egin dute.

**Etorkizunera bidaia**

Hain zuzen ere, 2050. urtera bidaia bat proposatzen du *Kaixo, Stoltz jauna. Hor zaude?* ipuin musikatuak: "Etorkizuneko gure

**"EGUN BIZI DUGUN EGOERAN BADIRUDI GUK BIDAIATU DUGULA IPUINAK KONTATZEN DUEN ISTORIA"**

haurrek iraganera bidaiatu behar zuten, zehazki 2050etik 2020ra, Bergarako Stoltz Freres organoaren soinu galdua berreskuratzeko asmoz. 2020ra iristen zirenean, organoaren soinua ez zela galdutako gauza bakarrik ohartuko ziren. 2050eko haurrek ez zuten jendea kaleetan ezagutzen, haurrek parkeetan jolastan ez zekiten haragia edo zapatak erosteko dendak zirela, eta desagertutako eraikin ederrak aurkituko zituzten".

**Eguno egoera, parekoa**

Koronabirusaren eraginez estreinatu gabe utzi behar izan dute arren, musika erabilita "kontzientziatzeko eta gogoetarako tresna" izan gura du ipuinak: "Teknologia berriak, Internet bidezko erosketak, ondarearen interesik eza... baina badirudi 2050 imajinario horretara bidaiatu dugunak gu izan gara. Harreman birtualak, dendak itxita, kaleak hutsik... Hala ere, itxaropena daukagu".

## Koldo Eleizalderen aurtengo edizioan, 200 lan inguru

Gaur bukatzen da aurten egoera berezian egin duten literatur lehiaketan lanak aurkezteko epea

**J.O. BERGARA**

Koldo Eleizalde literatur lehiaketaren 35. edizioan lanak aurkezteko epea apirilaren 30era arte luzatzea erabaki du Bergarako Udalak.

Hala, gaur da lanak [www.euskara.bergara.eus/koldo-eleizalde-lehiaketa](http://www.euskara.bergara.eus/koldo-eleizalde-lehiaketa) webgunearen bitartez aurkezteko azken eguna. Udaletik jakinarazi dutenez, luzatzearen erabakia ez da koronabirusaren krisiak eragindakoa izan, eta aurreko urteetako edizioetan ere lanak aurkezteko epea luzatu izan dutela adierazi dute.

**Ohikoa baino gutxiago**

Jasotako lan kopurua "zertxobait" jaiste aurreikusten duten arren, Udaletik "pozik" agertu dira orain arte jasotako lanekin: "200 lagun inguru jaso ditugu, oraingoz, genero eta maila ezberdinak aintzat hartuta".

Hain zuzen ere, ipuin idatzia, poesia, komikia, ipuin-kontaketa, antzerkia, txistea edo umorezko pasadizoa aurkez daitezke. Aurtengo edizioan, egoerak behartuta eta aurrez aurre batzeko ezintasuna dela eta, taldeko lanetan aurreikusten dute jaitziera nabarmenena.



Iazko sari banaketan, hainbat haur oholitza gainean. GOIENA

## Aurtengo Mahonero Eguna eta udako campusa, bertan behera

Era telematikoan egin zuten lehen bileran hartu zuten erabakia Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritzako kideek

**J.O. BERGARA**

Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritzak 2020ko Mahonero Eguna eta Udako Futbol Campusa bertan behera lagatzea erabaki du. Asteartean, hilak 28, hartu zuten erabakia Bergara Kirol Elkarteko futbol saileko zuzendaritzak, lehen aldiz telematikoki egin zuten bileran. Koronabirusaren krisiak eraginda, segurtasuna bermatu eta ekitaldiak ohiko moduan ospatu ezinagatik hartu dute erabakia.

Aurten ekainaren 19an eta 20an ospatzekoa zen Mahonero

Egunak bosgarren aldia izango zuten. Egunaren helburua "klubeko jokalariei, entrenatzaileei, familia eta zaleekin batera jai giroan ospatzea" da, eta horien baitan egiten diren bazkaria eta osteko ekitaldiak jendetsua izaten dira.

Udako campusari dagokionez, ekaineko azken astean eta uztaileko lehen astean egitea aurreikusten zuten elkartetik. Aurtengoa bere hirugarren aldia izango zen; 2005 eta 2012. urteen artean jaiotako neska-mutikoei hartu ahalko zuten parte.

# Baratzeko lanetara itzuli dira ortuzainak

Alerta egoera ezarri eta desplazamenduen debekua indarrean sartu zenetik egoera gorabeheratsua bizi izan dute ortuzainek. Ortuko lanetara itzuli dira poliki-poliki, baina diote araudia behin eta berriz aldatu dela, eta ziurgabetasuna izan dela nagusi

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Gauza asko aldatu ditu alerta egoerak, eta horien artean dira ortuko lanak. "Une honetan, baimenduta dago lurra lantzea, zein landatzea edo ereitea, baina ezin da ortura egun-pasa edo eguzkia hartzera joan", azaltzen du Baserritarren batzordeko buru Sebastian Arantzabalek. Ziurgabetasun handia egon dela dio; izan ere, araudiarekin gorabeherak egon dira. "Uste dut ia astero ibili direla aldatzen. Lehenengo esaten zuten ezin zela ortura joan. Gero, joan bai baina jeneroa jasotzera bakarrik. Aldaketa pila egon dira, eta lanak izan ditugu argitzeko zer zegoen baimenduta eta zer ez. Gauza bat agertu eta hori mar txan jarri orduko aldaketa egoten zen. Uste dut hasieran hartutako erabaki batzuek ez dutela izan ez hanka ez buru. Hartu dituztenak ere konturatu direla uste dut. Sinadura bilketak eta antzerako mugimenduak egon dira, eta horrek ere aldarazi ditu debeku batzuk".

Elgetaren kasuan, hiru kasuistika nagusi izan dira: baratzea etxe inguruan duten baserri bakartuetako ortuzainak, herrian bizi eta ortua baserrian dutenak eta baratze parkeko erabiltzaileak. Zailtasun handienak azken bi kasuetan izan dira. "Horiek arazoak izan dituzte desplazamenduak egiteko, eta unean uneko araudiaren arabera ezin izan dituzte ortuak landu", dio Arantzabalek.

Elgetako baratze parkeko erabiltzaileen ordezkaria da Carlota Alfaro. Hamasei erabiltzaile dira eta desplazamenduak debekatzen zituen konfinamendua ezarri zenetik ezin izan dituzte ortuak landu. "Debekatuta zeuden bai desplazamenduak bai ortuko lanak", azaltzen du. "Apirilaren 16an jakinarazi zigun Udalak aukera genuela, berriz ere, ortuak lantzeko, baina erre-



Elgetako baratze parkea, atzo goizean. L.Z.L.

## BARATZE PARKEKO HAMASEI ERABILTZAILEEK ERE NEURRI ZORROTZAK HARTU DITUZTE

serba handiek; izan ere, arautegia edozein unetan alda daiteke".

Baratzeak lantzeko unea da orain. "Ortuetan jenero gutxien dagoen garaia da. Negutik gelditutakoak daude –porruak, zerbak...–, baina garai garrantzitsua da lurra lantzeko eta aurretik landatuta zeudenak zaintzeko; izan ere, laster hasiko dira ilarrak, baba beltza, tipula, berakata... Udaberri amaieran zein udan jasotzekoak direnak landatzeko eta ereiteko sasoia ere bada. Maiatza izaten da ortuko landaketak egiteko sasoirik gogorrena", gogorazten du Arantzabalek.

**Baratze parkean, neurri bereziak** Ia hilabeteko etenaldiraren ostean ortuko lanetara itzuli dira baratze parkean ere, baina Udalaren gidaritzapean hainbat neu-

rri hartuta. "Nortasun agiria eta ortuko erabiltzaileak gairela ziurtatzen duen agiria eraman behar dugu gairean", azaltzen du Alfarak. "Gero, lursail bakoitzeko pertsona bakarra egon daiteke, eta, gehienez ere, bost lagun parke osoan. Txandak antolatu ditugu, eta lortu dugu elkarren ondoan dauden lursailtako erabiltzaileak batera ez egotea. Hala, gutxienez, lursail bateko tartea dago ortuan aldi berean lanean dauden bi lagun artean". Erremintak gordetzeko txabola hustu, desinfektatu eta itxi egin dute. Ez dago erabiltzarri. "Erremintak ere sailkatu eta banatu egin ditugu. Bakoitzak bereak ditu, eta ezin ditugu partekatu. Musukoak eta eskularruak ere badaude, eta desinfektatzeko produktu bat dauka erabili aurretik eta ondotik materiala desinfektatzeko".

Apirilaren 16tik daude berriz ere erabiltzarri baratze parkeko lursailak. "Gogotsu geunden lanean hasteko, baina euria etorri zaigu!", dio Alfarak. "Garrantzitsua, orain, neurriak hartzea eta kutsatzeak saihestea da. Erabiltzaileak, zorionez, erantzukizunez jokatzeko ari dira".



L.Z.L.

## Odol-ateratzeak, gimnasioan

Odol premia dago eta odol-emaileen unitateek ez dute jarduna eten. Astelehenean egin zituzten udaberriko odol-ateratzeak Elgetan. Distantziak mantentzeko gimnasioa erabili zuten eta jende pilaketak saihesteko txanda hartu behar izan zuten odol-emaileek. Musukoak eta eskularruak erabilia, baina egitekoak eginda itzuli ziren sanitarioak.

## CAF-Elhuyar sarietako bat Leire Sangroniz Agudo elgetarrari

Kimikako doktorea da Sangroniz eta polimero birziklatu aurreratuen garapenari buruzko artikulu bat saritu diote

**L.Z.L.** ELGETA

Doktore-tesian oinarritutako dibulgazio-artikuluen kategorian eman diote saria Sangronizi, eta *Polimero birziklatu aurreratuen garapena: plastiko-hondakinei bizi berri bat emanez* da saritutako artikuluak. Epaimahaiak nabarmendu duenez egun ahoz aho dagoen arazo bati erantzuten saiatzen da tesia, eta egindako lan zientifikoa modu oso dibulgatiboan dago azalduta.

Leire Sangroniz pozik agertu da sariarekin. Ezohikoa den osasun-larrialdia dela-eta anto-

latzaileek ez dute sari banaketa ekitaldirik egingo aurten. Hala ere, saridunek 2.000 euroko diru-saria eta Imanol Andonegi Mendizabalen eskultura bana jasoko dute.

41 lan jaso dituzte aurten sariketarako, eta Galder Gonzalez Larrañaga, eta Josu Lopez Gazpio ere saritu dituzte bestelako kategorietan. Ana Zubiaga Elordietari, berriz, Merezimendu Saria eman diote. Neiker sari berezia eta Zientzia Gizartean sorkuntza-beka eman gabe uztea erabaki du epaimahaiak.

## Elgetarrei ere etxeko hizkuntza ohituretan eragiteko deia

Apirilaren 20an aurkeztu zuten Etxealditik Euskaraldira ekimena, eta biharamunean iritsi zen lehen ariketa proposamena. Gailuak euskaraz konfiguratzeko *Lehenhitza.eus*-en berri eman zuten. Ondoren etorri ziren etxeko hizkuntza ohituren inguruan hausnarketa egiteko proposamena, eta horrekin batera jolasak, pintxo-potea, otor-

duak, sareetako mezuak zein erosketak euskaraz egiteko proposamenak. Atzo, berriz, euskarazko zinea izan zen protagonista. Elgetako Euskaraldia batzordeak etxeko balkoietan eta leihoetan koloretako puntuak jartzeko eskaera egin du. Puntu horiei zein etxean egindako ariketetako bati argazkia atera eta *euskaraldiaelgeta@gmail.com* helbidera bidaltzeko eskatu dute. Jasotako argazkiekin bideo bat osatuko dute. Gaur da argazkiak bidaltzeko azken eguna.



Udalbatza, apirileko osoko bilkuran, bideokonferentzian. MAIDER ARREGI

## 60.000 euro herritarrei eta saltokiei laguntzeko

COVID-19ak herritarrengan eta komertzioetan eragindako kalte ekonomikoak arintzeko, urgentziazko diru-lerroa onartu da EH Bilduren aldeko botoekin. EAJK aurka bozkatu du: ez dago ados laguntzen kreditu transferentzia proposamenarekin

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Bideokonferentzia bidez egin dute apirileko ohiko osoko bilkura zinegotziek. Koronabirusak sortutako kalteak arintzeko kreditu transferentzia izan dute eztabaidagai nagusi, eta laguntzak onartuta geratu dira EH Bilduren aldeko botoekin. EAJK aurkako botoa eman du eta alderdi sozialista abstenitu egin da.

EAJKo bozeramaile Basilio Ormazabalek argudiatu du diru-lerroen aurka ez dagoen arren kreditu transferentziarekin ez datozela bat: "Uste dugu laguntzak bideratzeko beste aukera batzuk aztertzeke denbora egon dela. Izan ere, ezin izango dira egin aurreikusitako moduan herriko jaiak eta kultura ekintzak; pertsonalean ere hainbat baja ditugu, aurrekontuan diru-aurrezapena ekarriko dutenak.

Bestetik, Torresoroaren, kiroldegia, Eztalaren, eskolaren, eta abarren azpiegitura gastuak ere dezente murriztuko dira. Eta 1.200.000 euroko soberakina ere badaukagu. Orain da aukera hortik dirua ateratzeko, eta ez Olarango lanei zegokienetik kreditu transferentzia eginda. Laguntzak ateratzearekin ados gaude; zenbait oinarriekin ez, ordea. Beharra zehazki non dagoen eta nork duen identifikatu eta horri laguntza eman behar zaiola deritzogu".

Beñardo Kortabarria alkateak erantzun dio esanez diru sarrerak dezente jaitsiko direla aurreikusitako dutela jada: "Jakinarenean gainean gaude diru aurrerapena egon daitekeela, baina etorkizuna zer izango den aztertzen izan gara eta 400.000 eurotik gorako diru-sarrerak gutxituko

direla ondorioztatu dugu. Besteak beste, Foru Aldunditik diru gutxiago etorriko da, eta denaren beharra izango dugu. Gerakina ere erabiliko dugu".

### Bi dirulaguntza lerro

Olarango lanengatik kreditu transferentzia onartuta, 60.000 euro bideratuko dituzte laguntzetarako. Horietatik 5.000 hezikuntza zentroen itxieraren ondorioz 0-12 urte bitarteko haurren zaintzarako eragozpenak arintzeko izango dira; baita eguneko zentro edo bestelako zerbitzuen itxieraren ondorioz mendekotasun egoeran dauden zaintzarako eragozpenak arintzeko ere. Bestetik, 55.000 euroko laguntza bideratuko da komertzioek, ile-apaindegiek, ostalariek eta bestelako jarduera-ekonomikoek -akademiek, osasun-zerbitzuek,

mekanikoek...- alarma egoeran izandako kalte ekonomikoaren eragina gutxitzeko: "Alarma egoerak eragindako kalte ekonomikoak arintzeko zuzeneko dirulaguntzak dira", azpimarratu du alkateak.

Kreditu transferentzia Olarango eraikina berritzera bideratutako diru-lerrotik egingo du Antzuolako Udalak. Zehazki, 91.000 euro aurtengo aurrekontuan jasota zeuden Olarango eraikina berritzeko. Baina Udala Gobernuak gizarte larrialdia arintzeko erabiliko ditu. "91.000 eurotik 60.000 COVID-19ak sortutako kalteak arintzeko izango da. Gainontzeko 31.000 euroak kreditu globalera bideratuko ditugu, bestelako beharren bat sortzen bada. Dirulaguntza zuzenak dira", dio alkateak.

Olarango obra 2 urterako proiektua zen eta, guztira, 180.000 euro pasatxoko aurrekontua zuen. "Olarango proiektua egin da daukagu eta orain obra egiteko deialdia egin behar genuen. Ondoren, proiektuan oinarrituta, enpresek euren proposamenak egin ahal izango zituzten. Orain, ordea, alarma egoerak justifikatuta, proiektua 3 urtetan egiteko aukera daukagu dirulaguntza galdu gabe. Horregatik, egoera honek aukera ematen digu eraikina konpontzeko dirua gizarte larrialdiari erantzuteko bideratzeko; justifikatuta dago. Datorren urtean normaltasuna badago, Olarango obrari helduko diogu. Eraikinean inbertitu beharrean, pertsonengan inbertituko dugu", gaineratu du.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal webgunean argitaratu eta 15 laneguneko epean herritarrek eskaera egiteko aukera izango dute. Alkateak gaineratu du dena amaitutakoan

EAJrekin batera "aurrekontuan zer kendu eta zer jarri beharko den", erabaki gura dutela.

**COVID-19aren aurka, batasuna** EH Bilduk eta alderdi sozialistak COVID-19ari aurre egiteko adierazpen instituzional bana aurkeztu dute osoko bilkuran. Bateratasuna sustatzeko helburuaz, hiru alderdiek aho batez onartu dute adierazpen instituzional bakarria adostasunez egitea eta maiatzeko osoko bilkuran onartzea. "Ideologiak alde batera utzi eta batasuna behar dugu COVID-19ari aurre egiteko", adierazi du Miren Gallastegi sozialistak.

### Kreditu gehigarria

24.300 euro pasatxoko kreditu gehigarria onartu dute aho batez. Kreditu hori Eztalako instalazio elektrikoa egiteko bideratuko da. Izan ere, 2020ko aurrekontuan ez zegoen aurreikusita. "Eztalako eraikin berria martxan jartzeko, elektrizitate hornikuntza berria instalatu behar da. Horretarako, Iberdrolak 872 metroko linea sartuko du herrigunetik Eztalaraino. Futbol zelaiko instalazio elektrikoa berritzeko argiteria publikoaren linea ere berritu egin beharko da eta koadro berri bat jarriko da hilerrri ondoan". Obrak apirillean hasi behar baziren ere, maiatzaren 4an hasiko dira eta lau hilabeteko epea izango du Artzamendi enpresak.

## "ERAIKINEAN INBERTITU BEHARREAN, PERTSONENGAN INBERTITUKO DUGU"

## Herri Eskolako eta Zurrategiko kolektoreko lanak, martxan

Zurrategiko ur-zikinen kolektoreko pitzadurak konpontzeko lanak datozen egunetan amaituko dituzte

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Zurrategiko ur-zikinen kolektoreko lanak martxa onean doaz. Joan den astelehenean hasi ziren eta bizpahiru astez iraungo duten lanak dira. Zurrategi auzoko erreka albotik doan ur-ziki-

nen kolektorea konponduko dute. "Aspaldian ohartuta geunden usain txarra zetorrela bertatik eta kolektorearekin arazoren bat zegoela. Iazko udazken hondarrean Ur Kontsortzioak kamera sartu zuen kolektorera eta

egiaztatu zuen hainbat gunetan pitzadurak zeudela", jakinarazi du Antzuolako Udalak.

Hain zuzen ere, abian den obrak pitzadura horiek konponduko ditu, eta lanak datozen egunetan amaitu gura dituzte.

Herri Eskolako lanak ere abian dira Espainiako presidente Pedro Sanchezek berriro obrak abiarazteko baimena eman zutenetik. "Egun gutxi egon da obra geldirik eta orain martxan dihardute langileek". Hala, egun batzuetako atzerapenak badirudi



Eskolako obrak, martxan. A.MUNDIÑANO

ez diela eskola handitzeko obraren epeei eta kronogramari aparteko eragozpenik eta atzerapenik eragingo.

Argazkian ikusten den bezala, aurreko eraikinaren hezurdura dagoeneko altxatuta dute beharginek. Eskolako eraikin berriak, behoko baxuaz gain, bi pisu izango ditu.

Dena ondo bidean, urte eta erdi iraungo dute eskolako handitzeko obrek, eta, guztira, 1.200.000 euro pasatxoko aurrekontua izango dute.



# "Lehen baino gutxiago ari gara saltzen"

**TXOMIN ALBERDI ARTZAINA**

Txomin Alberdik eta Amaia Laskurainek etxez etxeko zerbitzua jarri dute abian euren produktuak saltzeko, koronabirusak eragindako egoerari aurre egiteko

**Maialen Regueiro ANTZUOLA**

Txomin Alberdik eta Amaia Laskurainek duela lau urte inguru jarri zuten abian Lamariano Azpikoan AMA-TXO izeneko bizi-proiektua. 250 ardirekin batera, beste hainbat behik eta pottokak osatzen dute bikote gazte honek eraiki duten familia, eta, 30 hektareako belardiarekin, produktu ekologikoen aldeko apustua egin dute, bizi-proiektua aurrera eramateko ezinbesteko-tzat dutelako natura zaintzea eta animaliak errespetatzea. Koronabirusa dela eta, ezin dituzte euren produktuak orain bezala saldu; horregatik, etxez etxeko salmenta jarri dute abian. **Nola eragin dizue koronabirusak zuen egunerokotasunean?**

Koronabirusa iritsi aurretik, gure produktu gehienak Deba-goieneko hainbat azokatan saltzen genituen: Antzuolan, Bergaran eta Oñatin. Horiekin batera, azoka berezietara ere joaten ginen, Bizkaian edota Nafarroan, baina horiek bertan behera gelditu dira eta ezin diegu gure produktuei irtenbiderik eman.

**Zer iruditu zitzaizun azoken harira sortutako eztabaida?**

Azokak debekatzearena ez genuen hasieratik ulertu. Hasieran, esan ziguten gure produktuak supermerkatuek erosiko zizkigutela, eta bat-batean azoka guztiak ixteko esan zuten. Azken hori ez genuen ulertu, supermerkatuek zabalik jarraitzen zutelako eta guk ezin genituelako gure produktuak herriko azoketan saldu.

**Hainbat udalek zuen lana aintzat hartzen dutela sentitu al duzue?**

Bai. Azokak ixteko agindua eman zutenean, baina, aldiz, hainbat udalek azokak irekitzeko erabakia hartu zutenean, gure lana aintzat hartzen dutela konturatu nintzen, eta eskertzekoa da. Beste supermerkatu batzuek edota dendek beraien produktuak



Txomin Alberdi, Antzuolako Lamariano Azpikoan. AITOR AGIRIANO

## "AZOKAK IXTEARENA EZ GENUEN ULERTU, BESTE DENDA BATZUEK ZABALIK JARRAITZEN ZUTELAKO"

saltzen dituzten moduan, guk gure produktuak saltzeko eskubidea dugula uste dut eta gure produktuak saltzeko modua azoketara joatea da.

**Udalek ez ezik, herritarrek ere baloratzen dute zuen lana.**

Bai, eta hori azoketan argi ikusten da. Herritar ugari gerturatzen dira astero azoketara gure produktuak erostera. Are gehiago, esango nuke konfinamenduarekin herritarrek gehiago baloratzen dituztela azokak eta baita gure produktuak ere.

**Orain, etxez etxe ari zarete herritarrei zuen produktu saltzen.**

Gaur egun bizi dugun egoera ikusita, gure produktuei irtenbidea emateko bideak zeintzuk izan zitezkeen pentsatzen hasi ginen eta etxez etxeko salmenta abian jartzea erabaki genuen, eta azken asteetan horretan ari gara lanean.

**Nola doaz salmentak?**

Ondo doaz. Azoketan ondo ari gara gure produktuak saltzen eta etxez etxeko zerbitzuari esker ere ari gara hainbat salmenta izaten. Etxez etxeko zerbitzu honen harira, gainera, otarreak hartzen dizkiguten bezeroei gazta edo esnea behar duten galde-tzen diegu. Hala ere, lehen baino askoz gutxiago ari gara saltzen, hori igarri dugu.

**Nola eskuratu daitezke zuen produktuak?**

Astero Antzuola, Bergara eta Oñatiko azoketan egoten gara eta etxez etxeko zerbitzurako hainbat bide ditugu: herritarrek 605 70 55 41 eta 677 54 43 00 telefono zenbakietara deitu dezakete, [info@basquecheese.com](mailto:info@basquecheese.com) helbide elektronikoa ere esku-ragarri daukagu eta Instagram eta Facebook bidez ere harremanetan jar daitezke gurekin. **Duela hilabete batzuk, protagonista izan zineten, Ternuarekin batera abian jarritako proiektu bati esker. Horrek eragina izan al du zuen salmentetan?**

Egia esan, ez dugu igoerarik igarri salmentetan. Iazkoa dena saltzea lortu dugu eta aurtengoa pixkana ari gara saltzen.



Antzuolako udaletxea. GOIENA

## Zaintza sareko kideak lan gutxi egiten ari dira, "zorionez"

Zaintza sarea aurrera eramateko 45 pertsonako taldea osatu dute eta, oraingoz, zortzi zerbitzu eskaini dituzte

**M.R. ANTZUOLA**

Koronabirusak eragindako alarma egoera ezarri eta berehala osatu zen zaintza sarea herritarren artean. Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak azaldu duenez, 45 pertsonak dihardute taldean eta dagoeneko zortzi zerbitzu eskaini dituzte.

**Deialdi bakarra**

Alkateak azaldu duenez, Whatsappez eta Hirix izeneko aplikazioaren bitartez egindako lehen deialdiari esker, 45 pertsona elkartzea lortu dute, eta horiek dihardute lanean zaintza sarean.

"Zorionez, lan gutxi egiten ari gara", aitortu du Kortabarriak, eta hori horrela izateko bi arrazoi aipatu ditu: "Batetik, herritxikia izanik, herritarrak ondo artatuta daudela esan nahi du, eta, bestetik, herritarrak inguruko jendeari laguntzen ari direla". Hala ere, Kortabarriak

adierazi du zaintza sarea handitzeko beharra egongo balitz, beste deialdi bat egingo luketela eta herritar gehiago gehituko lirakeela taldera.

**Herritarren eskaerak**

Kortabarriak azaldu duenez, herritarrek eskuragarri dute telefono zenbaki bat: 650 80 52 48; horra iristen diren eskaerak zaintza sareko kideei bideratzen zaizkie, kideetako batek eskaeraren ardura har dezan. Hortik aurrerako eskaeren harira, honela mintzatu da Kortabarria: "Herritar batzuek telefonora deitzen dute berriro, baina beste batzuk aurretik zerbitzua eman dion sareko kidearekin jartzen dira harremanetan".

Zaintza sareak ematen duen zerbitzuaren harira, alkateak adierazi du bestelako eskaerarik egon ezean erosketaren zerbitzua emango dutela.

MUJIKA  
HARATEGIA




Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34



Ume bat, ordenagailuan, giza gorputzari buruzko informazioa bildzen. O.E.

## Ikasleek wifia izateko txartelak ditu Udalak

Wifi konexiorik ez duten ikasleek ikasketak etxetik online jarraitzeko baldintzak bermatzeko zerbitzua eskaintzen ari da Udala, herriko ikastetxeekin elkarlanean. Izarkom kooperatibari eskatutako hamahiru txartel banatu ditu, oraingoz

### Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko Udalak SIM txartelak banatu ditu wifi konexiorik ez duten ikasleen artean. Ikasle horiek ikasturtea jarraitzeko muga telematikorik ez izatea da ekimen honen helburua, eta herriko hiru ikastetxeekin elkarlanean ari da burutzen Udala. Hamahiru eskaera egon dira, oraingoz.

### 17 GB hilabeteko

Ikastetxeak martxoaren 13tik aurrera klase presentzialak eten eta online formatuan ari dira eskolak ematen. Modu horretarako, baina, ikasleek Internet behar dute, eta baita tableta, ordenagailua, Chromebook edo horrelako erremintaren bat. "Udala ikastetxe guztiekin, hiru herriko, jarri da kontaktuan, egoeraren berri izateko eta modalitate berri honetan dituzten beharrak identifikatzeko. Ikastetxeek kontrastea egin dute eta hainbat ikasleek wifirik ez zutela konturatu dira. LHko, DBHko

zein batxilergo mailako ikasleak daude identifikatu dituztenen artean", azaldu du Hezkuntza teknikariak, Iñaki Akizuk.

Arazo honen jakitun, Udalak Izarkom kooperatibari eskatu dio laguntza, eta, hala, SIM txartelak erosi ditu beharra duten ikasle horiendako. "Txartel horiek 17 GB-ko datuak dituzte hileroko. Hilabetea amaitzen denean automatikoki betetzen zaie txartela 17 GB-ko edukiera horretara bueltatzeko", dio Akizuk. Txartel horien gastua Udalak hartzen du; 2.000 euroko partida jarri du horretarako.

### Eskolak zabaldu arte

Zerbitzu hau eskolak zabaldu bitartean eskainiko du Udalak.

**17 GB-KO DATUAK EMATEN ZAIZKIE IKASLEEI HILERO, ETA ESKOLAK ZABALDU ARTE IRAUNGO DU**

"Egitasmo honekin bermatu gura da wifi konexiorik gabe zeuden ikasle horiek online klaseak jarraitu ahal izatea. Beste ikaskideen parean egotea ikastetxeak bidalitako dokumentazioa jasotzeko eta deskargatzeko eskolako lanak egin ahal izateko. Modu honetara, ikastetxearekin eta irakasleekin harremana izateko modua ziurtatuta dute", dio Hezkuntza teknikariak.

Martxoan, joan den hilean, hasi zen zerbitzu hau eskaintzen Udala, eta ikasleak klase presentzialetara bueltatu arte iraungo du. Dagoeneko iragarri dute zein mailatakoak bueltatuko diren, baina besteei, ikasturteko azken egunean desaktibatu egingo zaie txartela. Momentuz, hamahiru eskaera jaso ditu Udalak, baina, egoera luzatu egingo denez, Txantxiku Ikastolarekin, Urgainekin eta Elkar Hezirekin harremanetan jarraitzen du, ikasleen beharrak zeintzuk diren jakiteko eta laguntzeko moduak aztertzeko.



Iturriak prezintatu dituzte udaltzainek, kutsadurak ekiditeko. ITZIAR LARRAÑAGA

## Udaltzainek ez dute aparteko kexarik herritarren portaerarekin

Kontsulta asko jaso dituzte umeekin kalera nola atera jakiteko eta abisuekin konpondu dituzte urraketak

### O.E. OÑATI

Konfinamendua hasi zenetik herritarrek "oso ondo" ari direla portatzen dio udaltzainburuak, Idoia Lazpitak. Aste honetan ere, umeak ordubetez kalera irteteko baimena izanda, ez dutela arau-hauste larririk sumatu esan du. Udaltzainak pozik daude egoera honen aurrean herritarrek duten jarrerarekin.

### Balorazio positiboa egin dute

Idoia Lazpitak azaldu duenez, kontsulta eta dei asko izan dituzte udaltzainen bulegoan, umeekin kalera joateko bete behar diren neurrien inguruko zalantzak argitzeko. "Galdetu digute, adibidez, ea bizikletan atera daitezkeen familiako kide guztiak edo 200 metro gehiago egin ahal izango dituzten aita-jauin-amandreak ikusteko".

Kalean ikusi dituzten arau-hausteak ez direla larriak izan

gaineratu du, eta ez direla asko izan: "Adibidez, plazako frontoian ikusi genituen bi familia eta umeak elkarrekin jolasten, eta hori ezin zela egin esan genien. Berdin familia bereko kide guztiak batera zihoazela konturatzean ere".

Astean egin dute asteburuko gertaeren inguruko balorazioa, eta "uste baino askoz hobeto" joan zela dio Lazpitak. "Lan pedagogikoa egiten dugu. Ez dugu larritasun handiko egoerarik izan eta isunik ere ez dugu jarri".

Dekretuaren arabera, kirolguneetan oraindik ezin da jolastu, eta, udaltzainek frontoia jolasleku moduan hartzen badute ere, Olakuako kirolgunean, esaterako, atek -porteriak- prezintatu egin dituzte, ez erabiltzeko. Baita iturriak ere. "Umeek asko erabiltzen dituzte, eta kutsadurak ekiditeko neurria izan da hori", dio udaltzainburuak.

## Udalaren nitxoak erabilgarri egongo dira egoera honetan

Alarma egoeran egonda, hiletak ere ez dira orain arte moduan egiten, eta, egoera honen aurrean, udalbatzak onartu du, aho batez, Udalak erabilgarri jartzea bere horma-hilobiak. Gura duenak aukera du bere senidearen hilkutxa hor gordetzeko, eta, egoera baretu eta normalizatzen denean, handik familiako hilibira eraman ahal izango du.



Oñatiko hilerria. O.E.



San Migel eta apostoluak, duela bi urteko Corpus prozesioan. GOIENA

# Bertan behera gelditu da aurtengo Corpus Eguna

Koronabirusaren indarrak duela 500 urtetik hona Oñatin egiten den ospakizun erlijiosoa eten du lehen aldiz. Aurten prozesiorik ez dela egingo erabaki dute parte hartzen duten lau eragileek: parrokiak, kofradiak, Oñatz dantza taldeak eta Udalak

## Oihana Elortza OÑATI

Ekainaren 14an zen ospatzekoa aurtengo Corpus Eguna, baina ez da horrela izango. Egun hori bertan behera uzteko erabakia hartu dute, aho batez, prozesioan parte hartzen duten lau eragileek: Oñatiko parrokiak, Corpusetako kofradiak, Oñatz dantza taldeak eta Oñatiko Udalak.

## Gertaera historikoa

Egungo egoerak behartuta hartu dute erabakia. "Jende asko batzen den eguna da: Santa Anan herritar asko egoten dira ikusten San Migel nola janzten duten, santu bakoitza bere txokotik txistularien eta anderoen laguntzarekin parrokiaraino nola eramaten duten begira ere egoten da jendea. Eta baita eliza barruan eta, zelan ez, kalean, prozesioa ikusten. Eta bizi dugun momentua ikusita, hori ezin daiteke egin", dio kofradiako kide Luis Mari Aranburuk.

Ohiko urtea balitz, kofradiako kideak prozesioa antolatzen ha-

sita egongo lirateke dagoeneko: "Anderoak lotu, apostoluen arropak begiratu... Lana egoten da egiteko. Jende askorengana heltzen da prozesioa, modu batera edo bestera, askok parte hartzen dute, eta aurten ezin da hori horrela egin, egoera ezohikoa da", gaineratu du Aranburuk.

Egoera ezohikoa eta baita gertaera ere. Izan ere, kofradiako kideak artxiboetan begira ibili dira, eta, jasota dauden dokumentuen arabera, "XVI. mendetik gaurdaino ospatzen den jai erlijioso, kultural eta folkloriko garrantzitsuenetakoa da Oñatin Corpus Eguna. Oñatik 500 urtetik gora daramatza egun berezi hau ospatzen". Aurtengoa da egingo ez den lehen urtea.

**DUELA BI ASTE EGINDAKO BILERAN ERABAKITAKOA BERRETSI EGIN DUTE ASTE HONETAN**

## Bi bilera egin dituzte

Duela bi aste egin zuten lehen bilera lau eragileek gaiari buruz berba egiteko, eta ordurako denek ikusten zuten nahiko argi bertan behera geldituko zela. "Udalak erabakita zuen, adibidez, barrakarik ez zela egongo Corpusetan. Beste kontrataziorik ez zuen eginda oraindik, baina barrakekin etortzen direnei jakinarazi behar genien erabakia. Bilera hartan ikusi zen denok genuela argi aurten ez zela egun horren ospakizunik egingo", dio Kultura zinegotziak, Iñaki Olalde. Astelehenean egin dute bigarrena eta erabakia berretsi egin dute, aho batez.

Parrokiako ordezkariak ez dute ospakizuna bera atzeratzeko aukera aztertu ere egin. "Ez, ez. Corpus Eguna bere eguna du eta hortxe ospatu behar da, ez du zentzurik atzeratzeak. Egoera onartu egin behar da. Hurrengo urtean egingo dugu", dio Oñatiko parrokiako kide Carlos Agirrebengoak.

## Erabakiak alderdi biek hartzen dituztela argitu gura du EAJk

Udal Gobernuak erantzun du ez duela ika-miketan sartu gura eta lanean jarraituko duela, "orain arte moduan"

### O.E. OÑATI

Bizi dugun egoera honen aurrean Udalak hartu behar dituen neurriak lantzeko mahai bat sortzea proposatu zutela adierazi du berri EAJk. Mahai horretan alderdi bietako ordezkariak proposamenak egiten dituztela azaldu du alderdi jeltzalearen bozeramaileak, Ainhoa Galdosek: "Guztien artean hartzen dira erabakiak". Eta minduta dagoela esan du: "Elkarlanean adostutako neurriak Udal Gobernuaren erabaki bezala aurkeztu nahi izan ditu EH Bilduk".

Galdosek gaineratu du ez dela "ika-miketan ibiltzeko momentua, elkartasunerako momentua baizik", baina onartu du ez zaiola askorik gustatu Ekonomia Mahaiak hartutako erabakien berri Udal Gobernuak nola aurkeztu edo azaldu duen. "Astero batzen da mahai berezi hori eta guk ere geure proposamenak egiten ditugu. Baita EH Bildukoek ere. Eta hartzen diren erabakiak guztion artean, alderdi bien artean hartzen ditugu. Egoera larria da eta okertu egin daiteke, eta beharra dutenei laguntzeko bideak jarri behar ditu Udalak, eta horretan gabiltza".

### Lanean jarraitzeko erabakia

Oñatiko Udal Gobernu taldeak azaldu du ez duela ika-miketan sartu gura, nahiago duela "orain arte moduan lanean jarraitu, indarrak eta denbora horretara bideratu". Hala, "berdinean" segitzeko konpromisoa duela esan du: neurri ekonomikoaren mahaian proposatzeko neurri berriak sortzen, inguruko udalekin elkarlanean, beste tokietako neurriak aztertzen, onartutakoak herritarrei helarazten eta herritarren informazioa, besteak beste. "Bilera ugari egiten ditugu astean zehar eguneroko kudeaketarako eta neurri ekonomikoaren mahaira proposamenak eroran guran, COVID-19ak herritarren, komertzioaren, negozioaren... eragindako kalteak leuntzeko ahaleginean, besteak beste. Horixe besterik ez dugu helburu eta berdinean jarraituko dugu. Horretarako momentua dugu orain", azaldu du Izaro Elorza Oñatiko alkateak.

Jeltzaleek herritarren elkartasunean ere badute konfiantza eta "Kuttuna.org" egitasmoan bezala, Caritasei laguntzeko deialdian ere" erantzungo dute la uste dute.



NIRE USTEZ

JOSUNE ODRIOZOLA

## Orban zuriak kolore beltzean

Ekaitzak kolore iluna duen arren, bero dugunean, busti egin gaitzake, eta freskatzeko modu on bihurtu. Zulo beltz edo ilun bat, argitasunarekin lo egin ezin duen ororentzat, ohea jartzeko, primerako babeslekua izan daiteke. Gaur, etxetik, hausnarketa txiki bat egin nahi dut. Kolore iluna, argitasun pixka batekin begiratzea posible dela. Egun dezente daramagu etxean sartuta, irteteko irrikatuz. Kanpoko airea sakon arnasteko desiratzen gaude. Baina, denbora honetan, irabazi asko lortu ditugu. Orain, iragarkietako azken kotxe horretan ez dugu hainbeste pentsatzen, ezin baitugu erabili. Beste era batera esanda, ez ditugu gauza materialak horrenbeste desiratzen. Aitonaren azken besarkada, lagunekin elkartzeko unea, bikotekidearen azken laztana eta beste hainbeste une atsegin etortzen zaizkigu burura. Eta hori zoragarria da. Beltza zirudien egoera hori orban zuriz apaintzea posible da. Konfinamenduak, bizitzako balioei dagokienez, ez digulako onura baino kalte gehiago egin. Alderantziz, alegia. Gure lehentasunak zeintzuk izango diren hausnartzera eraman gaitu, hain zuzen.



Zubillagako Olaburu industrialdeko pabiloian egokitu duten rocodromoak. ANGEL LERA

## Rokodromo alternatiboa egokitu dute Olaburrun

Zubikoa kiroldegiko lanek iraun bitartean eskalatzeko jarraitu ahal izateko rocodromoak egokitu dute Zubillagako Olaburu industrialdeko pabiloi batean. Aloña Mendiko mendi saileko eskalada taldekoek soilik erabili ahal izango dute espazio hori

**Maialen Santos OÑATI**

Zubikoa kiroldegian egiten ari diren lanen eraginez kendu behar izan zuten rocodromoak bertako gimnasioetik, eta, beraz, herriko eskalatazaileek ikusi zuten ez zutela espazio itxian eskalatzeko aukerarik izango aurrerantzean. Aloña Mendiko mendi saileko eskalada taldeko Angel Lera GOIENARI azaldu dionez, taldekoek erabaki zuten Udalarekin harremanetan jartzea, rocodromo hori beste nonbait egokitu ote zitekeen jakiteko; eta era horretan, "rocodromo alternatibo bat" muntatzeko. Hala, Udalarekin elkarlanean hasi ziren, lokal egokia bilatzea helburu. "Lokalak ezaugarri jakin batzuk bete behar zituen; esaterako, horrelako estruktura bati eusteko modukoa izatea", azaldu du Lera. Gimnasioa jarri duten modu berean, rocodromoak ere Eltzian jarri ote zitekeen aztertzen hasi ziren lehenik, baina ez zuten aukera egokitzat jo. Azkenean, Zubilla-

gako Olaburu industrialdeko pabiloi batean jartzea adostu zuten Udalarekin, kontratu bidez. Eskalatazaileak aitortu moduan, kontratu horretan bi gauza jasotzen dira: batetik, rocodromoak Zubikoako lanek iraun bitartean soilik erabili ahal izango dutela; eta bestetik, pabiloi hori beste zerbaitetarako beharko balitz, azken horrek izango lukeela lehentasuna.

### "Auzolanean" muntatutakoa

Eskalatazaile taldeko Jon Etxarrik azaldu du otsail erdialdean amaitu zituztela muntatze lanak: "Taldeen badugu soldatzaileen bat, eta baita tailerreko erremintak erabiltzen dakienik ere. Beraz, Udaleko Hirigintza Sai-

**ESKALADA TALDEAK BERE GAIN HARTU DITU MUNTAIA ETA EGOKITZAPEN LANAK, UDALAK LAGUNDUTA**

larekin batera "auzolanean" egokitu dugu gunea. Hala ere, dio alarma egoeraren eraginez ez dutela izan rocodromoak gura beste disfrutatze aukerarik: "Lanak amaitu eta estreinatze aukera izan genuerako, alarma egoerak harrapatu gintuen". Hori gutxi balitz, "negurako" behar izaten dute gehienbat barruko rocodromoak, eta alarma egoera amaitzen denerako eguraldiak lagunduta Araotzen eskalatu ahal izatea aurreikusuten dute. "Arrazoi horregatik, ez dakit egindako lan guztiari etekina ateratu ahal izango diogun".

### Eskaladako taldekideentzat

Rokodromoaren erabilera mugatua izango da; ezingo du edonork erabili. Hain justu, Aloñako mendi saileko eskalada taldeko kide izan behar da erabili ahal izateko, segurtasun neurriak bermatuta egon daitezten. Gauzak horrela, herriko 25 eskalatazailek inguruk izango dute bertan eskaladaz gozatzeko aukera.

## Hijinio Iriarte txistularia gogoan, jaiotzaren 100. urteurrenean

Zeka numismatika elkarteak txistulari ezagunari eskainitako postala eta zigilua atera ditu martxoan

**M.S. OÑATI**

Herriko pertsonaia ezagunei, gertaerei edo urteurrenei lotutako postalak ateratzen ditu, tarteka, Zeka numismatika elkarteak. Hala, Hijinio Iriarte txistulariaren postala da elkarteak atera duen azkena, martxoaren amaieran. Hain zuzen, apirilaren 30ean beteko dira 100 urte Iriarte jaio zela, eta hori aitzakia hartuta ekarri gura izan dute gogora protagonista, haren zigilu eta postala argitaratuta.

### Bi anaiak, txistulari ezagunak

Hijinio eta Demetrio Iriarte, biak izan ziren Oñatiko txistulari oso ezagunak. Etxetik jaso zuten musikarako eta, bereziki, txisturako zaletasuna, zenbait senide txistulariak izan baitziztuzten. Hijinio bera ere txistu irakasle izan zen, eta haren ikasle izandako Gotzon Osinagak azaldu du asko ikasi zuela ha-

rekin: "Harekin hasi nintzen txistua jotzen, eta asko irakatsi zidala esan behar dut". Eskolak emateaz gain, Elai Alai eta Olaeta dantzari taldeetan parte hartu zuen eta Oñatiko udal txistulari taldean ere aritu zen urte luzez, Osinagarekin batera: "Gizon umila zela esango nuke, gizon on bat", dio Osinagak. Gerora, 1981ean, Oviedon hil zen Hijinio, 60 urte zituela.

Demetrio anaiaren omenez ere zigilu eta postalak atera zituen filatelia eta numismatika elkarteak duela bost urte, 2015ean, eta honen harira Osinagak azaldu du "asko" poztu zela Demetriori omenalditxoak egin ziotenean, eta "are gehiago" poztu dela oraingoan, biek ala biek "merezitako keinua" jaso dutela iritzita.

Hijioneren irudia daraman postala eta zigilua Turismo Bulegoan egongo dira eskuragarri, ezohiko egoera hau amaitzean.



Hijinio Iriarte txistua jotzen, beste txistulari batzuekin. ZECA

## Dantzatu eta bihotza elikatzea helburu asteburu honetan

Oñatiko Eskola Kirola bertualki ari da jarraitzen jarduerarekin, eta astero proposatzen ditu erronkak, herritarrek egin ditzaten. Maiatzaren Bata jaieguna dela kontuan hartuta, ez da erronkarik egongo; bai, ordea, etxean egiteko proposamenak, hilaren 2rako. Gorputza mugitze aldera, Potx eta Lotx pailazoen bi bideo eskegi dituzte *Eskolakirola.eus*

webgunean, eta baita Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionistak emandako elikadurari buruzko gomendioak ere. Horretaz gain, udaberriari Debagoiena nolakoa den erakusteko bideo bat ere eskegi dute, "oreka emozionala" indartze aldera. Eta hori gutxi balitz, *Bat egin!* plataformak proposatutako erronkarekin –marrubiekin egitekoa– bat egin dute Oñatiko Eskola Kirolarekin. Izen bera daraman Facebook kontuan, gainera, mezu baikorrak argitaratzen dituzte, tarteka.

# 'GOIENA', BERRIZ ERE, DENON ETXEETAN



**Maiatzaren 8tik aurrera, Goiena aldizkaria ohiko moduan banatuko dugu berriro etxeetan.**

Honenbestez, okindegi, elikagai denda, estanko edota kioskoetan ez dugu banatuko, azken asteetan egin dugun moduan.

**Eskerrak eman nahi dizkiegu, larrialdi egoera honetan, Goiena aldizkariaren banaketa leku izan diren guzti-guztiei -140 banaketa puntu-. Horiei esker jaso ahal izan du herritar askok gertuko informazioa, euskaraz, doan.**

Aurrerantzean, Goiena aldizkaria etxean jaso nahi baduzu edo, jaso arren, zure datuak eguneratu nahi badituzu, jar zaitez harremanetan Goienarekin:

☎ 943 25 05 05 eta 📞 📧 688 60 00 07.

**goiena**<sup>''</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Miren Arregi ARRASATE

Bilboko bere etxean konfinatuta dagoela, gehien gustatzen zaion horretaz jarduteko aukera izan dugu Mari Carmen Gallastegirekin aste honetan. 1945ean Bergaran sortua, Ekonomian doktorea eta katedraduna da. Irakaskuntzari eskaini dio bereziki bere jardun profesionala, EHUko irakasle izan baita urte luzez. Hala ere, beste egiteko batzuk ere izan ditu, hala nola Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Planifikazio kontseilari ere izan zen, EAren izenean. Egun, Jakiundeko kide da. COVID-19 krisitik eratorritako krisi ekonomikoaz aritu gara harekin. **Zer iruditzen zaizkizu egiten ari diren konparaketak? II. Mundu Gerratik bizi izan dugun krisirik gorrerena ei da...**

Ez zait gustatzen konparaketa hori. Baliteke ordutik gaur arte bizi izan dugun krisi handiena izatea, baina ez du orduan bizi izan zenarekin zerikusirik eta, beraz, ez zait zentzuzkoa iruditzen. Sistema ekonomikoak zailtasunak izan ditzake, bai, baina esango nuke normalean sistema horrek nahiko ondo funtzionatzen duela. Egia da, baita ere, zailtasunak datozenean geldialdi bat egon daitekeela, baina nik ez dut une honetan horrela ikusten egoera. Hau bukatzen denean, berriro ere hartuko du martxa ekonomiak.

**Hala ere, dagoeneko jende asko dago langabezian, beste asko ERTEan...**

Beti gertatu izan da gertakari batek ekonomia eragiten duenean. Noski, ondorioak ditu eta jende batek gaizki pasatuko du, baina ez dut beste krisi ekonomiko batzuekiko desberdina izango denik uste. Baliteke apur bat gogorragoa izatea, baina ez dut uste beldurtu behariko ginatekeenik.

**Europak joan den astean onartu zuen errekupeazio fondo bat sortzea, baina zalantza asko daude poltsaren nolakotasunaz. Formula bat edo beste, oso desberdina izango da?**

Europako Batasunak fondo bat sortzea behar-beharrekoa da. Zalantza da nola egingo den eta nola finantzatuko den. Europako Batasunak beti du dirua lortzeko aukera eta beste askotan ere ipini du mahai gainean. Diru-laguntza eran edo kreditu eran etortzea, azken finean, antzerakoa da. Kasu bietan esango



Mari Carmen Gallastegi, artxiboko irudian. GOIENA

# "Eredu berde baterantz jauzi egin behar da lehenbailehen"

**MARI CARMEN GALLASTEGI EKONOMIAN KATEDRADUNA**

COVID-19 gaitzak eragindako krisi ekonomiko tenporala izango dela uste du Gallastegik, eta ez dela beste batzuetan bizi izandakoaren desberdina izango

dizute non dagoen jasotako dirua behin dena amaitzen denean; ez dago desberdintasun handirik. **Europako Banku Zentralak zein paper jokatu du?**

Lagungarri izango da. Sarri protestatzen dugu uste dugulako ez duelako nahikoa egiten, ez delako berdin jokatzeko guztiokin edo ez dagoelako presente zirkunstantzia guztietan, baina nik uste dut azken finean Europako Banku Zentralari esker denok sentitzen garela seguruago.

**Transferentzia zuzenak dira bidea?** Horiek dira modurik egokiena, zalantza barik. Azken finean, horrek bermatuko lukeelako

prozesuaren transparentzia. Sarri gertatzen da ez dugula jakiten zer ari den gertatzen, nahiz eta jakin-mina duen jendeak azkenean jakiten duen.

**Europak izan duen jokabidea egokia iruditzen zaizu? Bakoitzak bere interesen alde egin du hasieratik.**

Bai, noski, denok egiten dugun moduan. Edo etxean ez al gara haserretu anai-arrebon artean? Ez al ditugu guk ere gure interesak defendatzen? Azkenean, hori bera da European gertatzen dena; alegia, estatu bakoitzak bere interesak defendatzen dituela, familia guztiek egiten duten bezala. Horrek esan gura

du gertu gaudela gure ingurukoak erortzen ikusteko? Ba, ez, noski. Azkenean, hausnartu egiten dugu eta logikaz jokatu. Herrialde bakoitzak bere interesak defendatuko ditu beti, baina ez dut uste elkar laguntzeari utziko diotenik. Inori ez zaio interesatzen ondokoei gaizki joaterik eta kasu honetan ere Europako estatuei ez zaie interesatzen kide den herrialde bati gaizki joaterik.

**Euroa inoiz baino arrisku handiagoan dagoela irakurri dut. Ados zaude horrekin?**

Inolaz ere. Nik ez dut horrelako gauzetan sinisten. Euroa duela

10 urte baino askoz kontsolidatua dago eta ez dut arriskurik ikusten.

**Espainiako Bankuaren arabera, Espainiako BPG %6 eta %13 artean eroriko da. Zer esaten digu horrek?**

Espainiako Bankua ez da batere zehatza izan, pentsa zenbat zenbaki dauden 6tik 13ra. Nik uste dut estimazio horiek ezin direla horrela egin, eskatuko nioke zehaztasun gehiagorekin egitea aurreikuspenak. Azterketa askoz ere zehatzagoa izan beharko litzateke, hori ez da serioa. Oso desberdina izango da eragingo duen kaltea erorketa %6koa bada edo %13koa. Ez dago konparatzerik.

**Nola igarriko du herritarrak erorketa hori?**

Azken finean, sektore publikoak pauso bat atzera ematen du erorketak daudenean. Konponketak auzo eta hirietan, inbertsioak...

**Zor publikoa handitu behar da?**

Zor publikoa handitu egin behar da, zalantza barik. Horrek dakar sektore publikoak diru gutxiago izango duela hango eta hemengo inbertsioak egiteko, eta Europak laguntzen badu, gutxiago igarriko dute merkatuek; izan ere, merkatuek tenkatu egiten dira zor publikoa handiagoa denean. Alderantziz, merkatuek lasaia daude zor publiko txikiagoa denean eta horrek jendartean eragina izaten du.

**Enpresa txikiak eta ertainak izango dira gehien sufrituko dutenak?**

Zerbait ikasi badugu urte haueetan eta batez ere sektore publikoak zerbait ikasi badu da enpresa txiki eta ertainek ezin dutela sufritu eta lagundu egin behar zaiela. Beraz, nik uste dut bide hori landuko dela.

**Noiz hasiko gara errekupeazioa ikusten?**

Ez dakit erantzun bat ematen, baina honek irauten duenaren arabera izango da. Askok hitz egiten da U formako errekupeazioaz, V formakoaz... Niretzat horrek ez du garrantzirik; azken finean, nik uste dut ez dela gauza larririk gertatuko eta errekupeazioa iritsiko dela; lasai eragon behar dugu.

**Hirugarren Industria Iraultzaz hitz egiten asi dira aditu batzuk eta ekonomia iraunkor batera trantsizioa ezinbestekoa dela. Orain dela unea uste duzu? Ez gabilta berandu?**

Eredu berderantz jauzi egin behar dugu lehenbailehen.

Mundua suntsitzen ari gara eta, azkenean, lurra mendeku hartzen du. Nik lehenengoz gertatzen ari zenaren berri jakin nuenean pentsatu nuen: "Hara, hasi al da naturaren matxinada?". Gura dugun moduan erabili dugu planeta, suntsitu dugu abeltzaintza, nekazaritza, animaliak... dena. Ea behingoz konturatzen garen ez gaudela hemen lurra hondatzeko. Etorkizuneko belaunaldiek eskubidea dute mundu duin baten bizitzeko, eskubidea dute mendira joateko, hondartzara... eta dena ondo zainduta egoteko. Azken hamarkadetan lurrari egion diogunak ez du izenik.

### **Eta zuk uste duzu honek balioko digula horretaz jabetzeko?**

Esango nuke konturatzen hasiko garela lurrarekin lotutako guztia ezinbesteko dugula. Beraz, nik uste dut zaindutako elikadura baten aldeko apustua egin behar dugula. Lurra zainduta eta planeta zainduta. Lurra ematen duena aprobetxatu behar dugu, baina hura suntsitu gabe. Gure amek eta aitona-amonek ere jaten zituzten letxugak, eta bazituzten arbolak, eta ez zuten horrela suntsitu natura. Behar duguna hartu behar dugu, ez gehiago, eta zainduta. Nik uste dut orain dela unea aldatzen hasteko. Mentalitatez aldatu behar dugu. Umeek txiki-txikitatik ikasi behar dute animaliak ez direla zapaltzeko, natura gure alde dagoela eta lagun izan behar dugula. Eta uste dut oso garrantzitsua dela umetatik ikastea gauzak nondik datozen, nola eta zeini esker ditugun eta prozesuak nolako diren. Gure zilborrera begiratzen erakutsi baino gehiago, irakatsi beharko ligukete gauzak baloratzen, ulertzen, kritikoak izaten eta, batez ere, zaintzen.

### **"EZ DUT USTE BELDURTU BEHARKO GENUKEENIK"**

### **"EUROPAK EZ DIE KIDE DIRENEI LAGUNTZEARI UTZIKO"**

### **"BAIKORRA NAIZ, KONFIANTZA DUT GIZARTEARENGAN"**

### **COVID-19aren krisiaren kudeaketan estrategia desberdinak defendatu dituzte batzuek eta besteek. Esaterako, Eusko Jaurlaritzak ekonomiaren jarraitkortasuna defendatu du Espainiak ezarritako hibernazioaren kontra. Zein da bietan zentzudunena?**

Asko gustatu zait Eusko Jaurlaritzak nola defendatu duen aktibitate ekonomikoaren jarraitkortasuna. Espainiaren hibernazioa ez dut ulertu inondik inora eta uste dut Jaurlaritzak logikaz jokatu duela. Gauzak aztertuta eta ondorioetan pentsatuta.

### **Zerga-bilketa %20 jaitsiko da, Eusko Jaurlaritzaren esanetan.**

Hori asko da. Gehiegi. Izan ere, zerga-bilketa oso garrantzitsua da enpresa, eskola edo bestelako aktibitate asko sustengatzeko. Azkenean, derrigorrezkoak diren aktibitateetarako %20 gutxiago egongo dela esan gura du eta hori ez zaigu inolaz ere interesatzen. Eusko Jaurlaritzak dirua aurreztuta badu, baliteke %20 ko jaitsiera horrek horrenbeste ez eragitea.

### **Autogintzaren sektorean, berriz, eskariak %25 jaitsiko direla aurreratu dute. Zerbaki altua da gero.**

Niri hori esajerazioa iruditzen zait. Irakurri nuenean ez nuen sinistu. Gure industriak dagoeneko badaki horretaz. Ez da krisi bati aurre egiten dion lehenengo aldia, ez eta bigarrena eta ezta hirugarrena ere. Nik uste dut ez gaudela horren egoera okerrean. Egia da zerbait eroriko dela, baina hori saihestezina da ekonomian, beti daudelako momentu okerragoak; hortik denok kezkatzen, uste dut ezetz. Nik uste dut oso enpresa kontsolidatuak daudela, egiten dakitenak eta eskaria ere badagoela. Zerbait tenporala izango da. Ez dut uste eraginak denbora askoan iraungo duenik. Gauza okerragoak pasatu ditugu ekonomiaren ikuspegitik.

### **Esaterako?**

2008ko krisia okerragoa izan zen. Input produktiboak falta ziren eta orduan gaizki pasatu zuten enpresek. Azkenean, konpondu zen egoera.

### **Baikor ikusten zaitut.**

Bai. Uste dudalako Euskal Herrian jendea langilea dela, enpresek badakitela zela egin behar diren gauzak eta konfiantza osoa dut gizartearengan. Ez dut uste ona denik gaizki pentsatzea, ez digu onik egiten.

# 28 milioi euro jarduerak ekonomikoa babesteko

Foru Aldundiak 28 milioi euro bideratuko ditu Gipuzkoan enplegua eta jarduerak ekonomikoa babesteko; etorkizuneko enpresa proiektuak sendotzeko, tokiko kontsumoa laguntzeko eta enplegua sortzera bideratuko da dirua, besteak beste

### **M.A. ARRASATE**

Gipuzkoako Ekonomia Berreskuratzeko Plana aurkeztu zuen martitzenean Gipuzkoako Foru Aldundiak. 28 milioi euroko aurrekontua duen neurri eta programa sorta batzen du Planak. Ahaldu nagusi Markel Olanok esandakoen arabera, "batez ere enpresa txiki eta ertainek epe luzera lehiakortasuna eta iraunkortasuna indartzeko ahalegin guztiak" egingo ditu Aldundiak.

85 milioi euro gutxiago izango ditu hasiera batean adostutako aurrekontu-sailak, baina, Olanoren esanetan, neurriak ez die gizarte politikari eta ekonomiaren suspertzeari eragingo; gainerako sail eta departamentuetan egin dituzte doikuntzak. Ekonomia Berreskuratzeko Planerako 28 milioiko aurrekontua ez da nahikoa, Olanoren ustez, baina zor gehiago hartzeko aukerarik ez dutela adierazi zuen agerraldian.

### **Diru banaketa**

Ekonomia, Turismo eta Landa Inguruneko diputatu Imanol Lasak azaldu zuen 28 milioi horiek nola banatuko diren. Haren esanetan, planak enpresen "kezka nagusiei" erantzun

ten die: "Likidezia faltari eta enplegua eusteari", hain zuzen. Hala, 4,8 milioi euro enplegua sortzeko eta finkatzeko izango dira, "pertsona kalteberenei eta ERTEek kaltetutakoei arreta berezia" eskainiko zaie. Era berean, beste 2,6 milioi bideratuko dira enpresei laguntzeko mekanismoak ezartzeko, batez ere txikiei; berregituraketa prozesuak laguntzeko; likidezia hobetzeko jarduerak egiteko; eta enpresa txikien finantzaketa lerro bat ezartzeko. Etorkizuneko enpresa proiektuak sendotzeko laguntza izango da funtsezko ildoetako bat, 14 milioi eurokoa, eta honako ekintza hauek jasotzen ditu, besteak beste: I+G+B bultzatzea Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarearen bidez, espezializazio adimenduneko RIS3 estrategiarekin bat datozen jardueren bidez; barne-ekintzailatza; kudeaketa

### **3 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU FORU ALDUNDIAK TOKIKO KONTSUMOA LAGUNTZEKO**

eredu dualak indartzea; pertsonen enpresetan parte hartzeko politikak; enpresen nazioarteko presentzia finkatzea; eta enpresa jardueraren jarraitkortasuna sustraitzea. Bestetik, 3 milioi euro tokiko kontsumoa laguntzeko izango dira. Hain zuzen, azken hori da, Lasaren esanetan, neurri berrienetakoa. Horretarako, udalekin eta elkarrekin akordioak egitea da helburua, kontsumo bonuak sustatzeko eta merkataritza eta ostalaritzari laguntzeko. 28 milioi euroko poltsa horretatik beste 1,5 milioi zuzenduko dira lurraldeko enpresen garapenerako. Bukatzeko, 2,1 milioi euro lurraldeko sektore estrategikoendako izango dira, hala nola mugikortasun elektrikoa, 4.0 industria eta zahartze osasungarrirako.

### **Konpromisoa, ezinbestekoa**

Diputatu nagusi Markel Olanok azaldu zuenez, planaren helburua "ahulenak babestea" da, baina, horretarako, "portaera kolektiboa" aldatu beharra dagoela dio, eta, bide horretan, herritarren konpromisoa eskatu zuen. Hala, ostalaritza eta merkataritza babesteko bertako produktuak kontsumitzera dei egin zuen.

### **Lehentasan krisian**

Ekonomia krisialdi "oso indartsuan" murgiltzen ari dela azaldu zuen Olanok, eta adituek dagoeneko egoeraren larritasunaz ohartarazi dutela. Horregatik, egoerak okerrera egin ez dezan herritarren ardura maila handia dela azaldu du, eta agintarien aholkuak jarraitu behar direla. Imanol Lasak, gainera, oraingoz lehentasuna egoerari eustea dela azaldu zuen, eta ondorengo pausoa susperraldiari ekitea izango dela.



Imanol Lasak, Markel Olanok eta Jose Ignacio Asensio, martitzeneko agerraldian. GFA



Andoni Gorosabel Donostian dago konfinamendua betetzen; erretratuan, korrika egiteko zinta ondoan. ANDONI GOROSABEL

# "Futbola ez da aldatuko, kontaktuzko kirola da"

ANDONI GOROSABEL REALEKO JOKALARIA

**FUTBOLA** Arrasateko atzelariak 2021eko ekainean amaituko du Realarekin duen kontratua, baina lasai dago, konfinamendu egoeran horrek ez dio lorik kendu

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Donostiako pisuan dago Andoni Gorosabel (Arrasate, 1996) konfinatuta. Realeko jokalaria prentsaurreko birtuala egin zuen joan den astean talde txuri-urdina jarraitzen duten komunikabideekin, eta aste barruan GOIENAKo deiar erantzun dio. Datorren urtean amaituko zaio Realarekin kontratua, baina bizitzea egokitu zaion sasoi honetan, horrek ez dio loa kentzen. **Zer moduz daramazu konfinamendu egoera?**

Ondo, lasaitasunera itzultzeko gogoz, guztiok moduan. Egia da bakarrik nagoela etxean, eta konpainian bazaude, akaso, eramangarriagoa egiten dela. Baina dagoeneko ohituta nago bakarrik egotera, ez dut arazorik.

**"REALEKO ZALEA NAIZ TXIKITATIK, ETA HEMEN URTE LUZUZ JARRAITZEA DA GURA DUDANA"**

**Kalera irteteko gogoz, eta baita Arrasatera etortzeko, edo?**

Sarri joaten naiz herrira bisitan, etxeokengana, lagunengana... Donostiatik gertu dago Arrasate.

**Zer moduz daramazu etxean entrenatzearena?**

Beno, ez da Zubietan entrenatzea bezala. Klubetik baliabide guztiak jarri dizkigute gure eskura, korrika egiteko zinta daukat etxean, eta baita bizikleta estatikoa ere, nahiz eta, egia esan, bizikletari ez diodan grazziarik ikusten,

gurago dut korrika egin... Bidalten dizkiguten etxeko lanak egiten ditut, baina bai, apur bat nekagarria ere bada. Baloiarekin kontaktua izatea, taldekideekin egotea... Hori igartzen dut faltan, normal entrenatzea.

**Eta horrez gain, aste hauetan zer igarri duzu faltan? Izan ere, esango nuke sasoi honetan gauza txikiak zenbat betetzen gaituzten konturatzeko gaituztena.**

Zalantza barik. Alde batetik, esan dudan moduan, futbolaren hutsune handia susmatzen dut. Horrekin batera, etxeokoen egotea, lagunekin bazkaltzera joan ahal izatea... Futboletik harago, egunerokotik deskonektatzeko egiten ditugun gauza txiki horiek igartzen ditut faltan..

**Badirudi datozen egunetan kirola egiteko baimena emango duela Gobernuak. Gehienondako zaletasuna da kirola, zuendako lanbidea da.**

Egia da guk ere ez dakigula askorik. Suposatzen dut egunak aurrera joan ahala joango direla zehazten, eta klubetik ere adieraziko digute zer egin genezakeen kalera korrika egitera irten gaitzkeenean. Egunerokoa eramangarriagoa izango da, segurua.

**Aste hauetan asko egin da berba futbolaz. Liga dagoenetan amaituko ote den, geratzen diren partiduak publiko barik jokatu ote diren... Zer komentatzen duzue taldekideen artean?**

Ikusita taldea ze joko-maila erakusten zebilen, jokalaria liga osorik jokatu gura dugu. Beste kontu bat da ze baldintza dauden hori behar den moduan egin ahal izateko.

**Hain zuzen, konfinamenduaren aurretik maila izugarria erakusten zebilen Real. Beldur apur bat ere emango du sei asteren ostean oster hastek... Nahiz eta egia den geldialdia denondako izan dela berdina...**

Bai, hori da. Taldea oso maila onean zegoen, eta egia da geldialdi luzea izan dugula, baina talde guztiak geratu behar izan dute, eta guztiok kostako zaigu oster ere lehengo erritmoa hartzea; horrenbestez, besteekin

**"MARTIN ÖDEGAARD NABARMENDUKO NUKE; TALENTUA DU, BAINA SEKULAKO LANA EGITEN DU"**

alderatuta gure futbol mailak ez luke zertan behera egin. Lehen-gora lehenbailehen itzultzen saiatuko ginatke.

**Kopako finala ere berbagai izan da. Zelan bizi izan zenuen egun hura? Izan ere, zaleek kolore apur bat eman zioten egunari...**

Egun horretan, oso presente izan nuen Sevillan egon behar-ko genukeela guretak horren garrantzitsua den finala jokatzeko. Zaleak aspaldi itzaroten dabilzan partidua da, Athleticen kontrako derbia... Partidu oso garrantzitsua da, eta bai, *Play*-an jokatzeko, lagunekin berba egiten... Halaxe joan zitzaidan eguna. Baina beno, uste dut egun hori iritsiko dela, denak gaude ilusio galantarekin.

**Zer da hobe, Kopako finala lehenbailehen jokatzeko nahiz eta zale barik izan ala, esaterako, datorren urtera itxarotzea?**

Pertsonalki uste dut finalak publikoarekin jokatu behar direla, bestela ez du-eta zentzurik. Euskal Herri osoarendako jai bat izango da, euskal derbi bat Kopako finalean, eta bereziki gure jendearendako gauza handia izango litzateke, urteak daramatzagulako halako hitzordu baten atzetik. Horrenbestez, harmailetan zalerik barik jokatzeko erabakitzen badute, albiste txarra izango da.

**Arlo pertsonalera etorrira, seguruena ez duzu aurtengo denboraldian nahiko zenukeen beste jokatu [hamar partidu jokatu ditu, horietako lau Kopan], baina berdegunera irten zaren bakoitzean maila onean jardun duzu. Eta hori ez da erraza taldea sekulako maila erakusten dabilenean.**

Bai; azken batean, horretarako egiten dugu egunero lan, entrenatzaileak erabakitzen duenean berdegunera salto egin eta gauzak ondo egiten saiatzeko. Alde horretatik pozik nago, taldearen mailan egon ahal izan naizelako. **Zerk egiten dizu ilusio handiagoo? Ligako laugarren postuak ala Kopan finalera iritsi izanak? Izan ere, Kopan protagonismo handiagoo izan duzu.**

Biak dira talde lanaren emaitza. Ligan horren aurrean egoteagatik oso pozik nago, taldeak izan duen erregulartasuna erakusten duelako. Eta Kopa hasieratik hartu genuen seriotasun handiarekin, bagenekielako kanporaketak partidu bakarrera jokatu aukera oso ona zela lorpen polit bat egiteko.



### Aurtengo denboraldian jokatu dituzun norgehiagoketatik, ze momenturekin geratzen zara?

Denek nabarmentzen dute Bernabeun jokaturako partidua, eta bai, seguruenik partidu horrekin geratuko nintzateke ni ere. Baina horrekin batera oso gogoan dut Mirandesko partidua, Kopako finalerako txartela bertan lortu genuelako, eta oso partidu berezia izan zen niretako. Eta baita Alavesen kontra jokatu nuen denboraldiko lehenengo partidua ere.

### Bernabeu ez da edozein plaza...

Ez, partidu berezia izan zen, eta jokalaria halakoetan sumatzen du entrenatzailearen konfiantza. Hasierako hamaikakoan jokatu behar nuela jakin nuenean urduritu egin nintzen apur bat. Ondoren, estadiora iristen zara eta ikusten duzu ikaragarria dela. Baina beroketa ariketak egiten hastearekin batera poliki-poliki partiduan sartzen hasten zara, eta behin jokatzen hastekoan kontu horiek guztiak albo batera geratzen dira.

### 2021eko ekainean amaituko da Realarekin duzun kontratua. Loa kentzen dizu horrek?

Ez, ni nire egunerokoan zentratuta nago, eta halako kontuak nire agentearen eskuetan uzten ditut. Egun hauetan sarritan egin izan dugu elkarrekin berba, eta lasai nago. Nire ametsa Realean jokatzen jarraitzea da, umea naizetik izan naiz Realekoa eta hemen denbora luzez geratzea da gura dudana. Eta entrenatzailearen eta klubeko zuzendariaren konfiantza igartzen dut; horrenbestez, ikusiko dugu.

### Aurtengo denboraldian etorri diren jokalarien artean, nork harritu zaitu gehien?

Bada, egia esan behar badizut, kanpotik etorri diren jokalariei

guztiak oso maila onean egon dira, hori da nabarmenduko nukeena. Baina guztien artean taldekide bat nabarmendu behar ko banu, Martin Ödegaard esango nizuke. Batetik, sekulako maila daukalako, baina, bestetik, maila horretan egoteko egunero Zubietan sekulako lan mordo egiten ikusi dudalako, horrek harritu nau gehien.

### Alegia, elitean talentua bakarrik ez dela nahikoa.

Ez, Lehenengo Mailan ez, hori garbi daukat. Maila honetan nahiz eta talentudun jokalaria izan lan handia egin behar da gorenean egoteko, edo jokalaria moduan diferentzia markatzeko; hau oso kategoria zorrotza da eta kontrario guztiak oso maila onean daude.

### Rafael Ramos Espainiako futbol taldeetako medikuen elkarteko presidentea da, eta aste barruan *El País* egunkarian adierazi du futbolera bera aldatu egingo dela koronabirusaren eraginez: kontaktu gutxiago jokalarien artean, beste modu bateko kornerrak, protestak segurtasun neurriak zaintzen... Kuriosoa irudituko zait.

[Barre] Ez dakit, ba... Uste dut futbolak futbola izaten jarraituko duela. Ez dut imajinatzen kirol hau kontaktu barik. Defentsa lanean kontrarioaren gainean egon behar badut, ez dut posible ikusten hori segurtasun distantzia errespetatuta egitea, eta ez diot sarrera bat egiteari utziko kontagiatzeko beldur naizelako... Ez dakit, gurea ez da bakarkako kirola, talde kirola da eta kontaktua dago. Horrenbestez, ez dakit zenbateraino aldatuko den futbola. Egin beharko dutena da futboleko segurtasun zuzen zuzen neurriak hartu eta baliabideak jarri.

# Konfinamendu osteko lehen kirol jarduerak

**KIROL GOMENDIOAK** Herritarrek sei aste daramatzate konfinamenduan murgilduta, eta, azken ordukorik ez badago, zapatuan lehenengoz egin ahal izango da kirola aire librean. Adituek diote neurritz egiteko, gorputzak bi aste behar ditu-eta egokitzeko

### X.U. ARRASATE

Sanchezek azken orduko zuzenketarik egiten ez badu, zapatuan herritarrek kirola egitera irten ahal izango dira. Jakinekua da bakarka egin beharko dela kirol jarduera, baina GOIENAKO erredakzioa itxi orduko Gobernuak zehazteke zituen neurri gehiago: denbora, gehienezko distantzia, mendira joatea posible izango den ala korrika egiteko eta bizikletan ibiltzeko arau berberak izango ote diren. Asko dira, baina, zapatuko egunaren zain daudenak. Kontuz, baina, lehenengo egunetako lan-saioekin, denbora asko izan da-eta aire zabalean kirolak egin barik.



Kirola egiteko ere pertsonen arteko distantzia zorrotz neurtu beharko da. GOIENA

### Egokitzapen fasea errespetatu

"Konfinamendua hasi genuenean *indoor*-eko kirolera edo kirola etxe barruan egitera ohitu behar izan ginen, eta orain, kontrako bidea egin behar dugu, *outdoor* edo kirola kanpoan egitera ohitu behar dugu. Bada, aste hauetan etxean kirola egiten fin ibili direnei esango nieke lehenengo egunetan lasai hartzeko, gorputzak pare bat aste behar ditu-eta egokitzapen faserako", dio Athloneko Kepa Larrea prestatzaile fisikoak.

Izan ere, guztien abiapuntua ez da berbera izango: "Aipatu

moduan, sei aste hauetan batzuk fin ibili dira etxean kirola egiten, prestatzaileek agindutakoa betetzen, eta horiek ez zuten askorik galduko. Baina egun batzuk beharko dituzte hezurdura, tendoiak, gorputzaren estruktura ostera ere kanpoko kirolera egokitzeko. Hala, arrabola egiten ibili den mendi lasterkariak, esaterako, denbora apur bat behar du ostera ere egokitzeko, eta horregatik diot hobe dela lasai hastea, lesioak azaltzeko aukera txikiagoa izango da eta".

### Kirol ohiturak hartzeko aukera

Larreak, baina, nabarmentzen du konfinamendua aukera ederra izan dela kirol ohiturak hartzeko: "Ea aste hauetan etxean kirol apur bat egin dutenek jarraitzen duten, orain motibazio handiagoa dute kanpora irten ahal izango direlako. Gainera, normalean arlo aerobikoa lantzeko joera izaten dugu, oinez paseatu, korrika egin, bizikletan ibili... Baina konfinamenduan indar ariketa gehiago egin dugu etxean, eta horiei ere jarraipena eman behar zaie".



Realeko jokalaria, Real Madrilen kontrako kanporaketa gaintituta. REAL SOCIEDAD

### MENDI LASTERKETAK Arrasate-Udalatzek ez du data berririk

Apiril hasieran ziren Arrasate-Udalatz egitekoak, eta konfinamendu egoerak bertan behera harrapatu zuen hitzordua. Hala, Mondraitzeko lagunek adierazi dute badutela udazkenerako dataren bat buruan, baina konfinamenduak iraun bitartean ez duela zentzurik datarik aurreratzeak: "Ez dugulako informazioz, ezta inolako bermerik".

### ZIKLISMOA Bertan behera geratu da Kantoikrit lasterketa

Uztailaren 18an egin behar zuten Kantoikrit piñoi finkodun lasterketa Oñatin, baina egungo egoera ikusita antolatzaileek lasterketa bertan behera uztea erabaki dute. Kontuan hartu behar da lasterketa horretara nazioarteko ziklistak ere etortzen zirela. Datorren urtean lasterketa antolatzen jarraitzeko asmoa erakutsi dute antolatzaileek.



lazko edizioaren une bat. GOIENA

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE Euskal Editoreen Elkarteak adierazitakoaren arabera, sektorean %20-25eko galerak izango dira. "Aurreikusitako salmentak 67.000.000 euro dira, eta 13.400.000 euroko galerak kalkulatu ditugu; eta euskarazko salmentei dagokienez, 38.100.000 euro zen aurreikusitakoa, eta 7.620.000 euroko galera izango dela uste dugu. Liburuaren Eguneko datuak ez ditugu oraindik bildu; Liburu Ganbara eta liburu-denden elkartearekin lanean ari gara galera zehatzak zenbartzeko. Aipatutako kopuru horiei soldadak eta gastu orokorren galerak ere gehitu behar zaizkie; eta alarma egoera luzatzen bada, jakina, handiagoak izango dira", azaldu du elkarteak idazkari tekniko Ana Urrestarazuk.

Egoerak lehenik ere ahula zen kulturaren sektorea oraindik ere gehiago kolpatuko duela dio Elkar argitaletxeko Olatz Osak: "Seguru eragingo diola hainbat proiekturi. Eginahal guztiak egingo ditugu estrategikoak diren proiektuei eusten eta berriak abian jartzen, baina horretarako ezinbestekoa izango da ekoizlearen ekimena, instituzioen babesa eta laguntza, eta gizarteak, oro har, kultur eta hezkuntza proiektuei lehentasunezko balioa ematea".

#### Liburu-bonuaren eskaera

Euskal Editoreen Elkarteak gremio elkarte da, baina enpresaz osatuta dago; argitaletxeak dira euren bazkideak, handiak zein txikiak. "Gurean, euskaraz argitaratzen duten argitaletxeak daude, guztira argitalpengintza komertzialaren %95".

Elkartearen helburu nagusia "euskal liburuaren defentsa eta sustapena eta bazkideen babesa,



Adin eta zaletasun askotariko irakurleendako aukera zabala dago euskal literaturaren eskaintzan. A.A.

## Pandemiak edizio planak berregitera behartu ditu euskal argitaletxeak

Ekoizleen ekimena, instituzioen babesa eta laguntza eta gizarteak kultur proiektuei lehentasunezko balioa ematea beharrezko ikusten dute sektorekoek, aurrez "egoera prekarioran" zegoen liburu-katean alarma egoerak eragindako kalteei aurre egiteko

ordezkaritza eta elkarren arteko koordinazioa" da. Lanik ez zailela falta erakutsi du Urrestarazuk: "Bazkideei helarazteko ahalik eta informazio zabalena biltzen ari gara, batetik, eta baita hainbat txosten ekonomiko egiten ere, administrazioarekin hitz egiteko eta laguntza moduak elkarrekin bilatzeko"; eta hauxe gaineratu du Elkar argitaletxeak: "Pentsatu behar dugu sektoretik egindako eskariak aintzat hartuak izango direla, ezinbestean beharko ditugulako aurrera egiteko, bai sortzaileen-

tzat, nola argitaletxe eta liburu-dendentzat ere".

Eusko Jaurlaritzari Liburu-bonua eskatu diotela azaldu du Editoreen elkarteak idazkariak: "Oso lagungarria izan daitekeelako eskatzen dugu, beste sektoretan egiten duten moduan. Beharrezko pizgarritzat jotzen dugu pixkana-pixkana normaltasunera itzultzeko kontsumoari dagokionez, bai liburu-dendetan, bai liburuaren balio-kate osoan. Ekarpen kulturalaz gainera, Liburu-bonuak bere ekarpena egingo lioke Euskal Herri-

ko ekonomiari, lanpostuak mantentzen lagunduko luke eta zerga bidezko diru-sarrerak sortuko lituzke administrazio publikoentzat.

#### Edizio planak berregiten

Itxialdia hasi zenetik telelanean ari dira Elkar argitaletxeak: "Oso denbora laburrean antolatu behar izan genuen guztia etxetik jardun ahal izateko; eta etengabe egiten ditugun bilerak, koordinazio lanak eta bestelako egitekoak *online* egitera ohitu behar izan dugu, pixkanaka".

Aurtengo lehen liburu batzuk argitaratuta edo argitaratzeaz zituzen. "Inprentatik jasota eta aurkezteko prest, eta horiek arlo komertziala martxan jarri bezain pronto plazaratuko ditugu. Gainerakoan, hartutako konpromisoari eusten saiatuko gara; beraz, gure asmoa argitaratzea da, baina aurrerago, liburu-dendak eta arlo komertziala itxita dauden bitartean ez baitu zentzurik ekoizpena plazaratzea".

Proiektu nagusiei eusteko ahalerak egiten ari direla gaineratu du Osak, baina "ezinbestean" edizio planak moldatzen eta berregiten ari direla gaineratu: "Uda aurretik argitaratzeko asmoa genuen ekoizpen batzuk ezingo dira orain argitaratu, eta, beraz, aurreragorako utzi beharko ditugu, ezinbestean. Honek guztiak udazkeneko edizio planean ez ezik datorren urtekoan ere eragingo du".

Euskal Editoreen Elkarteak ere urteko plangintza moldatzen ari dela kontatu du idazkariak: "Aurrez aurre egiten ditugun ekintzak bertan behera gelditu dira, eta aztertzen ari gara formula berriak. Beste batzuk erori egin dira; adibidez, Bolognako Liburu Azoka. Ikusiko dugu zer gertatzen den guretzat hain garrantzitsuak diren Frankfurt eta Guadalajarakoekin. Zer esanik ez Durango Azokarekin".

Julen Ribas ilustratzaile arrasatearrak ere aurkezteko puntuan zuen lana atzeratu egin dela kontatu du: "Frantziako argitaletxe batendako Frantziako Iraultzari buruzko komiki trilogia bat egiten ari naiz beste ilustratzaile batzuekin batera; marraztea eta tinta ematea da nire lana. Bi liburu eginda daude, bigarrena zen orain aurkeztekoa, baina atzeratu egin dute;

## SASOIAN EGOTEKO SAIOAK

GOIENA TELEBISTA

EGUNERO, 11:00ETAN, OSASUN ARIKETAK  
EGUNERO, 17:30EAN, ADINBERRI

goiena"  
Zu hemen zaude.



## "Superbibilitatetik badu, eta baita liburu pilarekin adiskidetzera ere"

ENEKO BARBERENA IDAZLEA ETA LITERATURA-ZALEA

Goiena.eus atariko blogen atalean *Sagasti Etxea* izeneko dauka Eneko Barberenak, eta han idazten ditu literaturarekin eta liburuekin lotutako iruzkinak. **Zerk bultzatuta hasi zinen egunero bloga elikatzen?** Esango nuke bulkada bat, barrutik irtendako zerbait, izan zela; hortaz, alde batetik, badu superbibilitatetik apur bat, eta, bestetik, nire liburu pilarekin adiskidetzeko ariketa bat ere bada; liburu batzuk berriz hartu eta irakurri bakoak irakurri eta komentatzea idazle batendako sasoiaren egoteko ariketa bat da. **Denerako liburuak aukeratu dituzu. Zelakoak, esaterako?** Gehienak euskarazkoak eta gaztelaniazkoak dira, baina katalanez idatzitakoren bat ere komentatu izan dut; katalana ikasten ari naiz eta nire burua irakurtzera behartzen dut.



ITSASO PAGOAGA

### Eta zelako esperientzia ari da izaten?

Ariketa interesantea da, bai; batetik, irakurlearendako pasarteren bat edo beste hautatzen dudalako, eta, era berean, eguneroko gaiekin edo nire bizipenekin lotzen saiatzen naizelako. Ariketa xumea da, badaude Euskal Herriari kritika egiten dioten adituak, baina nik beste liga baten jokatzeko dut. Nirea entretenimendua eta iritzi terrenoa da gehiago.

### Irakurle zehatzik izaten duzu buruan?

Batzuetan, bisualizatzen duzu; eta beste batzuetan, gehiago da norberak interesante uste duen gogoeta bat botatzea. Azken finean, zentzu horretan, irakurle batek testu bat, zorionez, modu askotan interpreta dezake, eta nik egiten dudana da niri piztu didan hori komentatzea.

### Ze maiztasunekin idaztea da zure asmoa?

Nahiz eta ia egunero egin dudana berri bat, ez diot nire buruari zama hori jarri gura; izan ere, bestela, ikus zaitezke edozer gauza idazteko beharrean. Bi eguneko etena egin nuen aurreko astean, sortzaileek deitutako grebarekin bat egiteko, baina, bestela, ia egunero idazten ahalegintzen naiz. **Blogaz gainera, beste idazlanik baduzu orain?** Zerbait badaukat idatzita, eta ari naiz sortzen ere, ikusiko da argitaratzerik izango den gero. Alarma egoerak asko korapilatu du dena, zertan gauzatuko den inork ez daki; egoera serioa da.

hala ere, lanean jarraitzen dugu, hirugarrenarekin ari gara, irailera amaitzeko esperoan".

### Dirulaguntzetarako zailtasunak

"Finantza laguntzak badaudela baina ez dela erraza horiek eskuratzea" dio Urrestarazuk: "Enpresa txikiek -argitaletxe eta liburu-denda- dute arazo handiena, eta beldur gara horiekin. Bestetik, kulturako autonomoentzat badira laguntzak ere, baina bakarrik epigrafe batzuk onartzen ari dira. Zaila da hau guztia".

### "UDAZKENEKO ETA DATORREN URTEKO EDIZIO PLANA BERRIZ EGITEN ARI GARA"

OLATZ OSA  
ELKAR ARGITALETXEA

### "BERBA EGINDAKO PROIEKTUAK DITUT, BAINA IKUSI BEHAR LOTZEN DITUDAN"

JULEN RIBAS  
ILUSTRATZAILEA

Langile autonomoendako dagoen poltsatik jasotzen ari dela dio Ribasek, baina aurreragoko proiektuekin arduratuta dagoela gaineratuta: "Orain, lana dugu, eta lasai nago alde horretatik, beste batzuk okerrago daude; baina zer gertatuko da aurretik berba eginda baina sinatu barik dauzkagun lanekin?".

Osak ere sortzaileak babes barik daudela berretsi du: "Kezkaz bizi dute egoera, nola ez. Honek guztiak oraindik ere beraien etorkizuna gehiago zailduko duen beldur. Bada garaia,

### "LIBURU-BONUA ESKATU DIOGU EUSKO JAURLARITZARI, PIZGARRI MODUAN"

A. URRESTARAZU  
EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA

### "ARDURATUTA NAGO IDAZTEAZ BIZI DIRENEKIN ETA SEKTOREKO LANPOSTUEKIN"

ENEKO BARBERENA  
IDAZLEA

gizarte bezala, horien guztien ekarpena balioesteko".

Idazleen artean egoera ezberdinak daudela dio Eneko Barberenak: "Idaztea, niretzako, afizioa da; euskara teknikaria naiz ogibidez, baina arduratuta nago idazteaz bizi direnekin eta literaturaren inguruan dagoen lanpostu horiekin guztiekin zer gertatuko den, ea laguntzarik izango den horiendako guztien dako; izan ere, euskal literatura eusten duen jende kopurua ez da horrenbeste, asko dagoeneko esfortzu handia egiten ari dira mantentzeko dagoen apur hori, eta haize bolada batek kalte egiteko aukera du".

### Atzerrira begira

Beste erkidego batzuetako elkarrekin harremanetan daudela dio Urrestarazuk. "Galeuska osatzen dugunon artean, bereziki. Egoera antzerakoan daude; hizkuntza gutxituetan argitaratzen dutenen panorama beltza da. Adi gaude beste herrialde batzuetan nola jokatzeko ari diren: Belgikan ez dira liburu-dendak itxi eta Frantzia ireki egingo dituzte. Herrialde aurreratuak sektoreari lehentasuna ematen diote".

## Goiena Klubaren txokoa

### Hauek dira apirileko irabazleak!

#### SPC HEAVEN 10.1 TABLETA

Juan Miguel Lizarralde Lezeta (Antzuola)

#### HARREMAN DENDAKO OTARREA

Maria Jesus Epelde Epelde (Bergara)

#### ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Zorione Jausoro Izurategi (Aretxabaleta)

Eduarne Barrutia Urreta (Aretxabaleta)

Mikel Orobengoa Crucelaegui (Arrasate)

#### LASA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Lurdes Larrañaga Iturbe (Arrasate)

#### SARIAK JASOTZEKO:

**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Arazotz Auzoa, Oñati, 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (Auzotz dituzue hitzordua egiteko). Harreman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara, Arrasateko Eroski hipermerkatuan duan dendara. **Saria jasotzeko\***, zator GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, **BAZKIDEAREN TXARTELA** erakutsi edota **BAZKIDE ZENBAKIA** jakitera eman behar da. GOIENA Otarra Lizentziaduna 31, Arrasate, 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik agurak: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00.

\*COVID-19a dela eta, alarma egoera pasatu ostean disfrutatu ahal izango da sariak

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### LASA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!  
Parte hartzea: Maiatzaren 5era arte

943 25 05 05 klubak@goiena.eus

KLUBA Jatetxea  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...




2020ko bazkidetza: 56€  
Deitu: 943 25 05 05  
klubak@goiena.eus

**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



OROIGARRIA

**Juanje  
Fernandez Irastorza**  
'Pitu'



2020ko apirilaren 26an hil zen.

*Maite zuen bizia,  
maite zuen lana,  
maite zuen jendia.  
Altxor handi bat joan zaigu,  
baina utzitako haziak  
bizirik iraungo du gure artian.*

Poteo Frontoiko lagunak!  
Bergaran, 2020ko apirilaren 30ean.

OROIGARRIA

**Juanje  
Fernandez Irastorza**  
'Pitu'



2020ko apirilaren 26an hil zen.

*Zintzo, alai eta laguntzeko beti prest.  
Plazer bat zure lagun izatea.  
Gaur hain urrun eta hain gertu.  
Gurekin betirako.  
Eskerrik asko, Juanje!*

'La cuadri'.  
Bergaran, 2020ko apirilaren 30ean.

OROIGARRIA

 **Arantzazu  
Mendizabal Otaduy**




*Hartu zaitut besotik  
Oso gertu nigandik  
Elkar eramateko  
Ibai aldamentetik*

*Dantzan, dantzan,  
musuen hondartzan  
Dantzan, dantzan,  
arimen balantzan...*

Ane, Blanca, Lupe, Mariasun, Miren.  
Bergaran, 2020ko apirilaren 30ean.

OROIGARRIA

**Juanje  
Fernandez Irastorza**  
'Pitu'




2020ko apirilaren 26an hil zen, 57 urte zituela.

*Gaur bihotzian geratzen die zurekin bizitako momentuak.  
Zenbat tarte on!  
Elkarrekin eindako zenbat barre.  
Zure oroitzapenak  
irribarre eraingo dosku.  
Bidaia ona izan, Pitu!*

'Alegre pandi'.  
Bergaran, 2020ko apirilaren 30ean.

OROIGARRIA

**Juanje  
Fernandez Irastorza**  
'Pitu'




2020ko apirilaren 26an hil zen, 57 urte zituela.

*Irribarre bat libre han  
Ihesi doa airean  
zure ametsak gure eginda  
segiko dugu bidean.*

Primiko kuadrilla.  
Bergaran, 2020ko apirilaren 30ean.

OROIGARRIA

**Antonio  
Gruzeta Axpe**



2020ko apirilaren 25ean hil zen.

*Zure irribarre eta umorea ez dugu inoiz ahaztuko.  
Beti egongo zara gure bihotzetan, tio Capi!*

Joseba, Susana, Ibai eta Enara.  
Eskoriatzan, 2020ko apirilaren 30ean.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**  
edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

**Goiena: irakurriena Debagoiengan.**

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

- ARRASATE** Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
- BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
- OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
- ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
- ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



ASTEA GOIENA TELEBISTAN



IZARO

IZAROREN KONTZERTUA

'Berezia' Zapata, 22:00



GARI

GARIEN KONTZERTUA

'Berezia' Domeka, 22:00

EGUBAKOITZA, 1

- 08:00 Txantxariak
- 08:30 Kantari Oñati 2
- 09:00 Kantari Oñati 3
- 09:30 Kantari Arrasate 7
- 10:00 Hemen Debagoiena
- 11:00 Osasun ariketak
- 11:30 Hala Bazan: Kirola 4
- 12:00 Hemen Debagoiena
- 13:00 Kantari Arrasate 8
- 13:30 Kantari Oñati 2
- 14:00 Hemen Debagoiena
- 15:00 Astearen errepasoa
- 15:30 Kantari Oñati 2
- 16:00 Astearen errepasoa
- 16:30 Zirikatzen 6
- 17:00 Astearen errepasoa
- 17:30 Adinberri 2
- 18:00 Hemen Debagoiena
- 19:00 Kantari Oñati 3
- 19:30 Elkarrizketa: Lide Hernando
- 20:00 Hemen Debagoiena
- 21:00 Hala Bazan: Kirola 4
- 21:30 Etxetik plazara
- 22:00 Hemen Debagoiena
- 23:00 Kooltur: Pelax

ZAPATUA, 2

- 08:00 Zirikatzen 6
- 08:30 Txantxariak
- 09:00 Kantari Oñati 4
- 09:30 Kantari Arrasate 9
- 10:00 Kantari Oñati 5
- 10:30 Zirikatzen 6
- 11:00 Osasun ariketak
- 11:30 Etxetik plazara
- 12:00 Hemen Debagoiena
- 13:00 Beste aldean
- 13:30 Zirikatzen 6
- 14:00 Hemen Debagoiena
- 15:00 Elkarrizketa: Lide Hernando
- 15:30 Elikatu 3
- 16:30 Kooltur: Pelax
- 17:30 Adinberri 3
- 18:00 Harri salda
- 19:00 Zirikatzen 6
- 19:30 Etxetik plazara
- 20:00 Hemen Debagoiena
- 21:00 Harri salda
- 21:30 Astearen errepasoa
- 22:00 Kontzertua: Izaro
- 00:30 Hemen Debagoiena

DOMEKA, 3

- 08:00 Etxetik plazara
- 08:30 Txantxariak
- 09:00 Zirikatzen 6
- 09:30 Kantari Arrasate 9
- 10:00 Kantari Oñati 4
- 10:30 Kantari Oñati 5
- 11:00 Osasun ariketak
- 11:30 Harri salda
- 12:00 Elkarrizketa: Lide Hernando
- 13:00 Etxetik plazara
- 13:30 Hala Bazan: Kirola 4
- 14:00 Elkarrizketa: Lide Hernando
- 14:30 Beste aldean
- 15:00 Hemen Debagoiena
- 16:00 Kooltur: Pelax
- 17:00 Kantari Oñati 5
- 17:30 Adinberri 3
- 18:00 Kantari Arrasate 9
- 18:30 Elkarrizketa: Lide Hernando
- 19:00 Hemen Debagoiena
- 20:00 Etxetik plazara
- 20:30 Kooltur: Pelax
- 21:30 Hala Bazan: Kirola 4
- 22:00 Kontzertua: Gari
- 23:00 Zirikatzen 6
- 23:30 Etxetik plazara

EGUENERO

NAGUSIENAKO GIMNASIA SAIOAK

'Adinberri' 17:30


EGUENA, 30

HEMEROTEKA: KIROL PROBAK

'Hala Bazan' 21:30/23:30

GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: [goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)  
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 5



GOIENA

KONFINAMENDUKO KONTAKIZUNAK

'Alde Banatan' 21:30/23:30

EGUAZTENA, 6

'BALKOITIK HARAGO' ERREPORTAJEA

'Berezia' 21:00/23:00


ZORION AGURRAK



ARRASATE  
**Nora Biain Ibarluzea**  
Maiatzaren 7an, 3 urte. Zorionak, Nora! Mosu handi bat etxekoen, familiaren eta lagun guztien partetik!



ARRASATE  
**Itsaso Ginart Velez de Mendizabal**  
Maiatzaren 6an, 3 urte. Zorionak, politx hori! Egun ederra pasatu eta jaso familixa osoaren partetik, txoko-marrubizko muxu pila-pila bat!



ARRASATE  
**June Andres Lopez**  
Maiatzaren 4an, 2 urte. Zorionak, pototi! Gure etxeko printzesa handitzen doa. Besarkada eta muxu handi-handi bat zure familiaren partetik. Asko maite zaitugu!



BERGARA  
**Egoitz Urbesalgo Uzin**  
Maiatzaren 4an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Jada bi urtetxo, mutil handi. Etxeko danen, eta batez ere, Ametsen partetik. Aupa Real!



OÑATI  
**Unai Bellido Gonzalez**  
Maiatzaren 3an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Nahiz eta aurten etxean egon, egun zoragarria izango da. Muxu erraldoi bat, familia osoaren partetik.



OÑATI  
**Ane Urien Osa**  
Maiatzaren 3an, 7 urte. Mila zorion, Anetxo! Egun zoragarri bat pasatuko dugu, dudu barik. Patxo eta besarkada handi bat, etxeko danon partetik!



ARRASATE  
**June Dominguez Garai**  
Apirilaren 30ean, 10 urte. Zorionak, June! 10 urte egiten dituzula! Egun berezia igaro. Patxo pila bat, etxekuen partetik.



ARETXABALETA  
**Igotz Canterra Herrasti**  
Apirilaren 30ean, 8 urte. Zorionak, Igotz! Ondo pasatu zure eguna eta patxo pila bat, etxeko danon partetik! Maite zaitugu.



OÑATI  
**Gari Letamendi Mugarza**  
Apirilaren 29an, 10 urtebete. Zorionak, Gari! Konturatu orduko urtebete pasatu da. Etxekoen, eta bereziki, Naroaren eta Naiaren partetik. Muxu pila bat.



ARETXABALETA  
**Inder Arando Iturbe**  
Apirilaren 29an, 10 urte. Gozatu egunaz! Etxekuen eta familia osoaren partetik, besarkada handi bat.



ARAMAIO  
**Ilere Agirre Errasti**  
Apirilaren 27an, 8 urte. Zorionak, politx hori! Patxo handi bat tia Eskioren eta Iñakiren partetik! Asko guretzau!



ANTZUOLA  
**Eneritz Olano**  
Apirilaren 25ean, 11 urte. Zorionak etxeko danen partetik, pitxin! Muxuak eta besarkada bat. Ondo pasatu eguna!



ARRASATE  
**Unai Torres Valdes**  
Apirilaren 24an, 7 urte. Urtebetetze arraroa izan arren, egun ederra izan dezazula opa dizugu. Zorionak, maitia! Aita, ama, anaia Aimar, izeba-osaba Mikel eta Vanessa, eta Hugo.



OÑATI  
**Eli Cuesta Zubia**  
Apirilaren 24an, 30 urte. Zorionak, Elitxu! Eta urte askotarako, txiki! Etxeko danon partetik, egun ona desio du eta laister danok batera ospatukula, seguru!



OÑATI  
**Luis Arregui**  
Apirilaren 24an, 66 urte. Zorionak, Luis! Etxeko guztien partetik, ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat!



BERGARA  
**Ane Arregi Gantxegi**  
Apirilaren 24an, 8 urte. Zorionak, pitxin! Zortzi tirakada belarritik, neska handi! Besarkada eta patxo handi bat, etxeko danen partetik.

TXUTXU-MUTXUAK





**BERGARA Hodei Bolibar Sanchez**  
Maiatzaren 3an, 6 urte. Zorionak, Hodei! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Besarkada eta patxo handi-handi ba, etxeko danon partetik!



**ARETXABALETA Odei Otxoa Diaz de Guereñu**  
Maiatzaren 2an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Besarkada handia familia osoaren partetik, amama eta aitaita bereziki.



**BERGARA Erik Callejo Diez**  
Maiatzaren 1ean, 7 urte. Zorionak, Erik, familia osoaren partetik!



**ARRASATE Haitz Belategi**  
Maiatzaren 1ean, 10 urte. Zorionak, maitia. Primeran pasatu zure eguna familixekin. Hau dana pasatzen denean, berriro ospatuko dugu! Muxu handi bat danon partetik.




**ANTZUOLA Lantz eta Bidart Aizkorbe Jauregi**  
Apirilaren 5ean eta maiatzaren 1ean, 4 eta 8 urte. Zorionak, guapisimak! Patxo handi-handi bana, familiariaren partetik! Mua!



**ARETXABALETA Pilar Vazquez**  
Maiatzaren 1ean. Zorionak, Iban! 18 urte pasatu eta gero, eguna heldu da! Ez da zuk amestu bezalakoa izango, baina, oso-oso ondo pasatu eguna. Besarkada handi bat!



**ARETXABALETA Raquel Fernandez**  
Maiatzaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak, Raquel, zuen familia osoaren partetik. Oso ondo pasatu zure eguna, eta urte osoa ere bai. Muxu pilo bat.



**ARETXABALETA Raquel Fernandez**  
Maiatzaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak, Raquel, zuen familia osoaren partetik. Oso ondo pasatu zure eguna, eta urte osoa ere bai. Muxu pilo bat.




**ONATI Laia Zurutza Garcia de Albeniz**  
Apirilaren 27an, 5 urte. Zorionak, txiki! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



**ELGETA Haizea Agirre Osa**  
Apirilaren 27an, 4 urte. Zorionak familiako txikiari! Izan zoriontsu eta gogoratu esandakoari kasu egiteaz. Ikaragarri maite zaitugu!



**ARRASATE Maren Uriarte Letona**  
Apirilaren 26an, 10 urte. Zorionak, Maren! Patxo mordo eta potolo-potoluak etxekuen partetik!




**ARRASATE Vero**  
Apirilaren 26an, 40 urte. Zorionak, Vero maitia! 'Peña Park Deluxe'-ren partetik, muxu asko eta besarkada handi bat. Laster ikusiko gare eta ospatuko dugu.



**BERGARA Juantxo Urbiet**  
Apirilaren 26an, 70 urte. Zorionak, txapeldun! 70 urte bete arren, geroz eta gazteago! Muxu handi bat familia osoaren, eta bereziki, Maialenen eta Naroaren partetik.



**BERGARA Garazi Agirrezabal eta Olatz Mateos**  
Apirilaren 26an, 24 urte. Zorionak, bikote! Egun ederri pasatu eta domekan Etxagiko leihuan elkartuko ga. Besarkada handi bat! Bittori eta bere taldea.



**BERGARA Paul Erdozia Barrenetxea-Arando**  
Apirilaren 26an, 4 urte. Zorionak, maitxia! Jarraitu horren maitakor eta alaia izaten. Zorionak eta besarkada handi bat, etxeko danon partetik.



**BERGARA Hodei Ibarra Sasiain**  
Apirilaren 23an, 6 urte. Zorionak, Hodei! Ondo-ondo pasatu egun berezi honetan! Zoragarria za! Besarkada handi, goxo eta indartsu bat danon partetik!



**ESKORIATZA Laiene Huerta**  
Apirilaren 23an, 5 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu, etxekoen partetik.



**ELGETA Igor Larrañaga Mandaluniz**  
Apirilaren 23an, 7 urte. Zorionak, Igor! Ondo-ondo pasatu eguna. Patxo pilo bat, zure familia osoaren partetik!



**BERGARA Harri Izagirre Santamaria**  
Apirilaren 18an, 8 urte. Zorionak, maitia! Aurtengo berezia baina polita! Etxeko danen partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

### Internet

Goiena.eus-en erabiltzaileak sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurrak@goiena.eus](mailto:zorionagurrak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarri ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




### 1. 58 urte ezkontuta

Aretxabaletako Garbiñe Gaztañaga eta Luis Mari Beitia 1962ko apirilaren 30ean ezkontu ziren. Hori horrela, gaur, 58 urte beteko dituzte ezkontuta. Etxekoekin eta senideekin ospatuko dute, orain konfinamenduan eta ostean etxetik kanpo, merezi duen moduan. "Zorionak, ama eta aita, etxekoen partetik! Laztan eta besarkada bana bioi, eta segi zoriontsu izaten".

### 3. Osasun arloko langileei aitortza

Egunerokoa da osasun arloko langileei 20:00etan egiten zaien aitortza, txaloeekin. Bada, aitortza hori berori kalera ateratzeko asmoz, aurreko egubakoitzean, ambulantiak eta ertzainak eta herri batzuetan udaltzainak ere kalerik kale ibili ziren, euren sirenak ozen ipinita. Zaharren egoitzetan eta Debagoieneko Ospitalean ere egin zituzten geldialdiak.



### 2. Merkataria umekin ospatzen

Konfinamenduan etxean dauden umeei keinu egin gura izan zien Oñatiko Txanda dendarien elkarteak, eta aurreko zapatuan kalerik kale ibili ziren merkataria umeei goxokiak banatzen. 1.500 pakete banatu zituzten balkoian mozorrotuta zeuden neska-mutikoen artean. Globoak ipini zituzten balkoietan Txandi txantxikuari ongietorria egiteko.

### 4. Elkarrekin abesten

Konfinamenduak erakutsi du irudimen handia dutela herritarrek. Askotariko ekintzak egiten dihardute sare sozialen bidez. Horixe egin dute Maria Izaga eta Idoia Asurmendi aramaioarrek, beste kantari batzuekin. Kim Andre Arnesen musikariaren *Even when he is silent* kantuarien bertsioa egin dute. Aurrez aurre abesteko aukera batik, telematikoki elkartu dira kantuan egiteko.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRÍA

## Lemak

Asteotan lema bi zabaldu dira nagusiki, biak Italiatik ekarrita: *Dena ondo irtengo da eta Geratu etxean*. Lehena ez dut gogoko: pertsona asko, urrunagokoak eta gertuagokoak, bidean geratu dira eta geratzen ari dira –goian beude–. Zaila da guztia ondo ateratzea, are zailagoa egoera honetan, Italian gertatzen ari zena lehenago ez interpretatzeagatik.

Umeentzako asmatu bada, ez dakit estrategia egokiena den egoerari aurre egiteko. Nagusientzako bada, zentzua izango luke Aita Santuari kasu eginez gero; Aste Santuan esan zuen iluntasunak eta heriotzak ez dutela azken hitza. Gizartea ez da, baina, fededuna.

*Geratu etxean* leloak hedapen handiagoa lortu du. Erabili dute norbanakoek, gobernuek, enpresek... Azken hauetako askorentzat, gainera, primerako euskarria izan da: lema hori hartu dute aitzakia bezala beraien produktu/zerbitzua publizitzeko. Eta jendea ondo portatu da. Arau urratzeak anekdotikoak izan dira, batzuk ikusgarriak izan arren. Hori bai, herritarrek agindua betetzeko asko laguntzen du beste elementu batek, konturatu edo ez: armada espainolaren presentziak han eta hemen.

BUKATZEKO

# Aloñako igoera, etxeko pasilloetan barrena

Apirilaren 26an zen jokatzekoa Aloñako igoeraren hamaseigarren edizioa Oñatin, eta Ander Zabaleta korrikalari oñatiarrak etxean egin zuen lasterketa: hain zuzen ere, 3 ordu, 12 minutu eta 53 segundo pasilloetan barrena korrika

**Naroa Urien Berrío OÑATI**

Joan den domekan zen jokatzekoa XVI. Aloñako igoera Oñatin. Lasterkariak goizeko bederatzieta ziren abiatzekoak Oñatiko Foru plazatik 22,6 kilometroko ibilbidea egiteko. Ander Zabaleta, ohiturari jarraituz, bederatzieta hasi zuen lasterketa, sukalde ondoko pasilloan, eta hamabiak eta laurden alde arte ibili zen korrika.

**Igoera berezia**

Zabaleta anaienezako oso maitatua da Aloñako igoera eta aurten ere egin nahi izan du Ander Zabaletak: "Joan den urtean, 3 ordu, 12 minutu eta 33 segundo eman genituen lasterketa egiteko, eta denbora hori etxetik hausteko erronka jarri nion neure buruari". Aloñako igoerak Artzanburu gaina izaten du puntu altuena (1.354 m); Zabaletak ez zuen Oñatiko 230 metroetatik gora egin, baina joan den urteko edizioan burutako denbora hautsi zuen bere etxeko pasilloetan barrena. Terrazaren eta etxearen arteko eskailerak Urriagaingetik Belarrierainoko malda gogorra ordezkatu zuen eta Aloñako gutzera iritsita buelta eman



Ander Zabaleta, etxeko pasilloan, korrikaldia hasi aurretik. A.Z.

barrean, terrazako ertzean buelta erdi eman behar izan zuen Zabaletak. "Lasterketa berezia da eta ezin nuen egin gabe geratu. Kamiseta, iazko dortsala eta botak jantzi eta korrikan hasi nintzen. Terraza, etxeko pasilloak eta hauen bitarteko eskailerak prestatu eta zirkuitu bat zehaztu nuen. Belaunek min-duta bukatu zuten, baina asko disfrutatu nuen", dio Zabaletak.

Domeka umeak irteteko baimena zuten lehen eguna izan zen, eta korrikalariaren etxea pasealeku ondoan dago. Bertatik pasatzen ziren auzokideek ezin zuten sinistu: "Hainbat herritar pasa ziren umeekin batera, eta harrirta begiratzen ninduten, ezin zuen sinistu 3 orduz korrika nenbela bertan". Zabaletak egunero egiten ditu korrikaldi txikiak terrazan, eta herritar guztiak animatzen ditu kirola egitera: "Luzaketak egitearekin ere ondo dago, ez dugu zoratu behar, baina mugitzea garrantzitsua da eta oso osasungarria fisikoki zein mentalki".

**Lasterketa handiena aurretik**

Aloñako igoera irailaren 12ra atzeratu dute, eta, hala, gogotsu egingo duela dio Zabaletak. Askok prestatzen zebilen hurrengo lasterketarako eta indartsu ikusten zuen bere burua, baina momentu honetan lasterketa nagusia beste bat dela dio korrikalari oñatiarrak: "Guztiok batera egoera honi aurre egitea da momentuko lasterketa nagusia. Mendiak bertan jarraituko du; gu ere bertan egoteko aukera izatea da orain zaindu beharrekoa. Animo asko bidaltzen dizkiet herritar guztiei, gero eta gutxiago geratzen da".

# ALDE BANATAN

GOIENA TELEBISTA, KONFINAMENDUKO KONTAKIZUNAK

MAIATZAREN ZAN, ZAPATUAN, 13:00ETAN ETA 23:00ETAN

ELKARRIZKETATUAK: MARKEL IRIZAR ETA MARI KARMEN ETXEANDIA

**goiena**  
Zu hemen zaude.

